

Euskalduntzea krisian?



Euskalduntze-alfabetatzearen datuak (1985-2003)



Iritzi bilketa: Hurbilketa soziolinguistikoa

- DIONISIO AMUNDARAIN • XABIER ISASI • PELLO JAUREGI
- IÑAKI LASA • IÑAKI MARTINEZ DE LUNA
- JOXE MANUEL ODRIOZOLA • ERRAMUN OSA • MIKEL ZALBIDE



Iritzi bilketa: Sektoreko kideei galdezka

- JOKIN AZKUE • ABEL CAMACHO • JOXERRA OLANO
- JOXE LEON OTAÑO • ISIDRO YOLDI

Egunen gurpilean

- JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI
- IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

JAKiN

137

uztaila
abuztua
2003




Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Zenbaki honetan

► 7

Gai nagusia

Euskalduntzea krisian?

Euskalduntze-alfabetatzearen datuak (1985-2003) ► 11

Iritzi bilketa: Hurbilketa soziolinguistikoa ► 31

DIONISIO AMUNDARAIN / XABIER ISASI / PELLO JAUREGI /
IÑAKI LASA / IÑAKI MARTINEZ DE LUNA /
JOXE MANUEL ODRIOSOLA / ERRAMUN OSA / MIKEL ZALBIDE /

Iritzi bilketa: Sektoreko kideei galdezka ► 69

JOKIN AZKUE / ABEL CAMACHO / JOXERRA OLANO /
JOXE LEON OTAÑO / ISIDRO YOLDI /

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI ► 95
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia


Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

jakin@jakingunea.com

2003ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	39 €	—
Ale arrunta	6,50 €	8,40 €
KANPOAN		
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,60 €

Summary



Basque language learning, in crisis?

- *Data regarding Basque language learning-literacy (1985-2003)*

The magazine has put together some data regarding the Basque language learning-literacy sector among adults both in the Basque Autonomous Community and Navarra and the North Basque Country. The data is not as exhaustive as we would like, but nonetheless provides us with a valuable breakdown of the development experienced by this sector in recent years. The data refers to the following aspects of the sector: number and type of students and teachers; number of modules and classes; type and map of language schools for adults.

- *Socio-linguistic opinions regarding the crisis in terms of Basque language learning*

The magazine has addressed several socio-linguistic specialists in the Basque language, all of whom have had wide experience in the Basque language learning sector, in order to gather together opinions about the virtual crisis in Basque language learning in recent years. In particular, the questions which have been formulated focus on the following points: assessment of the social causes and changes that have given rise to a decrease in the number of students both in terms of learning the Basque language and becoming literate in it; strategies to be pursued to increase the number of Basque speakers in Basque society; assessment of the importance of Basque language learning and literacy among adults within the general process of Basque language learning in the Basque Country. ▶ *Various Authors*


- *Opinions from within the sector itself regarding the crisis in terms of Basque language learning*

The magazine has addressed several workers and people in charge of the Basque language learning and literacy sector in recent years. In particular, the questions which have been formulated focus on the following points: assessment of the main factors influencing the decrease in student enrolment; assessment of the capacity of language schools for adults to obtain «complete Basque speakers»; definition of the mission of said language schools in current society. ▶ *Various Authors*



News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joseba Balerdi, Iñaki Martínez de Luna, Amatiño and Laura Mintegi. ▶ *Various Authors*



e skuetan duzun hau bigarren aldiko 137. zenbakia da eta 2003. urteko laugarrena.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* sailak helduen euskalduntze eta alfabetatzearen sektorearen egoerari buruzko azterketa eskaintzen du. Ez da gai berria gure orrialdeetan. 1990eko uztaila-abuztuko zenbakiari, 59.ari, «Euskalduntze-Alfabetatzeak bidegurutzean» izenburua jarri genion. Hainbat urte pasatu dira ordutik, baina, itxuraz, euskalduntze-alfabetatzea berriro ere bidegurutzean dago. Gaia, behinik behin, zeresana ematen ari da. Gehien agertzen diren hitzek kinka gaiztoa adierazten dute: «krisia», «egoera larria», «beherakada», «jaitsiera». Zenbaki honetan errealitate hori hobeto ezagutzeko saiakera bat burutu nahi izan dugu. Horretarako, hiru atalek osatzen dute sail hau. Lehenik euskalduntze-alfabetatzearen inguruko datuak biltzen dituen artikulua dator, eta, ondoren, gai nagusiaren inguruan burututako bi iritzi bilketa.

Lehenengo artikuluan, beraz, helduen euskalduntze eta alfabetatzearen sektoreari buruzko datuak bildu ditugu. Euskal Herri osoko datu bateratuak jasotzea izan da gure helburua, baina ikus daitekeen legez, ez dugu xede hori zeharo bete. Nafarroa eta Iparraldeko datuak geratu dira herren xamar batik bat. Dena dela, gure ustez, sektoreak azken hamabost bat urteotan izan duen bilakaeraren argazki nahikoa fidagarria eskaintzen da. Datu horiek sektorearen honako alderdiak ukitzen dituzte: ikasle eta ira-

kasleen kopuruak eta tipologiak; modulu eta talde-orduen kopuruak; euskaltegien tipologia eta mapa.

Saileko bigarren atalean, soziolinguistikan adituak diren eta sektorea ongi ezagutzen duten hainbat lagunengana jo dugu sektorearen ustezko krisiari buruzko iritzia eman dezaten. Hain zuzen, krisialdi honen arrazoi sozialengatik galdetu diegu, eta baita helduen euskalduntzeak Euskal Herriaren euskalduntze prozesu orokorrean duen garrantziaz ere. Azkenean, zortzi lagunek erantzun digute.

Hirugarren atalean, azkenik, euskalduntze eta alfabetatzearen sektoreko arduradun eta kideengana zuzendu gara iritzi eske. Hauxe eskatu zaie: matrikulazio jaitsieran eragiten duuten faktore nagusiak azaltzea, euskaltegiak «euskaldun osoak» lortzeko duten gaitasuna baloratzea eta egungo gizartean euskalduntze prozesu osoaren baitan euskaltegiek duten zeregina zehaztea. Azken buruan, HABE, Udal Euskaltegi, IKA, AEK eta euskaltegi homologatuetako ordezkarien erantzunak bildu ditugu.

Egunen Gurpilean saila dator azken orrialdeetan. Ohi denez, azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta bi-ziak dakartzate Joseba Balerdik Kultura alorrean, Laura Mintegik Literaturan, Iñaki Martinez de Lunak Soziolinguistikan eta Amatiñok Telepolis atalean.¶

Euskalduntzea krisian?



Euskalduntze-alfabetatzearen datuak (1985-2003) **11**

Iritzi bilketa: Hurbilketa soziolinguistikoa

DIONISIO AMUNDARAIN / XABIER ISASI / PELLO JAUREGI /
IÑAKI LASA / IÑAKI MARTINEZ DE LUNA /
JOXE MANUEL ODRIOSOLA / ERRAMUN OSA / MIKEL ZALBIDE **31**

Iritzi bilketa: Sektoreko kideei galdezka

JOKIN AZKUE / ABEL CAMACHO / JOXERRA OLANO /
JOXE LEON OTAÑO / ISIDRO YOLDI **69**

Euskalduntze-alfabetatzearen datuak (1985-2003)

1 990ean, Alfabetatzearen nazioarteko urtea ospatzen zela eta, zenbaki monografikoa eskaini zion *Jakin* aldizkariak gai honi: «Euskalduntze-Alfabetatzeak bidegurutzean». Hamahiru urte igaro dira eta badirudi Euskalduntze-Alfabetatzearen sektorea berriro ere bidegurutzean dagoela. Gaiak behintzat ez du gaurkotasunik galdu, azken aldian makina bat iritzi eta gogoeta agertu baita gaiaren inguruan, krisi hitza aipatuz eta ikasle kopuruaren jaitsiera azpimarratuz.

Sail honi hasiera emateko, sarrera gisa, azken hamabost urteotan euskalduntzearen eta alfabetatzearen sektoreak izan dituen kopuruak eta zenbakiak hurbildu nahi izan dizkiogu irakurleari. Artikulu honetan, beraz, horren inguruan bildu ditugun datuak eskaintzen ditugu sistematizatuta eta egituratuta.

Gure hasierako asmo metodologikoa Euskal Herri osoko datuak bateratuta eta irizpide bakarraren arabera eskaintzea zen. Baina, datuak lortzeari ekin ahala, ohartu gara helburu hori betetzea ezinezkoa dela. Ez dago inon sektoreari buruzko Euskal Herri osoko datu bateraturik. Horrela, azken buruan, esparru administratibo bakoitzarenak bere aldetik eman behar izan ditugu, eta hori ere, ikusi ahal izango denez, desoreka larriekin. Hutsune eta desoreka horiek, gure ustez, euskalduntze eta alfabetatzearen sektorearen izaera eta egoera ahul eta desegituratuaren isla baino ez dira, tamalez.


Era horretan, artikulu honen zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoko datuei dagokie. HABEk eskainitako datuetan oinarritu gara (bereziki, IKEIk HABErentzat egindako «Euskaltegien sektorerako bideragarritasun plana» txostenean). Hiru atal nagusitan banatu ditugu datu horiek: ikasleei dagozkienak (ikasle kopuruak, ikasleen tipologia adinaren, lanbidearen eta hasierako mailaren araberak), irakasleei buruzkoak (irakasle kopuruak eta profila) eta euskaltegien ingurukoak (euskaltegi motak, talde orduak, euskaltegien banaketaren mapa). Datuak 1986-87 ikasturtetik 2001-02 ikasturtera artekoak dira (azpialbatzuetan, dena dela, 1993-94 ikasturtetik aurrerakoak). Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Antton Iñurritegi HABEko Ikuskatzailetzako arduradunari datu horiek bildu eta taxutzeko eman dizkigun erraztasunengatik.

Nafarroako Foru Erkidegoari eta Iparraldeari buruzko datuak, aitzitik, askoz ere xumeagoak dira. Nafarroari dagokionez, 1984-85 eta 1994-95 ikasturteen bitarteko ikasle kopuruen datuak (sare pribatukoak eta publikokoak bereizita) baino ezin izan ditugu bildu. Iparraldeari dagokionez, berriz, 1994-95 ikasturtetik 2002-03 ikasturtera arteko AEK-ko ikasleen eta ikas orenen kopuruak lortu ditugu. Datu hauek lortzeko eskaini diguten laguntzagatik eskerrak eman nahi dizkiegu ere, hurrenez hurren, Patxi Gorritxo Nafarroako Helduen Euskalduntze Bulegoko euskaratzenari eta Jakes Bortairu Iparraldeko AEK-ko arduradunari.

Euskal Autonomia Erkidegoko datuak (1986-2002)

Ikasleak

Ikasle kopuru osoa (1986-87/2001-02)



Ikasle kopuruari dagokionez, hauxe litzateke daturik aipagarriena: 1995-96 ikasturtetik aurrera ikasle kopuru a jaitsi egin da EAEn.


Kopuru horrek etengabeko igoera izan zuen 1995-96 ikasturte arte (kopuru handiena 44.855 ikasle izan zen, hain zuzen ikasturte horretan). Handik aurrera, nabarmen murriztu da kopuru hori, batez ere 2000-01 eta 2001-02 ikasturteetan: %11,22 eta %8,5eko beherapenak, hurrenez hurren. Beherakada horren irudi argia eskaintzen digu honako datu adierazgarri honek: 2001-02 ikasturtean 33.993 ikasle izan ziren, hau da, 1995-96 ikastur-

tean baino ia 11.000 ikasle gutxiago. Beherakada hori, gainera, hiru lurraldeetan gertatu da; hala eta guztiz ere, askoz ere nabarmenagoa izan da Gipuzkoan eta Bizkaian Araban baino.

Azken ikasturtean, 2002-03, ikasle beherakada dagoneko %4koa da, HABEren otsaileko datuen arabera.

Bestalde, taulan ikus daitekeenez, ikasle berrien kopuruan ere beherapen garrantzitsua gertatu da aztertutako denboraldian: 2001-02 ikasturtean 9.617 ikasle berriz izan ziren, ikasle kopuru osoaren %28,3. Duela hamabost urte inguru ikasle berrien proportzioa ikasle guztien kopuruaren erdiaren inguruan zebilen.


Ikasle kopuru osoa lurraldeka (1986-87/2001-02)



	<i>Guztira</i>	<i>Berriak</i>	<i>Araba</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Bizkaia</i>
86-87	46.487		5.063	15.219	26.970
87-88	42.026	%52,85	4.536	13.824	24.543
88-89	38.247	%46,91	3.966	12.931	21.965
89-90	38.716	%47,13	4.126	13.574	21.733
90-91	39.829	%46,81	5.063	13.385	22.041
91-92	40.930	%42,57	5.695	13.899	22.099
92-93	41.493	%40,64	5.629	14.411	22.216
93-94	43.286	%39,50	5.931	14.811	23.314
94-95	43.557	%37,10	6.205	14.341	23.767
95-96	44.855	%35,60	6.496	14.386	24.760
96-97	43.763	%34,80	6.529	14.064	23.960
97-98	42.064	%32,40	6.599	12.444	23.586
98-99	41.753	%33,20	6.685	12.390	23.316
99-00	41.837	%31,80	6.958	12.480	23.080
00-01	37.141	%28,20	6.342	11.066	20.303
01-02	33.993	%28,30	6.109	9.935	18.456

Oharra: Zenbait ikaslek ikasturte berean lurralde ezberdinetako euskaltegian ikasten du. Beraz, lurraldekako batuketa ez dator bat ikasle kopuruarekin.


Ikasleen banaketa adinaren arabera (1986-87/2001-02)



	16-25	26-35	36-45	45-
86-87	64,64	26,76	6,40	2,20
89-90	60,27	28,87	8,20	2,67
93-94	50,49	33,05	13,60	2,85
94-95	48,33	32,64	15,54	3,49
95-96	45,16	33,28	17,51	4,04
96-97	41,89	33,35	19,92	4,84
97-98	39,79	35,35	18,62	6,25
98-99	37,36	35,19	20,38	7,08
99-00	33,68	34,33	23,33	8,66
00-01	31,41	33,79	25,14	9,67
01-02	29,48	33,24	26,33	10,94

Ikasleen adinari dagokionez, batez besteko adinaren igoera nabarmena gertatu da azken urteotan. 1993-94 ikasturtean, esate baterako, ikasle talderik handiena 16-25 urteko adin-tartean kokatzen zen (%50,49). 2001-02 ikasturtean, ordea, ikasle talde handiena 26-35 adin-tartean zegoen (%33,24).

Ikasleen banaketa lan egoeraren arabera (1986-87/2001-02)



	86-87	93-94	97-98	01-02
<i>Langabezian</i>	38,57	36,16	23,43	16,55
<i>Lanean</i>	29,48	27,57	54,28	61,70
<i>Ikasle</i>	31,95	36,27	22,29	21,75


Lan egoerari dagokionez, lanean ari direnen ugaritzea nabarmentzen da. Aitzitik, ikasleek eta, batik bat, langabetuek, gero eta neurri proportzional txikiagoa dute.

Ikasleen banaketa lanbidearen arabera (1986-87/2001-02)

	86-87	93-94	97-98	01-02
<i>Ikasleak</i>	31,92	36,21	22,30	21,75
<i>Irakasleak</i>	17,16	9,50	14,45	15,99
<i>Funtzionarioak</i>	10,79	10,15	10,36	15,28
<i>Lanbide liberalak</i>	4,24	3,65	4,23	4,12
<i>Teknikoak</i>	4,27	3,17	4,73	6,35
<i>Lanbide espezialduak</i>	9,16	14,08	10,90	11,22
<i>Espezialdu gabeak</i>	1,12	2,97	3,81	3,63
<i>Etxekoandreak</i>	5,37	3,45	4,76	4,51
<i>Lanik gabeak</i>	1,78	1,55		
<i>Besterik</i>	15,97	16,81	22,67	15,59


Ikasleen banaketa hasitako mailaren arabera (1986-87/2001-02)

	1-3	4-6	7-9	10-12	Alfa
86-87	54,93	22,54	14,36		8,37
87-88	46,57	24,61	16,72		12,11
88-89	44,6	26,22	17,40		11,78
89-90	47,89	24,62	17,74		9,75
90-91	49,55	25,84	14,66	1,65	8,31
91-92	48,88	26,94	12,89	4,46	6,83
92-93	45,90	27,67	13,95	5,31	7,17
93-94	45,64	26,81	14,74	6,55	6,26
94-95	43,16	28,37	15,07	7,40	6,00
95-96	40,15	29,18	16,31	8,22	6,14
96-97	37,18	28,27	18,43	9,85	6,25
97-98	34,67	27,44	19,44	11,97	6,47
98-99	33,19	26,55	18,72	14,25	7,11
99-00	32,09	25,55	18,38	17,12	6,86
00-01	29,70	26,09	19,65	18,75	5,80
01-02	26,57	24,65	20,83	19,41	8,52




Ikasleen hasiera mailari dagokionez, taulan eta grafikoan argi ikus daitekeenez, maila altuetan (7-9 eta 10-12 urratsak) hasten diren ikasleen ehunekoa etengabe handitu da urteetan zehar.

Irakasleak

Irakasle kopuruaren urteroko eboluzioa
(1993-94/2001-02)

	<i>Guztira</i>	<i>Araba</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Bizkaia</i>
86-87	2.092	233	726	1.163
87-88	1.868	189	645	1.086
88-89	1.757	192	616	982
89-90	1.703	195	606	944
90-91	1.762	237	618	953
91-92	1.817	267	647	951
92-93	1.791	267	672	919
93-94	1.952	264	721	1.015
94-95	1.865	263	677	975
95-96	2.039	310	740	1.055
96-97	1.950	303	704	1.011
97-98	1.836	283	584	1.010
98-99	1.819	298	587	971
99-00	1.775	302	560	943
00-01	1.659	293	500	889
01-02	1.531	274	450	826

Oharra: Zenbait irakasle ikasturte berean lurralde ezberdinetako euskaltegitan eman ditu eskolak. Beraz, lurraldekako batuketara ez dator bat irakasle kopuruarekin.




Irakasleen kopuruak etengabeko beharpena izan du 1995-96 ikasturteaz geroztik, Gipuzkoan batez ere.

1995-96 ikasturtera arte, aldiz, igoera izan zen eten-gabekoa (ikasturte horretan egon zen irakasle kopururik handiena: 2.039). Harrezkero, kopuru hori etengabe murriztu da: 1.531 irakasle 2001-02 ikasturtean. Ikasturte horretan 1999. urtean baino 240 irakasle gutxiago zeuden EAeko euskaltegietan.

Irakasleen profilari buruzko zenbait datu aipatzearen, adinaren igoera, kasu, argia izan da: 2001-02 ikasturtean multzorik handiena 36-40 urteko adin-tartean zegoen (%28,5). Haien ikasketa mailari dagokionez, unibertsitate mailako ikasketadunen proportzioa handituz joan da. Azkenik, bai irakasleen espezializazioak (hau da, irakasletza ogibide nagusitzat hartzea) bai esperientzi urteek igoera nabarmena izan dute. Esaterako, 2001-02 ikasturtean irakasleen %47,1k 11 urte edo gehiagoko esperientzia zuen.

Euskaltegiak

Euskaltegi motak (1993-94/2001-02)




	<i>Pribatuak</i>	<i>Publikoak</i>	<i>EAE</i>
93-94	109	55	164
94-95	113	51	164
95-96	112	48	160
96-97	112	46	158
97-98	109	40	149
98-99	102	40	142
99-00	99	40	139
00-01	82	40	122
01-02	75	40	115

Euskaltegien izaerari dagokionez, aipa dezagun bai euskaltegi publiko (-%27) eta bai pribatuen (-%31) kopuruak egin duela behera, eta beherakada hori hiru lurraldeetan gertatu dela. Oro har, euskaltegien kopurua %30 jaitsi da 1993-94 ikasturtetik 2001-02 ikasturtera (hau da, 49 euskaltegi gutxiago).

Bestalde, euskaltegien kopuru osoarekiko euskaltegi publiko eta pribatuen pisu erlatiboa bere horretan mantendu da 1993-94 eta 2001-02 ikasturteen artean. Lehenengo ikasturtean publikoak %34 eta pribatuak %66 baziren, 2001-02 ikasturtean %35 eta %65eko proportzioei eusten diete hurrenez hurren. Hau da, oraindik ere, pribatuen kopurua publikoen kopuruaren ia bikoitza dela esan genezake.

Talde orduak sareka (milaka ordu urteko) (1993-94/2001-02)



Talde orduen kopuruak, oro har, %19ko beherapena izan du 1993-94 eta 2001-02 ikasturteen artean. Gehiago zehaztearren, eta euskaltegiak motaren arabera sailkatuz


gero, kasu horretan Udal Euskaltegietako talde orduak izan duten %31ko beherapena nabarmentzen da (100.000 talde ordu galdu dituzte). Pribatuek, aldiz, %13ko beherapena bakarrik izan dute, zenbaki absolututan 95.000 ordu inguru galduz.

Euskaltegien sare ezberdinetan talde orduak izan duten eboluzioari dagokionez, AEK eta BERTANen %16 eta %17 jaitsi dira talde orduak hurrenez hurren. Euskaltegi pribatuen sarearen barnean hauek duten pisua kontuan hartzen badugu badugu, 1993-94an %37 bakoitzak, osotasunaren beherapena errazago esplikatu daiteke. IKAKo talde orduak, ordea, %23ko igoera izan dute, hain zuzen ere Araban euskararen inguruan eman den suspertzearen ondorioz.


Azkenik, aipa dezagun Barnetegietako talde orduak %24ko jaitsiera izan dutela 1993-94 eta 2001-02 ikasturteetan.

Talde orduak sareka eta lurraldeka (1993-94/2001-02)


ARABA



GIPUZKOA




BIZKAIA



		Publ.	BERTAN	AEK	IKA	Fed. gab.	Guztira	EAE
86-87	Araba	27	10	37		6	80	973
	Gipuzkoa	123	42	135		39	339	
	Bizkaia	105	111	263		75	554	
87-88	Araba	29	21	45		7	102	934
	Gipuzkoa	131	43	110		29	313	
	Bizkaia	129	93	215		82	519	
88-89	Araba	27	22	39	500	6	94	859
	Gipuzkoa	129	47	88		30	294	
	Bizkaia	136	81	172		82	471	
89-90	Araba	28	24	15	25	5	97	849
	Gipuzkoa	132	46	89		30	297	
	Bizkaia	145	95	160		55	455	
90-91	Araba	34	31	20	36	5	126	883
	Gipuzkoa	119	53	79		29	280	
	Bizkaia	161	122	145		49	477	
91-92	Araba	35	31	25	43	7	141	975
	Gipuzkoa	148	67	81		30	326	
	Bizkaia	178	129	158		43	508	
92-93	Araba	30	26	31	48	6	141	985
	Gipuzkoa	146	74	84		29	333	
	Bizkaia	172	132	155		52	511	
93-94	Araba	23	28	36	58	2	147	1.048
	Gipuzkoa	130	90	98		31	349	
	Bizkaia	167	150	178		57	552	
94-95	Araba	15	31	42	68	0	156	1.045
	Gipuzkoa	118	89	96		30	333	
	Bizkaia	154	148	190		64	556	
95-96	Araba	15	28	49	68	2	162	1.098
	Gipuzkoa	114	88	113		31	346	
	Bizkaia	158	154	209		69	590	
96-97	Araba	12	27	47	74	2	162	1.068
	Gipuzkoa	110	78	115		27	330	
	Bizkaia	153	142	218		63	576	
97-98	Araba	9	26	48	75	2	160	1.018
	Gipuzkoa	105	80	98		25	308	
	Bizkaia	144	127	211		68	550	
98-99	Araba	8	28	48	72	2	158	976
	Gipuzkoa	102	76	85		29	292	
	Bizkaia	137	132	195		62	526	
99-00	Araba	7	29	48	77	2	163	986
	Gipuzkoa	104	76	87		24	291	
	Bizkaia	136	135	200		61	532	
00-01	Araba	7	28	41	74	2	152	915
	Gipuzkoa	96	74	73		24	267	
	Bizkaia	130	134	177		55	496	
01-02	Araba	7	26	36	72	2	143	835
	Gipuzkoa	88	64	63		22	237	
	Bizkaia	126	127	151		51	455	

Euskaltegien banaketaren mapa (2001-02)



	<i>Publikoak</i>	<i>BERTAN</i>	<i>AEK</i>	<i>IKA</i>	<i>Fed. gab.</i>
86-87	50	7	114		57
87-88	49	7	96		39
88-89	53	4	79		35
89-90	54	4	83		33
90-91	57	4	78		28
91-92	57	4	75		28
92-93	58	14	71	4	17
93-94	56	14	78	4	11
94-95	52	15	81	4	11
95-96	49	15	72	4	19
96-97	45	15	72	4	20
97-98	40	15	72	4	17
98-99	40	15	68	4	14
99-00	40	15	67	4	12
00-01	40	15	50	4	12
01-02	40	15	42	4	10

2001-02 ikasturtean EAEn zeuden 115 euskaltegieta-
tik %46 Bizkaian kokaturik zeuden, %42 Gipuzkoan eta
gainerako %12 Araban.

Azterketa lurraldekako banaketaren arabera egiten badugu, lurraldeen arteko diferentziak nabarmenak direla esan genezake. EAEn guztira 233 lokal badaude, %56 Bizkaian kokatzen dira, %31 Gipuzkoan eta %13 Araban.

Euskaltegien kopuru orokorra azken urteotan jaitsi dela baieztatu daitezkeen arren, hedaturari dagokionez, hura handitu egin dela esan behar da. 1993-94 ikasturtean zehar 164 euskaltegiak EAeko 91 herritan ematen zituzten eskolak; 2001-02 ikasturteko 115 euskaltegiak, ordea, 125 herritara iristen ziren.

Nafarroako datuak (1985-1995)

Ikasle kopurua sare publikoan (1984-85/1994-95)

	HEO*	Miluze	NUP	FE**	IB***	Guztira
84-85	435	213				648
85-86	519	200			107	826
86-87	595	220			40	855
87-88	590	266			46	902
88-89	580	281		197	36	1.094
89-90	595	249		171	41	1.056
90-91	620	285		213	23	1.141
91-92	594	500 425		407	54	
92-93	674	576 562	131	359	54	
93-94	705	705 721	174	395	45	
94-95	755	749 753	232	388	42	

* HEO: Hizkuntz Eskola Ofizialak.

** FE: Funtzionarioen euskaltegiak.

*** IB: Irakasleen birziklatzea.

1991-92 ikasturtetik aurrera, Miluze Euskaltegian bi matrikulaldi izan dira: irailekoa eta otsailekoa. Goiko kopurua irailekoari dago-kio eta behekoa otsailekoari. Hainbat ikaslek matrikula bi aldietan egiten duenez, ez dago zehaztuta urtero zenbat ikasle matrikulatzen den. Horrek eragozten du 1991-92 ikasturtetik aurrera ikasleen kopuru orokor absolutua zenbatekoa den jakitea.

Ikasle kopurua sare pribatuan (1984-85/1994-95)

	AEK	IKA	Gainerakoak	Guztira
84-85	2.678			2.678
85-86	2.739			2.739
86-87	2.697			2.697
87-88	2.689			2.689
88-89	2.189			2.189
89-90	1.385	780	467	2.632
90-91	1.645	1.084	367	3.096
91-92	1.912	1.006	282	3.200
92-93	1.927	1.044	142	3.113
93-94	1.966	1.203	197	3.366
94-95	2.161	1.422	223	3.806

Ikasle kopuru osoa (1984-85/1994-95)

	<i>Sare publikoa</i>	<i>Sare pribatua</i>	<i>Guztira</i>
84-85	648	2.678	3.326
85-86	826	2.739	3.565
86-87	855	2.697	3.552
87-88	902	2.689	3.591
88-89	1.094	2.189	3.283
89-90	1.056	2.632	3.688
90-91	1.121	3.096	4.237
91-92		3.200	
92-93		3.113	
93-94		3.366	
94-95		3.806	

Iparaldeko datuak (1994-2003)

AEK-ko ikasle eta ikas orenen kopuru osoak (1994-95/2002-03)

	1	2	3	4	5	6	7	8	Alfa	IK*	IO**
94-95	322	70	147	60	80	3	40		37	767	
95-96	362	67	178	90	94	14	47	19	44	915	115.830
96-97	404	61	208	77	101	37	37	24	48	997	135.810
97-98	472	192	167	127	47	72	47	0	81	1.205	167.400
98-99	435	209	197	77	64	42	20	6	55	1.105	161.940
99-00	383	257	146	102	88	18	31	8	84	1.117	172.020
00-01	318	172	174	90	82	10	20	21	90	977	151.290
01-02	375	254	146	108	96	18	31	0	84	1.112	172.200
02-03	419	196	150	73	42	44	0	14	45	983	152.370

* IK: Ikasle kopurua.

** IO: Ikas orenak.



Euskalduntzea krisian? Hurbilketa soziolinguistikoa

1 990ean, Alfabetatzearen nazioarteko urtea ospatzen zela eta, zenbaki monografikoa eskaini zion *Jakin* aldizkariak gai honi: «Euskalduntze-Alfabetatzeak bidegurutzean».

Urte batzuk pasatu dira orduz geroztik, baina gaiak behintzat ez du gaurkotasunik galdu. Azken aldion makina bat iritzi eta gogoeta agertu da haren inguruan, krisiaz eta jaitsiera azpimarratuz.

Gaurko kezka nagusia matrikulazioaren jaitsiera edo beherakada da, jada orduko zenbaki hartan ere seinalatu zena, bestalde. EAEko zifren arabera, 1986-87 ikasturtean 46.487 ziren euskaltegietakako ikasleak. Gero, urtetan, oraintsu arte, 40.000 ikasle izan omen dira urtero euskara ikasten aritu izan direnak. 2000-01 ikasturtean 37.141 ziren ikasleak. Eta aurtengo ikasturtean: 33.993. Bistakoa da jaitsieraren handia: 1986-87 ikasturtean baino %27 gutxiago aritu ziren iaz euskara ikasten, 12.494 ikasle gutxiago, alegia. Azken aldian, gainera, badirudi azkartu egin dela jaitsiera hori: iaztik hona behintzat, %8,5 jaitsi da. 3.148 ikasle galdu dira urte batean.

Bada jaitsiera! Zer adierazten du horrek?

Beheranzko joera horren irakurketa soziologikoa egin nahi dugu. Adituek, arduradunek eta kezkatuek era guztietako arrazoiak aipatu dituzte: sozialak, ideologikoak, politikoak, laboralak, administratiboak, metodologikoak,

sektorearenak. Hitz bitan, gizarteari dagozkionak eta sektoreari dagozkionak. Guk hemen jakin nahi duguna da zer gertatu den euskal gizartean, Euskal Herrian, 70-80ko hamarkadetatik gaurdaino, hain zuzen ere beherakada hau esplika dezakeen zer. Galdeketa hau euskalduntze eta alfabetatzearen errealitatea oso ongi ezagutzen duten adituen artean banatu dugu.

Ondoren, aditu horiei egin dizkiegun bi galderak aurkezten ditugu:

- 1.- Zer gertatu da urte hauetan erdaldunak euskara ikastera joan ez daitezen eta euskaldun alfabetatu gabeak alfabetatzera hurbil ez daitezen? Zer aldatu da gure gizartean?
- 2.- Euskal gizartea euskalduntzea helburu, zer egin behar da? Zer garrantzi dute eta nola eragin behar dute helduen euskalduntzeak eta alfabetatzeak Euskal Herria euskalduntzeko prozesuan?



Dionisio Amundarain

1.- Jakin-ekoe egin dizkidaten galde bien inguruan, aspaldidaniko nire bizpahiru ideia plazaratzeko parada ikusi dut.

Euskalduntze-alfabetatze mugimenduaren (hemendik aurrera mugimendua) beheranzko joera ez da gaur goizeko gauza: 70eko hamarkadaren azken aldera jadanik nabaritu genuen hori; hamarkada horretako hirugarren laurdeneko boomaren ondoren, hasia zen beheranzko joera.

Horren arrazoiak askotarikoak izan ziren eta dira, noski. Neure susmoen arabera bat aipatuko dut.

Frankismoaren hilzorikoan buru-altxatze zoragarria gertatu zen Euskal Herrian, eta altxatze horren alderdietako bat euskararekiko atxikimendu bizia izan zen. Jende askok jo zuen euskara ikastera nahiz alfabetatzera. Integratzailea zen motibazioa.

Horren inguruan, puztuki handia puztu zen gure gizartean. Baina hizkuntza bat ikastea gauek goizera lortu ezin den gauza dela ikusirik, husten hasi zen puztokia. Ikasle askoren utziera ez ezik, argiro agertu zen irakasle askoren norabide-aldaketa ere. Honen adierazle eta adibide da hau: astean lau edo sei ikastordu hartuz edo emanegaritutako prozesua nagiegia zela ikusirik, ikastaro trinkoak, egun osokoak, antolatzen hasi ziren bazterretan. Halere, aipatutako lau/sei ordukoak baztertu gabe.

Hasierako sua epelduz joan zen. Eta norberaren baitako su txikiari eragingo zion hausporik ez zen ikusi gizartean. Zoritxarrez. Bai, ordea, hura itzaltzekorik; geroxeago aipatuko dut hauetakoren bat. Eta euskara ikasteko orduan, motibazio instrumentala joan zen nagusituz: lantegian eskatu izana, lana lortzeko beharrezkotzat jo izana. Hori izan zen, funtsean, euskara ikasteko arrazoi ordudanik; bestelako bame-barneko arrazoirik falta izan ez bazen ere askotan.

Eta ikasle-kopurua jaitsiz zihoan. Gero eta gutxiago ziren. Eta gizatearen aldetik su-mailerik ez, hausporik ez.

Are okerrago. Administrazioaren aldetik diskurtso et-siarazle hau hasi zen plazaratzen: mugimenduak ez du eman, ez du ematen hartarainoko fruiturik gure gizartean euskalduntzeari dagokionez. Ez zen, noski, adierazpen argi, garbi eta esplizitu-esplizitua, baina bai arazoa hurbiletik eta bihotz barrutik bizi zutenek susmatzeko modukoa. Balio al du horrenbeste diru eta horrenbeste ahalegin xahutzea, hain fruitu gutxi lortzeko?

Agian, uste horren argibide dirateke azken urteotan mugimenduaren irakaspen-zentroak jasaten ari diren diru laguntzen murrizketak eta estutzeak.

Horiek horrela, neure konbentzimendu sendo eta bizia agertzen saiatuko naiz. Konbentzimendua; beraz, gauza subjektiboa; beraz, esperimentalki frogatu ezina. Hala ere, lekukotasun bizi izan nahi duena.

1) Mugimenduaren arrakasta txikia ala handia ezin erabaki da estatistiken bidez bakarrik. Ezin erabaki da era mekanizistan. Ezin erabaki da ikuspegi materialistaz. Adibidez, horrenbeste ikastordutan halako maila lortu behar da, esan ohi da. Baina, besteak beste, baieztapen horretarako erabilitako erreferentziak ondo aztertu beharko lirajteke. Maila bera ere, zertan datza? Garbi dago, ikasketa unibertsitarioak dituen bati (eta unibertsitateak maila homogeneoak ematen ote ditu?) eta esku-langile bati ezin eska dakiekeela maila bera euskara ikasteko orduan; ezta, beraz, ikasketa-prozesu bera ere.

Esango nuke ere, aipatu neurri eta neurpide horietaz baliatzen diren gehienak mugimenduan irakasle bezala gutxi jardundako jendea izan ohi dela. Beraz, giza ekintza bat era gizatar betean neurtzeko, garantia txiki samarra izan ohi duela

2) *Berria*-n, ekainaren 27an, irakurri dudanak txunditurik utzi nau: «Jaurlaritzak, bere aldetik, emaitza akademikoetan oinarritutako beka sistema ezartzea proposatzen du...». Esan daitekeen gutxienezkoa, proposamen diskriminatorioa dela esan behar da. Noiz pentsatu da Hezkuntzan horrelakorik planteatzea: irakasleei emaitza akademikoen arabera ordaintzea? Noiz pentsatu da Osakidetzan horrelakorik planteatzea: sendagileei eta erizainei gai-

xoen baitan lortutako arrakasten arabera ordaintzea? Noiz pentsatu da Ertzaintzan horrelakorik planteatzea? Noiz pentsatu da Kultura Saileko jendeari euskararen erabilera sustatzean izandako lorpenen arabera ordaintzea?

3) A rrakasta! Barru-barruraino sartu zitzaidan 1982an, Israelen egindako egonaldian, hango «Gau-eskolako» emakume-talde bati bisita egitean, goi-kargudun batek esan ziguna: ezer gutxi ikasiko dute, baina, gutxienik, israeldar kulturen murgiltzeko balio izango diete.

Euskara ikaste/irakastea da, noski, mugimenduaren helburua. Baina ez ote dira kontuan hartu behar horretan maila eta alderdi asko? Ez ote du baliorik Euskal Herrian, israeldar goi-kargudun hark esandakoak. Ez ote gauza nabaria, nahiz eta euskara menderatzera ez iritsi, nahiz eta erdi bidean gelditu, nahiz eta hasiera-hasierako maila batean gelditu, jende askoren jarrera hobetzea lortu izan duela mugimenduak?

Maila askotan ez ezik, modu askotara hartu behar da arrakasta. Estatistikak baliozkoak dira, baina beren mailan. Oso harira dator kit duela gutxi otorinologoko batek esan zidana: gure audiometriak entzumenaren maila bat adierazten du, baina gure aparatuak oso «traketsak» dira, eta gutxi gorabeherakoak. Neurgailu egiazkoagoa da entzumenaren narriadura «bizi» duenaren «bizipena» bera. Guztia estatistikara murriztu nahi izatea —zer esango dut?— unidimentsionalki jokatzeko da; politikan alderdi politiko bakar bati itsu-itsuan lotzea bezala-edo.

2.- Hau behintzat bai: Konfiantza gehiago izan hitzean. Konfiantza gehiago komunikazioan. Sekulako indarra du hitzak harengatik konfiantzarik bada.

Horregatik, gizarteari hitz egin behar zaio euskaldundu dadin. Euskal hiztun bilaka dadin. Telebistan eta irranean —non ez?— publizitate-kanpaina handiak egin ohi ditu Jaurlaritzak autoan segurtasun-uhala erabiltzearen alde, etab. Zergatik ez euskararen alde?

Jakina, jarrera mekanizistatik gabe. Ez da aski, administrazioa euskararen alde dagoela adierazteko, noiz-behinka telebistan euskaraz jardutea. Uste izan ohi den

baino «usaimen» handiagoa izan ohi du jendeak jarrera jatorra eta jarrera artifiziala bereizteko.

Jarrera agresiboko kutsurik gabea izan beharko luke kanpainak. Era baikorrean egina: «zure beharra, zure premia du euskarak» esan beharko litzaioke jendeari.

Azken hitza. Konfiantza gehiago beharko litzateke ikasleen nahiz irakasleen hitzean. Lanean dihardutenen hitzean. Ezin juzgatu da mugimendu osoa bakar batzuen balizko arduragabekeriaz.

Hitzak asko balio du. Gizakia bera adierazten du hitzak. Hitzean konfiantzarik ez bada, gizakiagan ere ez. Administratuengan konfiantzarik ez bada, ezin harritu administratzaileengan ez izateaz.

Estatistikak, berak bakarrik, ez dit balio. Konfiantza handia dut barruak barruntarazten didan errealitatean. Eta barruak esaten dit alfabetatze-euskalduntze mugimenduak fruitu handi eta oparoak eman dituela, ari dela ematen, bai maila indibidualean, bai kolektiboan. Kontseilua- ren antzera, Euskal Herrian Euskaraz-en antzera, Ikastolen antzera, Kilometroak-en antzera eta beste hainbat mugimenduren antzera, beste era batean bada ere, euskararen zuziari Euskal Herriko gizarte osoaren begi aurrean irmo eusten dio mugimenduak. Zuziaren horrelako argi-mutilak galduko balira, euskararekiko «grina» galtzen aterako litzateke. Galera izugarria. Eragile handiak dira horiek.

Hori sumatzeko, fenomenologia hutsera (zentzu etimologikoan) baino zerbait sakonagora jo behar da. Giza ekintzen gizatasuna sumatzeko, azalekora baino sakonagora jo behar da. Alfabetatze-euskalduntze mugimendua- ren izaera ezagutzeko, ez da aski azaleko miaketa.

Mugimendua- ren beheranzko joerari kontra egiteko, berriz, beharrezkoa da izaera hori barrutik ezagutu eta aintzat hartzea. Edozein kasutan, bidea ez dateke behe- ranzko joeraren aurrean etsitzea; askoz gutxiago ikasten eta irakasten ari direnei etsiaraztea. Egokiagoa eta zuzena- goa da mugimendua- ren eragile izatea, jendeari euskara ikas dezan eraginez eta ikasten ari direnei euskaraz jarduteko ingurumen jatorren aukera eskainiz. ¶



Xabier Isasi

1.- Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian aipatu egiten dira helduen euskalduntze-alfabetatzearen maldan behera azal ditzaketen faktoreetako batzuk.

Hizkuntza bat ikastea neketsua da. Bestalde, euskalduntzearen eta alfabetatzearen emaitzak ez dira onak: hasten diren askok ez dute ikasturtea amaitzen; hurrengo urtean gutxiagok jarraitzen; oso gutxik erdiesten dute euskara-maila egokia. Horietako askok, gainera, ikasteari utzita koan, euskaraz bizitzeko dituzten aukeren urritasunagatik, galdu egiten dute ikasitakoa.

Ez da beste euskaltegiekin eta hizkuntzak irakasten dituzten akademiekin ez harremanik eta ez irakasbideen konparaketarik ere. Euskaltegien mapa bera ere egiteke da oraindik, bakoitzak bere hazkunderari bakarrik begiratzen baitio.

Dirulaguntzen banaketan ere, nahiz eta gero eta txikiagoak izan, badaude oraindik desorekak eta aldeak. Zenbait euskaltegitan ere bada oraindik euskararen kalte-tarako den ideologizaziorik.

Alfabetatzearen eskaintza osotua zehaztu beharra dago, bai eta irakasleen prestakuntza areagotzeko beharra ere. (*Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*, 62. or.)

Oro har, faktore horiek, hizkuntza ikasteko zailtasun-nea, euskaraz bizitzeko dagoen aukeren urritasuna, euskalduntze-alfabetatze sektorearen anabasa, diru laguntzen desorekak eta aldeak eta zenbait euskaltegitan euskararen kalterako ideologizazioa, neurri batean, matrikula-galderen azalgarriak izan daitezke. Baina neurri batean soilik. Euskaltegetako irakasleriaren lan egoera, euren prestakuntza eta motibazioa, helduen euskalduntze-alfabetatzearen sakabanaketa eta sustapen murrizta, euskaldun ikasien euskarara gizarteratzeko zailtasunak eta laguntza falta, euskara eta bere hizkuntza komunitatearen kontrako

erasoak, jarrera ideologiko hertsia eta beste zenbait faktore azalgarriak zerrenda daitezke. Iritzia emateko jarritako mugen barruan ezinezkoa da faktore azalgarri horien azalpen xehea egitea.

Esan dezagun, orokorrean, azken urteotan euskalduntze-alfabetatzearen aurkako faktoreen eragina areagotu egin dela. Sinplifikatze aldera bi alderdi nagusitan adieraziko ditut faktore azalgarriak. Batetik, abertzaletasun eta nazionalismoaren kontrako urte luzeetako eraso ideologiko mediatikoa euskalduntze-alfabetatzeraino iritsi da eta badinudi, tamalez, datozen urteetan areagotuko dela. Bestetik, euskalduntze-alfabetatzearen sektorea ez zaie egokitu Euskal Herriko gizartearen aldaketei, gizarte industrialetik zerbitzu gizartera, zerbitzu gizarretik *ezagueraren* gizartera. Neure ustez bi faktore multzo horiek dira aldaketa kualitatiboaren erantzuleak. Aldaketa *kualitatiboa* esaten diot.

Kontua da, esandako faktore horiek eraginda, euskalduntze-alfabetatzeak ikasleak galtzeak hizkuntza politikaren ahuleziak agerian uzten dituela. Beste era batera, Euskal Herriko gizartearen aldaketa izan da euskalduntze-alfabetatzearen ahuleziak agerian utzi dituen. *Jakituriaren* gizartean euskarari beste edozein *ezagueraren* estatus maila bera ematen zaio. Batzuek euskaltegiak ingelesa irakasteko akademiak izango bailiran hartu nahi dituzte norbanakoaren borondatea euskararen ikaskuntzarako giltzarri bakarra izango bailitzan. Ahaztu egiten da euskararen kasuan hizkuntza gizarteratu behar dela eta hiztun berria euskararen gizartean txertatu behar dela eta eginkizun horretan lagundu. Euskalduntze-alfabetatzearen helburu estrategikoa norbanakoaren borondateetik harago doa. Norberak euskarra ikastea ez da nahikoa, horrekin batera hiztun berria hizkuntza komunitatean hiztun aktiboa bilakatzeak izan behar du euskalduntze-alfabetatzearen xede nagusia.

- 2.- Aurrenik eta bat, helburua hori izatea, euskal gizartea euskalduntzea alegia. Gero ziurtatzea helburu hori lortzeko politika harako politika dela. Alegia, oinarrizko irizpideek helburua lortzen laguntzen dutela. Hizkuntza-politika eraginkorrena EAEkoa da eta

Lau irizpide edo zutabe nagusitan oinarriturik da Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-politika: demokrazian, ahulenaren aldeko jokabidean, hizkuntza propioari zor zaion aitortzan eta gizarte-ekimenen osagarritasunean. (*Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*, 30. or.)

Pentsatu nahi dut hirugarren printzipioa ez beste guztiak Jaurlaritzak bere politika guztietan ezarriko dituela. Edo Jaurlaritzak ba ote du politikaren bat demokraziari, ahularen alde agertzeari eta gizarte-ekimenen osagarritasuna printzipioei jarraitzen ez dienik? Zergatik hizkuntza-politikaren kasuan azalarazi behar dira politika orori dagozkion irizpide orokorrak?

Neure ustez hizkuntza-politikari datxekien salbuespen irizpide horietan aurki daitezke gure egoeraren hainbat gaitzen sorburua. Hizkuntza-politikaren irizpideek politika hori zikiratu eta antzutu egiten dute. Ea ondo azaltzen dugun adibidearen bitartez. Demagun Informazio eta Komunikazioen Teknologia berriak (IKT) gizarteratzeko planaren irizpideak:

EAEko *Informazio eta Komunikazio Teknologia berriak ezartzeko eta zabaltzeko politika* printzipio demokratikoan, ekintza positiboarenean eta osagarritasunarenean oinarritzen da. Hona printzipio horiek banan-banan azalduta:

A) *Printzipio demokratikoa: Informazio eta Komunikazio Teknologia berriak ezartzeko eta zabaltzeko plangintza* herritar gehienek borondate eta nahietara egokitu behar da. Horretarako, herritarren jarrerak ezagutu eta gehienek nahi eta onartzen duten intentsitate eta erritmoaren arabera moldatu behar da *IKTren ezarpen eta hedapen politika*. Beraz, behar beharrezkoa da adostasuna aldian-aldian berritzea, maila sozialean nahiz politikokoan.

Begien bistakoa da testu horretan *IKTak ezartzeko eta zabaltzeko politika* baino *hizkuntza politika* jari beharko lukeela. Zilegi bekit bihurrikeria hori gure hizkuntza-politikaren alderdi populista antzua agerian uzteko. Populismoaren adibide klasikoa da *herriak nahi duen intentsitate eta erritmoan* esatea eta egitea, hizkuntza-politika herriak eginen bailuen! Horretarako, euskararen berreskurapenerako hizkuntza politikak *osotasun eta jarraikortasunaren*

printzipioei kasu gehiago egin beharko lieke. Euskara edo beste edozein hizkuntza ikastea norbanakoaren ikuspegi-tik antzerako izan badaiteke ere, sozialki arras desberdina dira. Alderdi sozial horrek bereizi behar ditu euskararen eta beste edozein hizkuntzaren ikaskuntza prozesuak. Kalitatearen garaiotan esango genuke euskararen abantaila diferentziala hori dela. Dudarik gabe, horrek adierazten du helduen euskalduntze-alfabetatzeak duen garrantzia.

Euskara ikastea prozesu luzea eta nekagarria da. *Euskalduntzeak*, beniz, bi prozesu batera exijitzen ditu: bat, euskara ikastea, eta bi, *euskarara gizarteratzea*; euskara ikasten duena hizkuntza-komunitateko kide bihurtzea. Azken urrats hori eman ezean euskalduntzea burutu gabe geratzen dela esan behar dugu. Ikuspegi horren arabera euskaltegiek euskararen hizkuntza komunitaterako atariak izan behar dute, eta euren funtzioa euskara ondo irakatsiz euskararen gizartean txertatzeko aukerak, trebetasunak eta gaitasunak landu behar ditu. Euskalduntze linguistikoa euskalduntze soziala eta instrumentala erantsi behar zaizkio arrakastatsua izan dadin.

Oso tasunaren printzipioaren arabera, euskalduntzearen ikuspegi murrizak, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Unibertsitatea, helduen euskalduntzea, familiarrena eta abar ez dira oso eraginkorrak. Ikuspegi integrala beharko genuke. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, garai batean euskararekiko ardura Lehendakartzari zegokion eta haren bitartez gobernuko sail guztietara iritsi zitekeen. Gaur egun, berriz, sail baten ardura da, Kultura eta Hizkuntza sailarena hain zuzen ere. Alabaina gainontzeko sailetan hizkuntza politika jakinak garatzen dira, Osakidetza, Hezkuntza eta abar. Sakabanaketa horretan, euskararen normalkuntzaren kalterako, gero eta zailagoa da hizkuntza-politika bateratua egitea. Euskalduntze-alfabetatzea euskararen normalkuntzarako jarduera *estrategikoa* da, ez da abagunekoa. Ebaluatzeko ezin erabil daitezke ohiko hizkuntzaren irakaskuntzarako erabiltzen diren irizpideak, euskaltegien funtzioa euskara irakastetik harago doalako. Esandako guztia aintzat hartuko balitz euskalduntze-alfabetatzearen egoerak hobera egingo lukeelakoan nago. ¶



Pello Jauregi

1.- Aitor dezadan, hasteko, nire ikuspegia oso alde batekoa dela, esku artean darabildan informazioa aski mugatua baita. Ezin izango dut, hortaz, Euskal Herri osoaz hitz egin. Gipuzkoako Lasarte-Oria herrian berriki burutu dudan ikerketa hartuko dut ene erantzunaren abiapuntu. Ikerketa horri esker, azken hamar urteotan bertan eman den hizkuntzazko aldaketa aztertzeo aukera izan dut. Datu multzo honetaz baliatuko naiz orain euskalduntze-alfabetatzean zuzenean eragiten duten hainbat aldagai azpimarratze aldera. Datu zehatzak izanik ere, egoera orokorrari buruz zerbait esaten digutelakoan nago.

Aurreneko datu interesgarria demografiak berak ematen digu. Izan ere, hamar urteotan bertako gazteen kopurua 4.400dik 2.512ra pasatu da (gure ikerketan 13 eta 24 urte bitartekoak jo ditugu gaztetzat). Ia erdira jaitsi da multzo hau, sekulakoa!

Beraz, gazte gutxiago, askoz ere gutxiago, eta etorri, euskaradunak datoz oro har. Lasarte-Oriako 10 gaztetik 8k euskara «nahiko ongi» edo «oso ongi» ulertu eta irakurri egiten du, 10etik 7k idazten du «nahiko ongi» edo «oso ongi» euskaraz, eta azkenik, 10etik 6k egiten du hitz euskaraz «nahiko ongi» edo «oso ongi». Etxea eta eskola bi-dezko euskalduntzearen ondoriozkoak dira datu hauek. Oso datu baikorrak berez, nahiz eta helduen euskalduntze-alfabetatze erakundeei lanaren murrizketa ekarri.

Aldatu ez dena, tamalez, etxeetan eta laguntzetan euskara zein maiztasunez erabiltzen den. Zenbakietara ekarrita honako hau: 10 gaztetik 3k baino ez du normalean euskaraz egiten lagun euskaldunekin. Burua lehengo lepotik. Eutsi egiten zaio baina ez dago zabaltze nabarmenik.

Euskararen aldeko motibaziorik sutsuenak epeldu egin dira. Honako datu hau kasurako: orain hamar urte 10 gaztetik 6k egiten zuen «Euskal Herrian jende guztiak

euskaraz hitz egin beharko lukeelako» iritziaz bat, orain berriz 4k baino ez. Euskara jakin beharraz zuten iritzia ez da, ordea, ordutik hona aldatu.

Aurreko aldagaiak beren artean uztartuz gero ez da zail helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorrak pairatzen duen joera interpretatzen. Batetik, ez dirudi euskararen aldeko bultzagile edo pizgarri aipagarririk gure artera agertu denik, horren lekuko talde informaletan (etxeetan eta lagunarteetan) euskararen erabilerak aurrera nabarmen egin ez izana, bai eta euskararen erabileraren normalizazioari buruzko iritziak epeldu izana ere. Hortaz, eragile berririk ez jendea euskalduntze-alfabetatze mundura erakartzeko. Bestaldetik, euskaldundu eta alfabetatu beharreko lagun-multzoa nabarmen murrizten ari da, euskaldunagoak baitatozkigu belaunaldi berriak. Kontuak horrela, alorraren murrizketa baino ezin dugu espero. Arazoak larrituz etorriko dira gainera.

Eskola bere eginbeharra betetzen ari delako, helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorra murriztea albiste ona da ene ustez. Baina txanponaren beste aldea, alde itsusia alegia, euskarara hurbiltzeko motibazio berri eta indartsurik agertu ez izana da. Horrek zerbaiten berri eman digu. Hots, euskararen biziberritzea, gizarte erabilera alegia, ez dela oraino benetan abiatu, prozesua geldirik dagoela, ez dela gizarte indar ahultsurik antolatu. Hau dela eta, helduen euskalduntze-alfabetatzeak badu zer hausnartu eta zer hobetu, nahiz eta hausnarketa hau, jakina, berari soilik ez dagokion.

- 2.- Belaunaldi berriak elebidun izango direlako ustea, nago, oso sendoa dela. Euskal Herriko zonalde zabaletan bai bederen. Eskolak egingo du, egiten ari da, lan hori etxekoe-kin batera. Zein tarte gelditzen zaio orduan helduen euskalduntze-alfabetatzeari? Beharrezkoa izango al zaio bere eginbeharra, orain arte bezala, euskal gizarteari? Beharrezkoa bai izango da aurrerantzean ere, baina egun irakas-kuntzari ematen dion erabateko lehentasunak berea egin du. Irakaskuntzari lotutako ildo bati beti ere toki egin beharko badio ere, funtsean eta erabateko lehentasunez eus-

kararen erabilera sustatzeko egitekoari heldu beharko dio aurrerantzean, nire ustez.

Adibide bat emanez hasiko naiz aurreko baieztapena argitzen. Datuen arabera, euskara etxean jaso duten gazte gehien-gehienak euskara txukunaren jabe izatera iristen dira, bai eta kalean ahal dutenean euskaraz aritzeko joera ere erakusten dute. Baina giza-multzo hori oso txikia da, tamalez, Euskal Herria osoki hartuz. Giza-multzo handia, ordea, eta gero eta handiago izango dena gainera, euskaraz aritzeko guztizko gaitasunik ez eta kalean erdaraz jokatzeko joera dutenena da. Honelakoak, oro har, eskolan elebidundu dira, etxean erdara jaso duten bitartean. Giza-multzo hau ikaragarri handituz datorrena da eta euskal hiztun bihurtzea dugu premiarik handienetakoa normalizazioaren ikuspegiaren aldetik. Zalantzak ditut eskolak, hezkuntza formaleko erakunde gisa, egoera hori irauli ote dezakeen. Garbiago ikusten dut, ordea, hezkuntza ez-formaleko erakundeek, eta horien artean kokatu behar dira hain zuzen ere helduen euskalduntze-alfabetatzekoak, duten ahalmena hizkuntzazko erabilera informaleko eremuak lantzeko eta hezkuntza formalak iristerik ez duen tokietara iristeko. Hortaz, baldin eskolak bere emaitzarik hoberena euskarazko gaitasunaren alorrean ematen badu, helduen (eta gazteen) euskalduntze-alfabetatze erakundeek bere onena erabileraren sustapenean eman beharko lukete.

Baina honek ikuspegi aldaketa sakona dakarkie azken hauei, eta hori ez da erraza, bestalde, zeren urte luzeetan irakaskuntzaren inguruan antolatua izan baita beren jarduera. Urteetako inertziak eta tradizioak, nahiz eta egungo egoerari dagoeneko ongi egokitzen ez zaizkion, hortxe diraute temati. Zailtasunak zailtasun, hala ere, ikuspegi aldaketaren ardatzak honako hauek izango lirateke ene ustez. Jada ez litzateke euskarazko ikastaroak antolatzea erakunde hauen egiteko nagusia, baizik eta kultura ikastaro ugari, oparo eta guztiz erakargarriak prestatzea. Euskara, beraz, ez litzateke ikastaroa antolatzeko ardatza eta helburua, kultura jarduerak bideratzeko hizkuntzazko tresna baizik. Jada ez litzateke ikasgela jokalekurik esanguratsuen, baina bai familiak, lagunarteak, elkarteak eta antzeko

gizarte testuinguru biziak. Jada orain arteko uste nagusia, hots, «euskara erabiltzeko ikasi egin behar da lehendabizi», beste honekin trukatu beharko litzateke, hau da, «hizkuntzak erabiltzen direnean hobetzen da erabiltzaileen hizkuntzazko gaitasuna».

Hizkuntzazko erabilera, gizabanako hutsari baino gehiago, taldeari dagokionez gero, talde antolatu eta berezkoak behar ditugu jokaleku gisa gogoan hartu. Lantegietan lankide sareak ditugu, ikastetxeetan ikaskide sareak, herrietan lagunarteak, elkartetan lagun-multzoak, senitartekoak ere hortxe dira. Guneak, harreman sareak, berezko taldeak euskaldundu nahi ditugu, hots, kideen arteko euskarazko erabilera sustatu. Hizkuntzaz jabetzeko gramatika buruz hartzea beharrezko ez denez gero, ez eta bestelako irakaskuntza gidatuaren bidez ikastea ere, erabiltzeko testuinguruak sortu beharko dira. Halakoetan jendeak hizkuntzazko gaitasuna hobetu, handitu eta eguneratu egingo du hizkuntza bera erabiltzen duelako, eta ez nahita eta buruz ikasten duelako. Ildo hau are zuzenagoa da baldin eta lehen aipatu dugun xede-taldea gogoan hartzen badugu, zein baita sistema eskolarrak erdizka elebidundutako gazteen taldea. Honelakoekin normalizazioaren ikuspegitik lan egiten dugunean, erabilera bera da abiapuntu eta bidea.

Esan ere egin dugu, helduen euskalduntze-alfabetatzekoak erabilera erakunde bihurtuta ere, irakaskuntza ildo bati eutsi beharko lioketela. Erabilerarekiko ildo nagusi beharko lukeen bitartean, honako hau bigarren toki apalean kokatuko nuke. Egoera bereziei erantzutea izango luke helburu irakaskuntzazko ildo honek. Hiru halako egoera bururatzen zaizkit: 1) sistema eskolarraren bidez elebiduntzeko aukerarik izan ez dutenena, 2) kanpotik etorritako etorkinena, 3) lanbideari lotuta hizkuntzazko behar tekniko bereziak dituztenena. Egoera gehiago izan daitezke, jakina, baina hauen guztien muinean egiteko «ordezkagarria» ari dira burutzen helduen erakundeak, izan ere sistema eskolarrak sorturiko hutsuneak estaltzen ari dira beraiek. Baina sistema eskolarra hizkuntzaren ikuspegitik normaltzen den neurrian, ordea, funtsik gabe

geldituko da (eta dagoeneko gelditzen ari da toki ugari-
tan) egiteko ordezkagarria. Eskolarekiko «osagarritasuna»
bilatu beharko litzateke aurrerantzean, zein baita, berriro
diogu, hizkuntzazko erabileraren sustapenarena. ¶



Iñaki Lasa

1999.ean Nafarroako AEK-ko arduraduna nintzenean
«*lege berri baterantz*» izeneko egitasmoaren barruan anto-
latutako jardunaldiei esker Felix Marti ezagutzeko aukera
izan nuen. Afaltzen ari ginela, gure lana gertutik eta ze-
haztasunez ezagutu nahi zuela jakinarazi zidan. Arreta
handiz entzun zuen AEK eta helduen euskalduntze alfa-
betatzearen egoeraren berri eta behin postrera iritsi gine-
nean, honela esan zidan: «Oso ongi ikusten dut egiten
duzuen lan guztia, baina kontuan hartu heroismoak ezin
duela betiko iraun». 1999tik dut esaldi hori bueltaka.

- 1.- Helduen euskalduntze eta alfabetatzearen egoeraz hitz egi-
tea, gure hizkuntzaren normalizazioaren egoeraz hitz egi-
tea da. Izan ere, HEAn suma daitezkeen joerak normaliza-
zioaren egoeraren adierazleak diren beste batzuetan ere su-
ma daitezke. Beraz, HEAn dugun egoera kezkarria euska-
raren normalizazioaren egoera kezkarria da. Kontua da
jakitea zergatik iritsi garen egoera honetara. Azterketa hori
egiten denean bi joera nagusi aurkitu ohi dugu: arazoia
gizartean gertatutako ustezko aldaketa batzuetan kokatzen
dutenak (autokritikari ihes egiteko era polita), edo egoera
ulertzeko gakoak orain arteko errealitatearen hutsuneetan
kokatzen dituztenak. Gu bigarren horren aldekoak gara
eta datozen lerrootan hori azaltzen saiatuko gara.

Euskararen normalizazioaren ikuspuntutik HEAk ga-
rantzi estrategikoa du, are gehiago, nekez euskaldun dit-
zakegu belaunaldi berriak paraleloki helduak euskaldunt-

zeco estrategia eraginkorra abiatu ezean. Lau zutabe nagusitan oinarritu behar dugu prozesua: herritarren protagonismoa eta parte-hartze zuzena, sektorearen gaitasuna lanari aurre egin ahal izateko, gizarte eragileen konpromisoa prozesuarekin eta administrazioen lana, diruz laguntzeko, erraztasunak eskaintzeko eta neurriak hartuz eta legeztauz eragiteko. Azter ditzagun bada laurak banan-banan 20 urte hauetan egoera zein izan den jakiteko.

Milaka pertsona pasatu da euskaltegietatik urte hauetan eta neurri handi batez horiexek izan dira sektorearen sostengua. Hori dela eta, ikasleak galtzean sistema dar-dar hasi da. Kantitateak egin du prozesua bideragarri eta ziur aski sektoreak ez du gaitasun errealik izan denak egoki atenditzeko. Hala ere, herritarrek, ikasleek, euskaltegietan aurkitu duten errealitatea kasu askotan tamalgarria izan da, eta gaur egun ere horrelakoa da. Euskara ikastea izugarri garestia da, matrikula altuegiak dira eta norberaren hizkuntza ezagutzeagatik ezer ordaindu beharko ez bage-nu ere, herritarrek uxatzeko moduko matrikula prezioak eskaintzen ditugu. Dena den, matrikulak, oraindik ere, altuagoak ez badira irakasleek derrigorrez onartu behar dituzten lan baldintza eskasei esker da. Hori gutxi balitz, ikasi ahal izateko ikaslea merkatari bihurtu behar dugu eta pegatak, kamisetak, kalimotxoak, zozketak eta abar matrikularekin batera jasotzen ditu. Gainera, enpresen aldetik normalean ez dute batere laguntzarik jasotzen ordutegiak moldatu ahal izateko, besteak beste, administrazioek politika horiek sustatzen ez dituztelako. Hori dena gaintuta, matrikulatzen bada baldintza eskasak aurkituko ditu kasu askotan, egoitza txikiak, hotzak eta abar, nahiz eta azken aldi honetan ahalegin handia egin den inbertsioetan. Bukatzeko esan dezagun EHko leku askotan ez dutela inolako aukerarik euskara ikasteko; eta beste leku batzuetan, administrazioek ezarritako ratio zurrunak direla medio, nekez gaintutuko dute lehen urratsa aurreragoko urratsetan ratioa lortzea ezinezkoa baita. Ondorioz, galde-ra da: zergatik matrikulatzen dira oraindik hainbeste herritar? Gure uste apalean motibazioan aurkitu behar dugu arrazoia. Oraindik ere, motibazio integratzaileek jende as-

ko erakartzen dute, baina berez hauskorra denez eta iraungipen data duenez, gero eta txikiagoa da motibazio hori kuantitatiboki eta motibazio praktikoagoak lantzen hasteko ordua iritsi da.

Sektoreari dagokionean, lehenengo eta behin, txapela kendu behar dut euskara irakasleen aurrean. Zinez uste dut beren eskuzabaltasuna txalogarria dela, eta zailtasun guztien aurrean tinko jokatzek duen meritua azpimarratu behar da. Nolanahi ere, pairatu behar izan dituzten lan baldintza urriek sektorea markatu egin dute. Baldintza horiek kasu askotan mugikortasun handia ezarri dute eta «*beteranoak*» euskal kantetan agertzen bazaizkigu ere, sektorearen ezaugarria gehiegizko mugikortasuna da, horrek dituen ondorio latzak kontuan hartuz: prestakuntza falta, egonkortasun falta euskaltegietan, perspektiba historikoaren falta eta, oro har, sektorearen ahulezia. Ondorioz, ezin izan dugu erakarritako herritar oro euskaldundu eta kasu askotan esperientzia txar batek herritar hori erabat galtzea ekarri du. Lan eskerga egin da sektorean irakasle-riaren prestakuntzaren arloan eta material didaktikoen sorkuntzan, administrazioen aldetik aparteko laguntzarik jaso ez badute ere. Azterketa hau ezin dugu bukatu azken bost urte hauetan Espainiar Estatuaren aldetik pairatu behar izan dugun jazarpen gupidagabea aipatu gabe. Horren ondorioak gaur egun nabarmenak dira eta sektorearen parte handi bat baldintzatu egiten dute. Horretaz gain, herritarren eragin negatiboa du, HEAREN irudi guztiz okerra ematen baitu.

Gizarte eragileen papera aztertzeke unean oso garbi dugu zer esan. Ez dira inplikatu eta ez dugu inplikatzeko jakin. Helduak euskalduntzea ez da HEAREN arazoa, gizarte osoaren arazoa da. Eta Kontseiluaren eskutik normalizazio planekin hasi arte, gizarte eragileek ez dute normalizazio planen bidea jorratu, salbuespenak salbuespen. Arlo horretan ia dena dago eginkizun.

Administrazioei dagokienez, esan gure herriaren zati-keta administratiboak HEAREN lana dezente zailtzen duela politika desberdinak aplikatzen direlako EHko lurraldeetan. Hala ere, oro har, esan liteke administrazioek ez dute-

la inoiz sinetsi HEaren izaera estrategikoan; eta, ondorioz, oztopoak jarri dituzte eta kasurik hoberenean utzikeriaz jokatu, nahiz eta «diru asko» inbertitzen dutela argudiatuko duten. Administrazioaren zeregina ez da bakarrik diruz laguntzea, baizik eta sektorea babestea eta helduak euskalduntzeari begirako politika eraginkorrak sustatzea, eta hori ez da egin. Ez dute inoiz kontzientziazio kanpaina gainditu eta beren esku dauden beste aukera batzuk ez dituzte erabili. Diru laguntzak beti izan dira eskasak, gaur egun ere horrelakoak dira, sektorea ikuspegi enpresarial hutsez aztertzen dute, emaitzez asko hitz eginez eta gutxi bitartekoez. Maiz ahazten zaie administrazioei zerbitzu publikoa dela HEak eskaintzen duena, eta esan genezake sektore gogaikarria dela administrazioentzat. Belaunaldi berrien hitzezko aldeko apustua egiten dute eta helduak galdutako belaunalditzat jotzen dute. Akats galanta!

- 2.- HEak euskararen normalizazioaren bidean duen izaera estrategikoa bete dadin errotik aldatu behar dugu orain arteko egoera. Arestiko lau zutabeek aldaketa esanguratsuak abiatu behar dituzte beste errealitate batera iritsi nahi badugu. Oker dabil, guztiz erratuta dabil, sektorearen birmoldaketa hutsak beste errealitate bat ekarriko duela pentsatzen duena. Beldur gara administrazioen jokabidea ez ote den hori izango, berriro ere begiak itxiz, askoz ere konplexuagoa den errealitate baten aurrean. Beraz, ekin diezaiogun alternatibak planteatzeari:

Herritarrei euskara ikastearen zama arindu behar diegu. Osasun zerbitzu gehienak dohainik eskuratzen ditugun bezalaxe euskara ikasteagatik ez da ordaindu behar. Ordaintzen diren gauzak gehiago baloratzen direla dioen uste faltsua maiz izan da erabilia azken aldi honetan aurkezteko alternatibarik ez dutenen aldetik. Zerbitzu duina eta malgua jaso behar dute, norberaren etxetik gertu, inguruan txertatua, hasieratik bukaerara prozesua ziurtatuz, EHko txoko guztietara helduz, ratioen mehatxua bazterrean utzita, enpresetan ordutegi malgua eskainiz, barnetegieta joatea erraztuz. Herritarrak kontzientziazteko etengabeko lana egin behar da eta, batez ere, motibazio praktiko edo

instrumentaletan eragiteko politikak martxan jarri behar dira. Horrekin batera, euskaldunok eta euskaltzaleok guztiok bat egin behar dugu mugimendu zabal eta eraginkorra sortuz hizkuntz eskubideen aldeko aldarria erabat gizarteratzeko eta gure gizartearen arlo guztietan kontuan hartua izan dadin. Konpromisoen bidea jorratu behar dugu garbi utziz euskara ikastea eta erabiltzea dela une honetan baliozko konpromiso bakarra. Euskaldunok dugun indar osoa erabili behar dugu ez bakarrik proiektuak sostengatzeko, baizik eta baita euskararen aldeko gizarte konpromisoak eskuratzeko ere. «Bai euskarari» erdaraz aldarrikatzearen garaia atzean utzita, ikastea eta erabiltzea baliozko konpromiso bakarrak direla azpimarratu behar dugu.

Sektoreari dagokionez, kalitatea da hitz gakoa. Erakartzen dugun herritar oro euskalduntzeko helburua aintzat hartu behar dugu, ez dugu erakarritakoa ikasi gabe joaten utzi behar. Argi dago horretarako diru inbertsio handiak egin behar direla, gaur egungo egoerak eragotzi egiten duelako erabat sektorean kalitatearen bidea jorratzea. Sarea hedatu behar da EHko txoko guztietara prozesua hasieratik bukaerara egin daitekeela ziurtatuz. Kalitatezko zerbitzua eskainiko dugula esango dugu EH osoan herritar heldu guztiei euskara ongi, baldintza eta bitarteko duinekin eta azkar ikasteko eskubidea bermatzeko gauza gairenean. Bestalde, lan baldintzen hobekuntza ezin dugu oinarritu orain arteko kontresanean: lan baldintzak hobetzeko matrikula igo behar dugunez ikasleak galduko ditugu, beraz, ikasleak ez galtzeko lan baldintza kaxkarretan aritzera zigorturik egongo gara. Irtenbidea administrazioek euskara dohainik ikasteko eskubidea bermatzea da, eta zerbitzu publikoa eskaintzen duten irakasleen lan baldintza duinak ziurtatzea. Horixe da modu bakarra kontraesana gainditzeko; bestela, beti izango da HEA bazterreko jarduna. Zerbitzu publikoaren baldintzak ziurtatzea administrazioei dagokie, ez irakasleei ezta ikasleei ere.

Gizarte eragileak euskararen normalizazioan inplikatu behar ditugu. Emakumeek pairatzen duten diskriminazioaren gaia emakumeena bakarrik ez den bezalaxe, eus-

kararen normalizazioa ere gizarte osoaren zeregina da eta, ondorioz, konponbidea gizarte osoari dagokio. Normalizazio planak dira aurrera egitea ahalbidetuko diguten tresnak, eta herritarrok, administrazioek eta HEAk indarra batu behar dute gizarte eragileak bide horretara eramateko. Kontrol nahiak bazterrean utzi eta elkarlanari ekiteko garaia da.

Azkenik, administrazioak ditugu. Oro har, esan liteke orain arteko hizkuntz politikak aldatu behar direla HEAren egoera aldatu nahi badugu eta normalizazioan aurrerapauso sendoak eman nahi baditugu, bederen. Borondatean oinarritutako politikak herritarren motibazio integratzaileek mugatzen dituzte; horiek agortzen, apaltzen edo indarra galtzen dutenean herritarrengana iristeko bidea hizkuntza ikasi eta erabiltzearen alde praktikoa da. Baina, horretarako, beste politika batzuk erabili behar dira borondatetik eskakizunetara pasatuz, nahiz eta horrek kostu politikoak sortu. Hizkuntz politikak euskaldunon hizkuntz eskubiak bermatu behar ditu, desoreka soziala den neurian. Eta herritarrek ikusi behar dute gutxi barru euskara ezinbesteko tresna izango dela gure gizartean eta, ondorioz, ikasteko eta erabiltzeko pausoa emango dute. Osakidetzak 1.800 lanpostu elebidun atera izan balitu (borondate politikoaren baitan dagoen erabakia, bestalde) oposizio horietan aurkezteko asmoa duen milaka heldu izango genuke euskaltegietan. Gainera, HEAren sektorea rekin era koordinatuan arituz gero, beharrezko malgutasuna eta prestakuntza eskaini liteke. Gure administrazioek zerbitzuak edo produktuak kontratatzen dituztenean Kontseiluaren «Guk zerbitzua euskaraz» ziurtagiria eskatuko balute, enpresa askotan abiatuko lirateke normalizazio planak eta, ondorioz, heldu asko hurbilduko litzateke euskaltegietara. Ertzaintza, Justizia, Lanbide Heziketa eta abar euskalduntzearen borondate tinkoak milaka herritar hurbilduko litzuke euskarara. Lan mundua normalizazioaren bidean sartzea estrategikoa da eta ez da ezer egiten ari.

Beraz, HEAren sektorea berregokitzearen gezurra agerian utzi behar dugu, hizkuntz politika eraginkor batek HEAren konponbidea aise ekar dezakeelako. Nafarroako

Gobemuak ez ditu helduak euskaldundu nahi eta bere politika kontsekuentea da; are okerrago iruditzen zait euskararen normalizazioa bide onetik ez doala jakin eta elkarkidetzan oinarritutako ekimenei muzin egitea, politika eragin korragoak ez hartzea eta hizkuntz politika keinu politika huts bihurtzea, beti arazoa besteena izango balitz bezala jokatzeko, kasu honetan HEaren arazoa balitz bezala. Elkarkidetzan, diru inbertsioetan eta hizkuntz politika eragin korragoak aplikatzean dago gakoa. Egin dezagun bada!!



Iñaki Martínez de Luna

1.- 1970-1980ko hamarkadetan ilusioa zegoen nonahi. Hala ere, euskalgintzaren gabeziak larriak ziren; nabarmenenak, ezjakituria, uste okerrak eta helburu nahasiak, hain zuzen.

Lehenengo hutsunea, soziolinguistikazko ezjakituria zen. Hizkuntzaren *corpus*-aren erronkari aurretik eutsi zitzaion eta glotodidaktikan ere aurrerapausoak ari ziren ematen; baina hizkuntz *estatus*-aren gorabeherak ia ezezagunak zitzaizkigun.

Uste oker bezain faltsua zen euskara ikasi eta jakitearekin gure hizkuntza salbu egongo zela; hizkuntz berreskurapena eta normalizazioa berez etorriko zirela. Planteamendu horien sorreran ezjakintasun izugarria zegoen, gaur egun hizkuntz normalkuntzaz ari garen guztiok ondo dakigun bezala.

Gizarte eta hizkuntzaren arteko joko korapilatsuaren gainean zegoen ezagutzarik eza larri horren ondorioz, gizarteak bere buruari ezarri zion hizkuntz jomuga ere okerra zen: norberak ikasteko edo umeek ikas zezaten ahaleginak bai, baina gehiagorik ez zen behar. Eta pentsaera desegoki hori guztiz nagusitu zitzaigun. Akaso eroso zitzaigulako, euskararen erabilera areagotzeko beharrezkoa

zen giza taldeetako hizkuntz ohituren aldaketa, hizkuntza ikastea baina zailago eta konplexuagoa baita.

Euskaltegiak ez ziren salbuespena izan eta beraiek ere hizkuntza ikastearen garrantzia baino ez zuten ia azpimarratzen; praxian ez, bederen. Erabilera bultzatzeko premia ezagutu arren, ez zuten horren aldeko apustu ausartik eta sendorik egiten.

Euskaltegira lehenbiziko aldiz hurbiltzen den ikasle orori oso garbi utzi behar zaio, ezagutza maila batetik aurrera, 'gutxieneko ordu kopuru bat euskaraz jardutearen premia', horri erantzun ezean jai duela azpimarratuz. Ikasten ari den hizkuntza erabiltzea da hizkuntz komunitatean txertatzeko modu bakarra. Halakorik ez da egin, eta euskaraz gaitasun polita lortu arren ikasle gehienek ez dute harreman sare edo giza talde egokirik izan hitz egiten haste-ko. Eta, jakina denez, erabilerarik ezean ikasitakoa erraz eta azkar galtzen da; ondorioz, euskara ikastearekin ikasleek jasan zuten frustrazioa ulergarria da. Alferrik galdu zaizkigu euskara ikasteko prest geneuzkan euskaltzale andanak.

Hamarkada haietako bigarren gabezia uste oker eta inozo bat da: euskararen erabilera soilik norberaren erantzukizuna zela pentsatzea. Hizkuntza ikasi eta erabiltzeko motibazioaren garrantzi ukaezina boluntarismo hutsarekin nahastu zen. Hizkuntzaren gizarte-dimentsioa ia ezezaguna zitzaigun (ikus *Jakin* 128: 134-135), eta hizkuntz motibazioek gehienetan sustrai soziala dutela ez zen kontuan hartu. Ez genekien norberaren motibazioak, askotan, gizartearen inertzia eta aurkako baldintzekin egiten duela topo, motibazioa bera zapuzteraino (ikus *Bat Sozio-linguistika aldizkaria* 18: 39-52).

Gizarte baldintza egokirik sortu ez zelako, euskaltegietan hasi eta euskara ondo ikasi zutenetatik gehienak ez ziren gauza izan normaltasun batekin hizkuntza hori inoiz erabiltzeko. Euskaraz normal hitz egitera iritsi ziren euskaldun berriek estrategia propioak garatu behar izan zituzten (lagun edota bilgune berriak bilatu, giro euskalduneko lan batean hasi...). Ahalegin horiek, gehienetan, norberaren gain gelditzen ziren; gutxitan ziren sozialki sortuak eta planifikatuak.

Ikuspuntu eta xede desegoki horien ondorioz, ahalegin asko antzuak suertatu dira; ez denak, zorionez.

Horregatik guztiagatik, egindako ibilbideaz plazaratu beharreko beste galdera bat, hauxe da: *Zer gertatu da urte hauetan erdaldun asko euskara ikastera joan arren, euskaldundu ez daitezen?*

Bestalde, 70-80ko hamarkadetatik gaurdaino izan diren aldaketei erreparatuta, kale-giroan gertatutakoa da azpimarragarriena. Duela bizpahiru hamarkadetan gure gizarteaz jabetu zen moda zela eta, gizarte ia osoak jo zuen euskararen alde. Orain, aldiz, garai bateko herriaren bultzak kementsuaren falta sentitzen da.

Hor dago, hain zuzen, matrikulazioaren jaitsierarengakoa. Baina, gizartea aldiro astintzen duten modak inoiz joko du berriz euskararen alde?

2.- Ez gara hutsetik abiatzen ari. Hamarkada hauetako eskarmentua, ondo erabiliz gero, guztiz emankorra gerta daki-guke.

Euskal gizartea euskalduntzea helburu, lehengo pausoak euskal hiztunen komunitatea trinkotzea eta indartzea izan behar du, ezinbestez. Oraindik bizirik dirauen euskal azpi-gizarteak huts egingo balu, gureak egin du. Hori horrela izan ez dadin, euskal hiztunek egungo bizi-moduaren funtzio gehienetan euskaraz funtzionatu ahal izatea da lehentasuna. Horren ezean, euskal azpi-komunitatea higatuz eta desegituratuz joango da.

Horrez gain, euskal mundu sendo bati eutsiz gero, euskara nahikoa erakargarria izango da erdaldunak ere hurbil daitezen; euskal hiztunen komunitate ahul baterantz, aldiz, inolaz ere ez.

Bigarren erronka, euskaldunduak eta euskalduntzen ari direnak euskal hiztunen komunitate horretan txertatzea da. Horren ezean, euskaldun berri horiek erdarazko harreman sareen baitan jarraituko dute, euskaldundu daitezen egindako ahaleginak alferrikakoak izanik. Hori ez ezik, euskaldun berriak euskal hiztunen komunitatean txertatuz gero, azken hau ederki zabaldu eta indartuko zen.

(Hemen, helduen euskalduntzeaz ari bagara ere, ideia horrek berdin-berdin balio du irakas-sistemaren bidez euskalduntzen zaizkigun egungo neska-mutikoentzat. Helduekin gertatu bezala, ikasitakoa gehienetan ez dute non erabili.)

Gauzak horrela, aurtengo ikasturtean ‘soilik’ 33.990 pertsona euskaltegietan egotea ez da benetako kezka, hasi diren guztietatik euskal hiztunen komunitatean zenbatek bukatuko duten txertatuta baizik.

Arrisku hori ekiditeko errezeta erabakigarri bakarra dago: gure gizartearen baitako erakunde, talde eta elkarteetan —pribatu zein publikoetan— euskararen erabilera ziurtatzea, hori horrela izan dadin gure hizkuntza —gutxienez— erdararen pare jarrita. Eta euskararen presentzia hori bermatzea are errazago (eta merkeago) litzateke egunero-egunero sortzen ari diren erakunde, talde eta elkarte berrietatik abiatuta, eratze unetik bertatik euskara kontuan hartuz.

Soilik horrela hedatuko dira euskararen sareak eta euskal komunitatearen dimentsioa. Horri ekin bitartean, erdararen mundua etengabe ari da hedatzen, euskararena gutxika-gutxika baztertuz.

Akatsak akats, hamarkada hauetan asko aurreratu da, eta ilusiotik galdu duguna eskarmentu, prestakuntza eta *know-how* mailan irabazi dugu. Euskaltzale (boluntario nahiz profesional) trebatu eta prestu ugari dugu. Zinez usate dut ‘*euskararen erabilera bermatuko duen aro berriari*’ ekiteko moduan gaudela. ♪



Joxe Manuel Odriozola

1.- Hizkuntzaren nondik norakoa, mintzaira gizarte-balio den neuman, balio horren izaerak determinatzen du. Determinazio dialektiko hori, gainera, hizkuntzaren balio-mota guztietan gertatzen da. Hala balio pragmatikoaren alorrean, nola balio sinbolikoaren izarian. Hizkuntzak, dakigunez, bereganatua daukan estatus sozialaren arabera eskuratzen du dagokion ospea, eragina eta itzala, eta estatus sozial horri dagozkion komunikazio-eginkizunak beteko ditu gainerako hizkuntzekiko lehian. Ukipen egoeran dagoen hizkuntza baten egoera ezin da inoiz era bakartuan antzeman, lehiakide (euskararen kasuan, galbide eta are heriotza-bide) dituen hizkuntzen estatus-egoera aintzat hartu gabe.

Helduen euskalduntze eta alfabetatze-alorra eskaririk gabeko euskalgintza bihurtzen ari baldin bada, horrek esan nahi du, besteak beste, euskararen gizarte-balioa hutsaren hurrengo dela. Hutsaren hurrengoak, hemen, zera esan nahi du gauzak zehazki esanda: euskararik gabeko bizimoduak ez duela inolako galera sozialik eragiten euskal herritarrengan. Euskarak ez diola baliorik eransten herritarren bizi-mailari eta bizimoduari. Horrela ez balitz, ez pentsa gertatzen ari zaiguna gertatuko litzatekeenik. Ingelesa lekuko: mundu guztiak hizkuntza hori ikasi nahi du, hori ez jakiteak halako eta halako muga eta galerak dakarziolako bere bizi-kalitateari.

Bourdieu-~~ren~~ hizkera lagun, gizartearen kapital material eta sinbolikoak hizkuntzaren baitako izaeran eta funtzioan gauzatzen dira. Hizkuntzaren balioa, horrela, kapital horien transferentzian datza: nolabait esan, hizkuntzaren oinarrian dagoen hitzun-herriak daukan kapital material eta sinbolikoaren araberako balio ekonomikoa, soziala eta kulturala izan ohi du hizkuntzak. Horrek esan nahi du oinarritzat duen hitzun-herriaren botere orokorrean erabakitzen dela hizkuntzaren erabilera-araua, erabilera horren

arrazoiak zernahi izanda ere. Gogora dezagun bidenabar motibazioaren zer-nolakoa identitate nazionalaren muturretik hasita balio sozial instrumental hutseraino doazen aldaeraz osatua egon litekeela hizkuntzaren balio sinbolikoaren eta funtzionalaren arteko *continuum* bat taxuturik.

Euskal herritar helduek ez dute euskararen beharrik eta euskaltegien lana soberan dago. Euskarari eta euskal kulturari gauza berbera gertatzen zaie: bizitzeko dira, baina bizitzak bere bizimodu normala egin dezake halakorik gabe. Eduardo Apodakaren hitzok aski adierazgarriak dira esan nahi dudana adierazteko:

Bizitasunetik egin behar da euskal kulturgintza. Bizitzeko ez badu balio (eta bizitza ez da merkatua soilik, baina merkatua ere bada) ez du balio. Kulturgintza horren balio bakarra «identifikazioa» izatea ez da nahikoa, hori, nolabait, kulturgintza bizigarri bati darion zerbait izan daiteke, baina ez bere eginkizun zuzen bakarra (*Uztaro* 44).

Bizitasunik gabeko hizkuntza dugu euskara, bizitzeko balio ez duen neurrian; zeren balioaren kontzeptua, hemen, ez da hizkuntzaren berezko ezaugarria, baizik eta, gorago esan bezala, komunikazioaren alorrean transferitzen zaion erakarpen-indarra.

Eskolaren bidezko euskara-ikasketa orokortu izana omen da helduen euskalduntze eta alfabetatze sailean daukagun egoera etsigarriaren azalpena. Gezurra galanta, gezurrik badin bada. Halakoen baikorkeriak ez baitu inolako funtsik hezkuntza-sistema formalaren bertatik bertako ezaguera duenarentzat. Izan ere, eredurik euskaldunak (D) ere nekez euskalduntzen du eskola-umea gaurko egitura soziolinguistikoko orokorraren testuinguruan; euskalduna izatea, beti ere, jakina, euskaraz bizitzea baldin bada. Hala izan da orain arte, ahanzturak jota utzi gaituen arte. Eskolaren bidezko euskalduntzeak, harira etorrita, ez du gaitasun komunikatiborik bermatzen, berme hori lortzeko erabilera-erregistro informaletan oinarritutako erabilera-dinamika baita delako gaitasun komunikatiboaren gakoa. Beraz, gezurra galanta.

Euskaldun zaharrak, berriz, zeren zain daude euskaraz alfabetatzeko? Hizkuntzaz eta ideologiaz herri honen

nortasuna ukatzen duen sistemaren konplizitatean diharduten erdal egunkariak alde batera utzi eta noiz hasi behar ote dute euskal prentsa irakurtzen? Esate baterako. Edota daukaten herri-kontzientzia asetzeko nahikoa ote dute lau urtean behin boto nazionalista ematea, edo euskarazko egunkaria indarrez ixten badute haren aldeko manifestaziora joatearekin? Hala ematen du, dakusaguna ikusita. Betiko galdera: non dago zorioneko masa kritiko euskalduna herri hau euskaltasunetik eraikitzen hasteko? Eta, bide batez, bigarrena: euskaltasunetik eraikitzen ez den nazio eraikuntzak zertarako balio du?

- 2.- Garai bateko gau eskolen iturritik datorren euskalgintza-aren alor hau hil ala bizikoa izango litzateke herri hau euskalduntzeko interesik eta estrategiarik balego. Baina ez dago halakorik. Ez hizkuntza politika ofizialaren arduradaukatenen aldetik, ez herri mailako politikagintzan dihardutenen aldetik. Lehendabizikoen baikorkeriak bere burua zurrizko darabiltzan argudioen amarruaz ohartzeko ez da behar adimen soziolinguistiko zorrotzik. Horretarako nahikoa da euskararen normalizazioaren parametro nagusizat zer darabilten erreparatzea; hori eginez gero, izan ere, euskaltzalea berehala jabetuko da argudio-andanaren logika amarru baten gainean eraikia dagoela. Labur zurrean esanda, honako hau izan daiteke logika hori: orain honela gaude, eta duela urte batzuk hala geunden, euskararen aldeko hizkuntza politika ofiziala daukagun eremu hirukoitz honetan. Hortaz, aurrerapena nabarmen-nabarmena da, eta datuak eta ehunekoak lekuko. Alabaina, hori erdi-egia izanda ere, erdi-gezur horren gibelean gezur handi bat ezkututzen da: hain zuzen, euskararen normaltze-logika ezin da parametro horietan planteatu, ezin da iraganeko egoera-erferentzian funtsatu, normalizazioaren kontzeptuak euskarak etorkizunean eskuratu behar duen estatus eta erabilera normalduaren erreferentera garamatzalako. Ez atzera, aurrera baizik, normalizazioaren irudikapenak jomuga jakin eta zehatza duenez gero: hau da, euskaraz bizi ahal izatea. Nola gauden jakiteko atzera begira dabilenak ez bide daki, hori eta horrenbestez ze-

hazi zer adierazi nahi duen hitzetik hortzera darabilen normalizazioaren paradigmatik.

Beste alde batetik, literatura soziolinguistikoaren irakaskapen elementalenak gainbegiratze hutsa nahikoa da familia bidezko hizkuntza transmisioaren garrantziaz erreparatzeko. Familiaren hizkuntza politika euskalduntzeko estrategiarik ez duen hizkuntza-politikak badakigu zer atarramentu daukan. Izan ere, hankarik sendoena falta zaio euskalgintzaren halako politika-bideari. Eta hanka horren funtzioan lanean ari den alorra dugu, ezer izatekotan, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea. Haur eta gaztetxoak euskalduntzeko bidegurutzean dagoen familiaren bidea alde batera utzi eta aurrera egin nahi duen hizkuntza-politikak zer egin dezake hizkuntzaren transmisio-gune naturalena den horri erantzun sendorik eman gabe? Zer lor daiteke guraso euskaldunak alfabetatu gabe eta erdaldunak euskalduntzeko bidean abiarazi gabe? Zer egin dezake eskolak etxe barruko euskararen aldeko hizkuntza politika alde batera utzita? Ezer askorik ez. ¶



Erramun Osa

- 1.- Helduen euskalduntze eta alfabetatze eremuan ez da giro. Izan ere, dela HABEren nola baita euskaltegi sareen agerrialdiek, bakoitzak bere ñabardurekin, helduen euskalduntze-alfabetatze sektoreak bizi duen krisi sakona, oinari-oinarrizkoa esango nuke nik, laga dute agerian. Hala ere, sektoreko batzuek hala nabarmendu arren, sektorearen arazo nagusia ez da diru laguntzen moduluan izandako bilakaera soil-soilik, ez eta profesionalek irakaskuntza pribatuko hitzarmenarekin alderatuta ematen dituzten eskola ordu gehigarriak nola baita lansarian diren aldeak. Arazoa askoz sakonagoa da, egiturazkoa. Geroz eta jende gutxiago hurbiltzen da euskaltegietara.

1986-89 epealdira egin beharko genuke atzera helduen euskalduntze-alfabetatzeak halako egoera zaila bizi zein gainbehera antzemateko. Izan ere, ordura arteko joera eten ostean, 1989-96 epealdian (EAEn) sektoreak 6.139 ikasle gehiago irabazi eta 44.855 ikasle erdietsi bazituen ere, 1985-86 ikasturtean euskara ikasten ibilitakoen kopurura ez gara berriro iritsi; alta, 1995-96 2001-02 epealdian 10.862 ikasle gutxiago hurbildu dira euskaltegietara, 95-96 ikasturtean baino %24,22 gutxiago (2002-03 ikasturtean ere jaitsiera izan da, alabaina, lerro hauek idazterakoan ikasturtea oraindik amaitu gabe dagoenez, emaitzak ezin bildu izan dira). Hartara, epealdi horretan sektore publikoak talde orduen %23 galdu ditu. Pribatuen multzoari erreparatuz gero, epealdi berean, talde orduen %23,82 galdu dira. Jaitsiera, baina, 25 urtez azpikoen adin tartean —batez ere— gertatu da (1993-94 ikasturtetik 2001-02ra euskara ikasten ibili eta 25 urte baino gutxiago dituztenak gainbehera etorri dira —hamar mila pertsona baino zerbait gehiago galdu dira adin tarte horretan—); gainerako adin tartetean, beheranzko joera erakutsi arren, matrikulen beherakada ez da horrenbestekoa izan (2001-02 ikasturtean 25 urte baino gehiago zutenak %73,54 izatera iritsi ziren, 1993-94 ikasturtean, aldiz, %53,13 ziren). Jaitsiera ez da EAEn gertatu soil-soilik, Nafarroan eta Iparraldean ere behera egin dute matrikulatutako ikasleen kopuruek.

Esan bezala, euskaltegietara hurbildutakoen adinaren batez bestekoak gora egiten dihardu azken urteetan; era berean, garai batean nagusi ziren ikasle eta langabetuen multzoak arian-arian urritu egin dira eta lanean ari diren geroz eta pertsona gehiago hurbildu dira helduen euskalduntze-alfabetatze sektorerara. Geroz eta ikastaro apalagoak, malguagoak eta egunean zehar nahierara egituratzeko modukoak eskatzen ditu jendeak oro har (izan ere, garai batean ez bezala egungo gizarteetan denbora emateko aukera ugari dago bazterretan, bada, euskara ikasteari denbora are gutxiago eskaintzen zaio edota denbora hori beste era batera antolatzeako askatasuna eskatzen du jendeak), behe urratsetan hasten diren geroz eta jende urriago dago

eta euskalduntze prozesua burutzeko asmoz geroz eta gizaseme gehiago hurbiltzen da bitarte edo goi mailetakoa ikastaroetara.

Bada, ikasleen tipologian eta beharretan aldaketa esanguratsuak ari dira gertatzen. Emaidza akademikoak indartzeko, titulu bat eskuratzeko edota lan merkatuan aukerak ugaltzeko asmoz euskara ikastera zetorren jende multzo andana murriztu da, gizartean bestelako lehentasunak nagusitzen ari direnez edota beharrik antzematen ez dutenez euskara ikastera datorren jendea apaldu egin da. Horri guztiorri, belaunaldi helduek euskararen iraupea gazteagoen esku uztea, euskarazko eredu bilakaera zein eragina (hezkuntza arautuan, euskarazko eredu gora egiten duten heinean, gazteagoak diren ikasleen kopuruak beheranzko joera etengabea erakusten du) nola baita maisu-maistren euskalduntze plangintzak edota sektore publikoa euskalduntzera bideratutako egitasmoek aspaldi goia jo ez ezik gainbehera datozela ere gaineratu beharko genioke. Bada, oro har, eskariaren unadura begi bistakoa da.

Euskarak hiztunak eta erabilera eremuak irabazi ahala gainbehera etorri behar du helduen euskalduntze-alfabetatzeak. Izan ere, euskara normalizatu ahala desagertzeko sortutako langintza da, ez da, bada, irauteko sortua; baina, goiz da oraindik egoera horretara iritsi garela esan eta gainbehera, besterik gabe, horri egokitze. Helduen euskalduntze-alfabetatzea azken urteetan 90eko hamarkadan erindakoaren errentatik bizi izan da, ez da egoera berrietara era egokian, bizkorrean eta ikuspegi zabalez moldatu eta, etorkizunean hala segitzen badu, amildegia- ren behera, pisu handiko harri baten tankeran, amiltzen segitzeko txartelak eskuratuak ditu.

- 2.- Arrazoiak asko dira eta eremu desberdinetan egin beharko da lan langintza hau indarberritu nahi bada. Besteren artean, sektoreak, etorkizun hurbilean eta nahikoa azkar, egoera berrira egokitu eta doitu egin behar du, eremu berrietara ez ezik eskari poltsa berrietara ere ikasle bila jo behar du, bere burua espezializatuz, hartarako egitasmoak

beren beregi prestatuz. Baina, aldi berri honek plazaratuko dituen eronkei era egokian erantzun ahal izateko sektorea berrantolatu behar da. Izan ere, dagoen eskaria aintzat euskaltegi gehiegi dago, bada, sareen osagarritasuna, maila guztiak eskaintzea, ikastaroak malgutzera, lortutako maila ziurtatuko duen kanpoko ebaluazio sistema ezarriz zertifikazio sistema abian jartzea (orain arte indarrean egon diren zertifikazio sistemak —hizkuntza eskakizunak, hizkuntza eskolako mailak, euskaltegi-tako mailak, e.a.— bateratzeko urratsak eginez), materialen eraberritzean nola baita irakasleen formazioan inbertitzea dirateke, besteak beste, berehalakoan abian jarri edota berrikusi beharreko eremuak.

Berrantolaketak sektore publikoa osatzen duten Udal Euskaltegi sarea nola baita Hizkuntza Eskolen bidez egiten ari den eskaintza aintzat hartu beharko luke ezinbestean. Izan ere, sarea egituratzeko, homologatzeko eta normalizatzeko eginahalak egin direnean, ahalik eperik laburrenean hiztunak lortzeko asmoz erritmo bizkorragoko ikastaroak lehenesteko ahaleginak egin direnean, egungo sarearen ondo-ondoan, Hizkuntza Eskolen bidez, diru baliabide publikoak xahutuz, sektorean baztertu nahi diren (ezpada xede berezietarako egitasmoen kasuan) erritmo apalagoko ikastaroak eskainiz, beste eskaintza bat zabaltzeko egiten ari den ahalegina ez da ulertzekoa. Baina, berrantolaketak sektore pribatua ere hartu behar du ezinbestean kontuan, sektore publikoa denean osagarritasunez jokatzeko eta hiri handi eta hiriburu-eretan dagoen gehiegizko euskaltegi sarea eskarira egokituz. Osterantz, berrantolatu ezean, euskaltegi sare ahula geratzeko baita etorkizuneari, eronkei erantzuteko ez-gauza eta eguneroko funtzionamendua besterik gabe mantendu ahal izateko bitarteko ugari beharko dituen.

Sarea berrantolatuz eta doituz askatzen diren bitarteko ekonomikoak ondorioztatzen den sarearen normalizazioa indartzeko erabili ez ezik Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ezarpenak, hiztunek euskara balia dezaten aukerak ugaltzeko berariaz sortu den plan estrategiko honen gauzatzeak behar dituen udal mailako zerbitzuak indart-

zeco ere enplegatu beharko genituzke (euskara beharrezko zein baliagarri eta euskara eskuratzeko ahaleginak egingen ari direnei erabiltzeko erraztasunak eskaini behar zaizkie), hartarako HEAko profesionalak birziklatzeko urratsak eginez. Halaber, teknologia berrien erabilera zabalduz, ikasleen autonomia indartzeko eta merkatua bera hedatzeko urratsak egin behar ditugu. Euskararen ikaste prozesuak nola baita eskaintza birdefinitu/egokitu eta euskararen erabilera ahalbidetuko duten egitasmoekin uztartu behar ditugu. Era berean, euskara ikastera hurbiltzen diren pertsona helduen konpromisoa eta ahalegina saritzeko (ezagutzeko) mekanismoak ere ezarri behar ditugu (lortutako mailaren eta asistentziaren arabera beka sistemak, ikasten segitzeko erraztasunak, zertifikazio sistema homologatuak —sarean lortutako mailak titulu bat eskuratzeko aukera ez ezik titulu hori administrazioek onartzeko bidea ere eginez, hartarako, kontrol mekanismoak ezarri—, e.a.), sektorea sustatzeko zein ezagutzera emateko nola baita herritarrak euskara ikastera bultzatzeko kanpainak, e.a. antolatzea komenigarria ez ezik ezinbestekoa ere badira.

Beraz, eremu asko ditugu eginkizun, erdizka edota hala moduz bideratuta, horiei guztiei heldu beharko genieke, apika, ahalik lasterren, bateratuen eta ondoen, etsipenean erori aurretik, itzuri egiteko moduan egongo ez ginatekeen egungo dinamika indartu aurretik.¶



Mikel Zalbide

Labur-labur ariko naiz, *Jakin*-ek adierazitako lerro-ko-purura mugatuz, iritzi-azalpen honetan. Hurbiletik eza-gutzen dudan esparrua, irakasle-jendea alfabetatu eta euskalduntzea alegia, izango dut aipagai: hogeitaka urte hauetan ikusi eta ikasi uste dudana eskainiko ditut hortaz, soil-soilik, nire oharrak. Gatozen, beraz, harira. Saia gaitezen, puntuz puntu, *Jakin*-en galdera biei aurrez aurre erantzuten.

- 1.- Irakaskuntza-mundua ez da, oro har, *Jakin*-ek egindako lehenengo galdera horretan kokatzen erraza. Galdera horrek zerbait oker egin dela (edo okertuz joan dela) ematen du aditzera, aldez edo moldez. Baliteke oinarritzko argudio hori beste esparruetarako egokia eta arrazoizkoa izatea. Hezkuntza-mundurako ez da ordea, osorik eta erabat, zuzena. Eskola-munduan zer gertatu den jakin nahi duenari, izan ere, zera azaldu behar zaio lehen-lehenik: pauso handia egin dela zinez, mende-laurden honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle-jendea alfabetatzen eta euskalduntzen. Gatozen, labur beharrez, portzentaje soil-letara: 1976-77an hogeitak irakasletik batek zekien euskaraz. Orain (2002ko datuez ari naiz), hirutik bik (%65,3k) badu EGA edo HE2. Alfabetatze- edo euskalduntze-bidean aurre-ra ari direnak (dagoeneko HE1 eskuratu dutenak, besteak beste) erantsi behar zaizkio, gainera, bi hereneko zifra biritil horri. Ikastetxe publikoak eta pribatuak biltzen ditu, oro har, goiko estatistika horrek. Sektore publikoan (herri-ikas-tetxeetan, irakaskuntzako laguntza-zerbitzuetan, Ikuskaritzan), proportzioak are gorago dabilta: EGA edo HE2 eskuratu dutenak %73 inguru dira hor, dagoeneko; HE1 eskuratu dutenak erantsiz, berriz, %80 pasatxoan dabilta. Hori da beraz, lehenik eta behin, eskola-munduan gertatu dena eta gertatzen ari dena.

Kezka eta beldurra hain barruan iltzaturik daramagularik, euskararen eta euskaldunon etorkizuna dela-eta, ongenuke alderdi positiboak ere aurrez aurre eta bere osoan azaldu eta balioztatzea. Askoren merezimendua da, dudarik gabe, eskola-munduan gertatu den aldakuntza hori: bere burua alfabetatzen edo euskalduntzen ahalegindu diren irakasleek beraiek dute, jakina, lehenengo-lehenengo ezagutza- eta aitormen-eskubidea. Ez dira bakarrak, ordea, esker oneko txaloa jaso beharrekoen artean: ikastetxeetako klaustroak eta zuzendaritzak, hezkuntza-administrazioa bera eta, nola ez, IRALEn zein gainerako euskaltegi-tan (HABE tarteko delarik) urterik urte jardun duten profesionalak ere berariaz aipatu behar dira: horiei guztiei zor zaie, dudarik gabe, irakasmunduaren mende-laurdeneko arrakasta sendoa. Okerrak eta hutsuneak, bide-galtzeak eta eskasiak ez dira noski ibilbide horretan ere falta izan, gizakion langintza guztietan gertatu ohi denez. Lortu den emaitza nagusia baikorra da ordea, batez bestekoan. Baikorra bakarrik ez: zenbaki hutsezko lorpenei dagokienez goren mailakoa ere bai. Munduan (hots, mundu zabaleko hiztun-herri txiki, ahulen artean) ez dago, dakidalarik, gai jakin horretan hemengo bilakaerari aurrea har diezaiokeen saiorik: ez zabalean, ez sakonean eta ez urterik urteko iraupenean. Has gaitezen beraz aitormen horretatik, galdu-irabazien ikuspegia bere osoan bildu nahi badugu.

Egia da hori guztia, baina ez egia bakarra. Badago zertaz baikor izan, baina kezkatzeko motiboak ere hor daude eta ez dira gutxiestekoak. Gorabide hori ukaezina den bezala, honako hau ere egia osoa baita: mende-laurdeneko euskalduntze-saio hori, oraindainoko ibilbideari dagokionez, indargaltzen, ahultzen eta husten ari dela. Motiboak ugariak izango dira, jakina, baina badira bi inondik inora ezin ahaztuzkoak: a) gero eta irakasle gutxiago dago, EAEn, euskaldundu edo alfabetatu gabe; b) gelditzen diren «elbakar» horiek gero eta aurrerago doaz adinean, eta adinkontu horrek badu ondorio nabarmenik L2 eskuratzeko gaitasunean. Faktore bi horiei besterik ere erantsi behar zaio, zenbaiten ustean: gizate-girora oro har, ikasketarien janera, «rutinizazioak» dakarkeen nekea eta abar. Horrek

guztiak, ezinbestean, aldaketak dakartza mende-laurdene-ko ibilera luze horretan. Aldaketa ugariak eta, zenbait kasutan, bat-batekoak. Aldaketen ugariak eta bat-batekoak, beriz, ilusioz beteriko amets-gaindegietara baino errazago gainbeherako sentipen etsira eraman gaitzake, hemen eta orain. Ez gara oharpen subjektibo hutsaz ari, etsipen-giro horrezaz dihardugunean. Aski oinarri objektiboa duen gogo-giroaz dihardugu, aitzitik: ezin bukatuzkoa zirudien «harrobia» amaitzen ari da, eta horrek ondorio argiak ditu. Bestelako faktoreak ahaztu gabe ere, hori da gaur-gaurkoz kezka-iturririk eragingarriena. Nor euskaldundurik ez dagoen lekuan nor euskaldundu behar duzu? Bat-batekoari dagokionez badago, bestalde, zer esanik. «Harrobia» agortze hori ez da, inola ere, azken ordukoa. Hezkuntza munduko kontuen berri dakien hainbat eragilek bazekien, aspalditxotik, joera nabarmen horren berri. Kontu berria ez bada ere azeleratu egin da, ordea, azken urteotako joera. Esplikazio luzeagoak (nagusiki koiunturalak) beharko litzuzkeen motiboak direla tarteko, hezkuntza alorreko bezeria klasikoak (irakastordu barneko ikasketari-jendeak) behera egin du nabarmen. Ziklo bat, aldi bat, amaitzen ari da hezkuntza-munduan. Irakaskuntzaren sektore pribatuan bada oraindik urte batzuetarako zeregina; sektore publikoa bere azkenak ematen ari da, ordea.

- 2.- Zer eginik ez dagoela esan nahi al du horrek guztiak? IRALE, euskaltegiak eta gainerako ikasketa-elkarteak alferrik al daude hemendik aurrera, irakasmunduari dagokionez? Ez: inola ere ez. Zeregin handia dago, askok uste duena baino zabal-sakon-luzeagoa, irakasle-jendearen hizkuntz prestakuntzan. Eskua bete lan dago, egon, esparru horretan. Nola liteke (esango du batek baino gehiagok) zer eginik ezaren ezaz hil-kanpaia jo eta, aldi berean, eskua bete lan dagoela esatea? Ez dago hain kontraesan handirik horretan, lehen begi-kolpean besterik badirudi ere. Gatozen mamira. Demagun 30.000 irakasle pasatxo direla une honetan, urte osoz edo partez, EAEko irakaskuntza publikoan zein pribatuan (unibertsitate-maila kontuan hartu gabe hortaz) ari direnak. Demagun, orobat, multzo zabal horretatik 20.000

irakaslek baino gehiagok hezkuntzako HE2, EGA edo baliokideren bat eskuratua duela. Eman dezagun, labur beharrez, hogeita bat mila irakasle euskaldun ari ohi direla EAEko irakas-sisteman, unibertsitate alorra alde batera utzita. Hogeita bat mila irakasle horiek ez al dute aurrerantzean, euskarazko mintzamen-idazmenei dagokienez bereziki, inolako hobekuntza beharrik? Legez, badakigu ezetz. Eta funtzionalki? Agiria eskuratua izateaz gainera ba al dute, benetako hizkuntz gaitasunari dagokionez, zer hobetua? Bai horixe: guzti-guztiek ez noski (hitzez eta idatziz zoragari dakien irakasle askotxo baitago tartean, zorionez), baina hainbatek bai. Hori ez da iritzi pertsonal hutsa, hezkuntza munduan luze-zabal onartutako gertaera jakina baizik. Ikusi besterik ez dago, besteak beste, goi-mailako ikastaroen (bai irakastordu barnekoen eta bai, bereziki, irakastorduz kanpokoak) eskaeraren zabala. Behera ordez gora doaz goi-mailako eskabide horiek, eta ez dago motibo sendorik aldi bateko moda iheskor baten aurrean gaudela uste izateko. Nolanahi ere datu publikoak dira horiek, neurri batean, eta horren berri jakin nahi duenak badu nora jo.

Zergatik da hori horrela? Nola liteke behe-mailako ikastaroen eskaera gainbehera datorren une berean goi-mailako ikastaroak hain gorabidean ari izatea? Gainbeherarena, g utxi-asko, esplikatuz dugu zergatik. Gorabidea azaltzeko, berriz, has gaitezuen errazenetik. Irakas-sisteman diharduten milaka irakasle euskaldun horietatik zenbat dira etxetik euskaldun, eta zenbat euskaldun berri? Lanean eta lanerako euskaldundu diren irakasleak noraino sentitzen dira erabat gai, beren eguneroko lana partez edo osoz euskaraz bideratzeko, bestelako lagungarririk gabe? Euskaldun zahar zein berrien artean zenbat dira euskaldun garbiak, erdaraz bezain erraz euskaraz egiten dutenak kalean eta eskolan? Euskaldun sendo horietatik zenbatek egin izan ditu bere ikasketak (lehen mailakoak, bigarrenekoak eta unibertsitatekoak) euskaraz? Zenbatek jaso du gainera eskola-bide horretan, euskaraz zein erdaraz, curriculumaren euskal dimentsioarekiko informazio zabala, zientzi arauz kontrastaturik? Galdera horiei aski erantzun apala

dagokie, normalean. Gutxi dira izan (gutxienak, seguru asko) baldintza horiek guztiak (hots, inguruko beste eskola-sistematan normal samar bete ohi diren baldintzak) gure artean osorik eta erabat betetzen dituzten irakasleak. Hori ez da beraien inolako tatxa, ez handia eta ez txikia, gure irakas-sistemaren oinarri-oinarrizko ezaugarri kolektiboa baizik. Abiatu den lekutik abiatu delarik EAEko hezkuntza elebiduna, eta eraman duen bidea eraman duelarik, nekez oso bestelako emaitzarik eskura zitekeen.

Gauza bat da ordea hori onartzea, eta bestea zer egirik (hots, zer hobeturik) ez dagoela esatea. Badago zer hobetua, presarik baina pausarik gabe, gure irakasmunduan. Beharizan horrek adierazten du, hain zuzen, aurrera begirako eginkizunaren ardatz nagusia non dagoen: irakasle euskaldun(du)en (egungoen edota etorkizuneko) goimailako prestakuntza. Etengabeko formazioa lan-mundu modernizatuaren osagai arrunt bihurtu zaigun honetan, euskal irakasmundua ezin liteke salbuespen itxi eta bitxi izan. Euskarazko irakaskuntzak aurrera egingo badu, profesional onak behar ditu. Eta «ontasun» horrek, gainerako osagarriez gainera, hitzez eta idatziz euskaraz jarduteko gaitasun sendoa eskatzen du. Hitz-etorri erraza, hizkuntza ren bame-ondaraz (ohiko gramatika-egiturez eta eba-keraz, doinueraz eta hitz-altxorraz, esapide jatorrez eta itzulika aberatsez) jabeturik izatea, abstrakzio alorreko kontzeptu-lanketarako terminologia teknikoaz ongi horniturik egotea, aldian aldiko beharizanetarako mintzaira-molde egokiez (bertako euskalkiaz zein harreman infomaletarako aldaerez) baliatzen jakitea, literatur tradizioaren ezaguera duina izatea eta bertako kultur edukiak itxura batean eza-gutu eta argi transmititzen jakitea. Neurrigabeko lujoa irudituko zaio hori, agian, bati baino gehiagori. Ez da halakorik, ordea: osasun oneko hiztun-elkarteek halaxe jokatu ohi dute, ahal den guztian, beren irakas-sistemei dagokienez, eta indarberritu nahian ari garenok ez genuke besteak baino zikoitzago izan behar geure burua prestatzeko orduan. Gehigarri horiek mesedegarrizko eta are beharrezko elementuak ditugu. Hala dira, izan, euskal ira-

kaskuntzaren kalitatea (eta ez, maizegi gertatu ohi denez, kantitate huts itsua) baldin badugu gogoan.

Unibertsitate-ikastegiek, IRALEk, euskaltegiek eta gainerako ikasketa-elkarteek zeregin zabala dute goi-mailako prestakuntza-lan horretan. Asmatu egin behar (neurritz eta lekuz, edukiz eta itxuraz), urteetarako eginkizun larri horri ikastaro-emanakizun egokiz erantzuten. Ez da batere lan erraza: ez ordu gutxitan eskura liteke halako prestakuntzarik, ez irakastegiak daude hartarako osorik prestatuak, ez bere bideragarritasun ekonomikoa dago aurrez garantizatua eta ez alderik aldeko plangintza zurrunaz (are gutxiago irakasle-jendea hartara behartuz) ekin dakioke bide-berritze horri. Ez da, berriro esan, lan erraz eta sinplea. Ezinezkoa ere ez da, ordea. Parterik garrantzitsuenak (milaka irakasleren gogoaz eta adostasun espresua, beren prestakuntza-bidean aurrera egiteko) badago egon. Goi-mailako ikastaro-eskabideei dagokienez, gogo-adostasun hori urterik urte konfirmaturik ageri da. Bada, beraz, aurrera nondik egin ikusteko abiabururik. Zailena falta da noski: egitea. Ez nolana eitea, gainera, ondo egitea baizik. Asmatuko al dugu?¶



Euskalduntzea krisian? Sektoreko kideei galdezka

duela 13 urte, 1990ean, Alfabetatzearen nazioarteko urtearen kariaz, *Jakin* aldizkariak ale monografiko bat eskaini zion euskalduntze alfabetatzeari, «Euskalduntze-Alfabetatzeak bidegurutzean» izenarekin.

Gaur egun ez dakigu euskalduntzea bidegurutzean dagoen, baina bai badela askorentzat kezka-iturri. Zeresana ematen ari da behintzat. Gehien agertzen diren hitzek kinka gaiztoa adierazten dute: «krisia», «krisialdia», «egoera larria», «beherakada», «jaitsiera». Manieiatzen diren zifrak ikusita, aintzat hartzekoa da jaitsiera: iazko ikasturte-tik aurtengora %8,5 jaitsi da, bestela esan, 3.000 ikasle baino gehiago galdu dituzte euskaltegiek EAEn. Eta aurreko urteetan ere beheranzkoa izan da joera.

Euskaltegien lanaz, egoeraz eta geroaz iritziak jaso eta gogoeta egin nahi dugu. Galdera nagusia hau da: zergatik gertatzen da beherakada hau?

Han eta hemen erantzun mota desberdinak eman dira. Honela bil ditzakegu nagusitxoena: gizatearekikoak dira batzuk, hala nola, aldaketa demografikoa, jaiotze-tasaren jaitsiera, hizkuntza ereduaren eragina, lan merkatuan euskararen eskaintzak gutxitzea, giro politiko nahasia, AEKren eta euskararen munduaren kriminalizazioa; jendearen jarreraren oinarritzen dira beste batzuk: jendearen mentalitate aldaketa, motibazioen aldaketa, euskararekiko konpromiso falta, erlaxazioa, euskararen aldeko presio

falta; hizkuntzaren estatus juridikoa eta Administrazioen jarrera epela edo kontrakoa aipatzen dituzte beste batzuek; sektorearen mugak eta akatsak ere presente daude erantzun askotan: metodologia, eskaintza mugatua izatea, zurruna eta gainera neurritatua, kantitatean oinarritzea eta ez kalitatean edo eraginkortasunean, lan-baldintzen eskastasuna, baliabideen eskasia.

Euskaltegien arazoa zertan den zehatzago eta zuzenago jakiteko asmoz, euskalduntze-lanetan diharduten zuzendari eta arduradun batzuen artean zabaldu dugu galde-tegi hau. Erantzun digutenak honako hauek dira: Jokin Azkue (HABE), Abel Camacho (Udal Euskaltegiak), Joxerra Olano (IKA), Joxe Leon Otaño (AEK) eta Isidro Yoldi (euskaltegi homologatuak). Barnetegietara ere jo dugu iritzi eske, baina azken orduan ezin izan dugu erantzunik jaso.

Ondoren, lagun horiei egin dizkiegun hiru galderak aurkezten ditugu:

- 1.- Zeintzuk dira urtetik urtera gertatzen den matrikulazio jaitzian eragiten duten faktore nagusiak? Indar eragile endogenoak eta exogenoak, sektore baitakoak eta kanpokoak, alegia.
- 2.- Euskaltegiek (direnak direla, hau da, gaurko baliabide, antolaketa eta metodologiarekin) «euskaldun osoak» lor al ditzakete? Zer indartu beharko litzateke?
- 3.- Euskalduntze eta alfabetatzearen prozesuan, zein da euskaltegien «misioa» gaurko gizartean, egungo herri eta auzoetan, eta bere helburua betetzeko zer behar dute?



Jokin Azkue

1.- Gai hau dela eta, lehen esana dugunez, urtero-urtero, ia oraintsu arte 40.000 ikasle heldu aritu dira euskara ikasten EAEko euskaltegietan. Gaur, kopuruak muga horretatik behera etorri dira, 2000-2001 ikasturtean 37.141 ikasle aritu ziren. Eta 33.993 itxi berri dugun 2001-2002koan.

Gure ustez, beherakada hori ez zaio eragile bakarrari zor. Badira-eta, hipotesi moduan bederen, beheranzko joera horrekin lotura izan dezaketen hainbat aldagai:

- *Hezkuntza-eralduen eragina.* Gaur egun, irakaskuntza ez unibertsitarioetan ari diren ikasleak, A ereduak (euskara ikasgai gisa) %30 inguru dira EAEn. Gainerakoak D eta B ereduetan ari dira. Hala, 1975ean jaiotako gazte bat 27 urteko adinaren bueltan dago jadanik. Gazte hori 83-84 ikasturtean, esaterako, 8/9 urte zituenean, A ereduaren aurkitzeko probabilitateak %80 inguru ziren, eta, B edo D ereduaren aurkitzekoak, berriz, gutxiatik, %20tik gorakoak ziren jadanik. Eta, 27 urte eduki beharrean 25, 23 edo 21 urte dituztenen aukerak, D eta B ereduaren aurkitzekoak, ugaritu egiten dira noski. Eta are eta nabarmenagoa da hori EAEko hainbat lurraldetan. Bistan da, bestalde, hezkuntza eralduen eragina gero eta nabariagoa izango dela.

- *Ikasleen adina.* Aldagai honek arestian aipatutakoarekin lotura zuzena du. Urte luzetan gorabehera handirik gabeko datua izan dugu ikasleen adina. Baina azken bost ikasturteetan, batez bestekoa 27 urtetik 33 urtera pasatu da. 00-01 ikasturtean 36-45 adin-tarteko ikasleak %25,14 ziren, eta, 45 urtetik gorakoak ia %10 ziren. Eta, gero eta ugariagoak dira jubilatutakoak eta hirugarren adinekoak.

- *Beste aldaketa demografikoak.* Goiz da ziurrenik esateko hezkuntza-sisteman, haur gutxi jaio izanaren ondorioz, ikasle gutxiago matrikulatzea eta helduen euskalduntzean ere matrikula-kopurua gutxitzea arrazoi berberari zor zaizkiola. Bistan da, hala ere, horrek ere berandu

baino lehen bere eragina izango duela. Egia ere bada, bestalde, lan-merkatuaren beharrak eraginda mugimendu migratorio positiboak handituko direla. EAEko hezkuntza-sisteman ari diren ikasle etorkinen kopuruak urteko %40tik gorako hazkunde-tasa izan du azken bi ikasturteotan. Eta datu horiek ere kontuan hartu beharko dira euskaltegien ikaslegaiak zein diren zehazterakoan. Jatorrizko hizkuntza ezberdinak, xede-hizkuntzarekiko tarte linguistiko ezberdinak, kulturak...

- *273.491 ikasle ohi.* Aipa dezagun azkenik 86-87 ikasturteetik 00-01 ikasturtera bitartean 273.491 ikasle heldu aritu direla euskaltegietan ikasten. EAEko populazioa gogoan, milioi laurden pasatxo hiritar euskaltegietara joatea ikaragarria da. Eta are eta ikaragarriagoa baldin eta kontuan hartzen badugu kopuru hori handiagoa dela zeren eta lehenago ere asko eta asko baitziren euskaltegi eta gau-eskoletara joandakoak. Bistan da ikaslegaiak gero eta gutxiago direla.

- *Langabezia-tasa eta ikasle-jendea.* Bost ikasturteren epean ikasleen langabezia-tasa %25,02tik %17,48ra pasatu da. Ia 8 puntuko aldea. Lanean ari direnak %39,61etik %59,45era pasatu dira: ia 20 puntu; eta, ikasleak, ikasketa akademikoak burutzen ari direnak, %35,36tik %23,06ra pasatu dira: 12,30 puntu gutxiago. Bistan da lanik gabe dagoena errazago joan daitekeela euskaltegira lanean ari dena baino.

Horiekin batera, denborak gero eta estimu handiagoa duen gizartean bizi garenez, ikas-prozesuaren azken helmuga urrutitxo ikus dezakete batzuek eta, horien begietara, euskara ikastea ere zailegia izan liteke.

2.- Definitu beharko genuke aurrenik zer den «euskaldun osoa». Euskaltegiek urtero-urtero EGAREN inguruko gaitasuna duten 3.000 ikasle inguru plazaratzen dituzte: 12. urratsa gainditzen dutenak. Nire ustez, euskaltegien lorpenak begien bistakoak dira. Kuestioa da lortzen ari dena baino zenbat gehiago lor litekeen eta nola; batez ere, hain azkar dabilen gizartearen eskaera berriak kontuan hartuz. Hari horretatik, ikasleen beharretara egokitutako irakas-

kuntza beharko genuke. Xede-taldeak ahalik eta zehatzen definitu beharko genituzke: efektu biderkatzailea izango duten giza taldeak, beren zereginetarako behar bereziak dituztenak eta euskal gizartean integratzeko bidea urratu nahi dutenak ere oso aintzat hartzekoak dira.

Ikas-prozesuaren eraginkortasuna bermatzeari begirako neurriak ere aurreikusi beharko genituzke, trinkotasuna eta matrikula, esaterako, zeren eta lorpenik handienak, oro har, goi-urratsetan gertatzen baitira, eta, era berean, trinkotasunik handieneko ikastaldietan.

Aitortza-sistemaren bat egituratzekoa litzateke. Aurreko galderan erantzun bezala, ikas-prozesuaren amaiera (EGA) oso urrun ikus dezakete batzuek. Horrek ez du esan nahi tarteko geltokiak ez daudenik. Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Kurrikuluan (HEOK) lau gaitasun-maila zehazten dira. Eta are lehenengoaren jabe dena ere gai da euskaraz komunikatzeko.

Baliabideak eta azpiegiturak: baliabide ekonomikoak, teknologia berriak, materialak... Etengabeko erronka ditugu horiek guztiak xede-taldeei ahalik eta egokien erantzuteko.

Bestalde, Euskalduntze-alfabetatzeak euskararen ezagutza areagotzeko dihardu. Baina, bistan denez, ezagutza erabilerarako baldintza da. Ez dago hizkuntza erabiltzerik jakin ezean. Eta jakin eta ez erabiltzea bidearen erdian gelditzea litzateke. Nire ustez, Euskalduntze-alfabetatzeak oso kontuan eduki behar ditu erabileraren arazoak eta, dagokion heinean, ezagutza lantzean ere aurrea hartu.

- 3.- Erantzunda dago nolabait aurreko galderan. Euskaltegiak euskararen geroratzea eta ondorengoetaratzea ziurtatzeko tresnak dira. Egiteko hori izan dute orain arte eta egiteko hori izango dute, nire ustez, aurrerantzean ere baina gero eta espezializazio handiagoa ikusten da, behar zehatzagoak... Euskaltegiek ezinbestekoa dute, nire ustez, egoera berrietara moldatzea erronka berriei erantzuteko prestatuz. Ugari dira mahai gainean ditugun erronkak: irakasle-riaren etengabeko formazioa, teknologia berrien erabilera, diseinu estrategikoak, syllabusak, ikas-material berrien prestaketa, xede-talde bereziak edota behar bereziak di-

tuzten taldeak: etorkinak, 45 urtetik gorakoak, enpresako langileak, administrazioko langileak: osakidetzakoak, justizia sailekoak... Hiritarrak euskaltegira joateko motibazioa areagotu... Behar horiek guztiek eszenatoki arras dinamikoan jartzen gaituzte. Bestalde, euskaltegiak ez dira euskararen geroratzea eta ondorengoetaratztea ziurtatzeko tresna bakarra eta, alde horretatik, katebegi bat gehiago dira euskara biziberritzeko ahaleginen sarean. Beraz, ahalegin horietan guztiok zenbat eta baterago etorri hainbat eta berme handiagoa izango dugu arrakastarako.¶



Abel Camacho

1.- *Jakin* aldizkaritik lerro hauek idazteko gonbitea jaso nuen, iritzi aski argia nuen azken urte hauetako matrikulazio-jaitsiera azal dezaketen faktoreez ez ezik, etorkizunari begirako espektatibez ere. Gonbitea jaso eta lerro hauek idatzi arteko epean, ordea, Helduen Euskalduntzean erabateko aldaketa sortaraziko duen dokumentu baten berri izan dugu, HABEk datozen urteotako euskalduntzea arautuko duen dekretuaren ildo nagusiak bildu dituen, hain zuzen. Horiek horrela, dokumentu mugarri horren aurreko eta osteko inpresioak azalduko ditut.

Gure sektorearen beherakada azal dezaketen faktore gehienak IKEIk HABEren eskariz egindako Euskaltegien Bideragamitasun Planean aurkituko ditugu (faktore sozialak, ekonomikoak, hezkuntza-eredu euskaldunen eragina...). Modu intuitiboan ezagutzen bagenituen ere, IKEIren lanean ondo sistematizatuta ikusi ditugu, eta argi dago horiek azal dezaketela, neurri handi batean, ikasle-galeraren zergatia.

Bada, dena dela, beste alderdi bat zuzen-zuzenean jaitsierarekin lotuta ez dagoena, baina ikaragarritzko garrantzia duena arazo hori azaltzeko momentuan. Dakigu-

nez, HABEren sorrerarekin batera, Eusko Jaurlaritzak orduko euskalduntze eta alfabetatze-beharrei erantzuteko sistema sortu zuen, horretarako hainbat erabaki hartuz. Alde batetik, euskaltegi-motak zehaztu zituen, udal titulartateko euskaltegi publikoak sortuz, hainbat euskaltegi pribatu homologatuz eta beste hainbat *libre* lelopean onartuz. Horrez gain, helduentzako euskara-eskolen eskaintza jakin bat diseinatu zuen (moduluen sistema deitu zitzaiona), eta horren arabera, diru-esleipena zehaztu zuen. Udal euskaltegien kasuan, irakasleen lanaldiak, kontratazio-motak, lan-hitzarmenak, funtzionamendua... goitik eta behera bideratu zituen. Agerikoa da sistema horrek argi-itzalak izan dituela, baina era berean, garai jakin batean zeuden beharrei erantzun zuela, hobeto edo okerrago. Zein da, beraz, gaur egungo problematika? Bada, gizartea etengabe aldatuz joan den bitartean, euskaltegien —bereziki euskaltegi publikoen— funtzionamendua eta egitura lehengo berak dira, hogeita bost urte hauetan ezer gutxi aldatuta. Argi dago garai batean baliagarria-edo gertatzen zen sistemak gaur egungo egoerari ezin diola inondik ere erantzun. Egokitu beharra, beraz, ezinbestekoa da.

Teorian, behintzat, Bideragarritasun Plana egin izanaren arrazoia egoera hori soluziobidean jartzea zen, hainbat aldagairen diagnosis egindakoan, euskaltegi bideragarriak lortu ahal izateko estrategia-multzoa jasoko zuen lan-plana diseinatzeko. Orain gutxira arte pentsatzen genuen HABEk azaleko kontu batzuk baino ez zituela berrituko, edo bestela esateko, ezertxo ere ezin alda zezakeen gutzia berrituko zuela, horrela, urte gutxiren buruan sektorea desagertzea lortuko zutelakoan.

Oker geunden, ordea. Euskaltegiak gosez hiltzen utziko zituztela pentsatzen bagenuen ere, zuzenean ixteko erabakia hartu dute. Izan ere, 2003-2004 ikasturteetik aurrera euskaltegien funtzionamendua arautuko duen dekretuak ikaragarri azkartuko du ikasle-jaitsiera. Euskaltegien finantziazioa irakaskuntza-jardueraren arabera izatetik (irakasle-orduak, taldeen ratioa, irakasleen lan-baldintzak...) ikasleak jasotako eskola-orduei esker lortutako errendimenduaren arabera izatera pasatuko da. Horre-

la, ikasturte-amaieran kanpo-ebaluazio bidez ezarriko den azterketa gainditzea izango da hurrengo ikasturteko subentzioa jasotzeko irizpidea. Gainditu ezean, dena delako ikasleak irakaskuntzaren kostu erreal osoa hartu beharko du bere gain. Hartara, euskara ikastea pribilegiatu bakar batzuen esku baino ez da egongo.

2.- Lehenik eta behin, ohar batzuk egin nahi nituzke *euskaldun osoa* kontzeptuaren inguruan. Ezaguna da Txepetxen *ikasketen teoria*. Horren arabera, hiru dira hizkuntzak ikasi ahal izateko oinarrizko faktoreak: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Faktore horiek berezkoak ala induzituak izan daitezke, eta horren arabera, beraz, bi ikas-prozesu bereiz daitezke: primarioa bizitzaren lehenengo urteetan eta sekundarioa edo kulturala hezkuntza sisteman. Hiztun edo euskaldun osoa izateak esan nahi du hizkuntzaren gaineko bi ikas-prozesuak gertatu direla, naturala edo berezkoa eta kulturala edo sekundarioa.

Txepetxen teoria honek arrakasta handia lortu zuen eta Helduen Euskalduntzean ere sekulako oihartzuna izan zuen. Askoren iritziz, euskaltegien azken helburua euskaldun osoak sortzea zen eta horretara bideratu behar ziren ikuspuntu metodologikoa, materialak eta gainontzeko aribide guztiak ere. Emaitzak, ordea, ez dira gehienetan espero bezalakoak izan. Kasu horietan motibazioa hartu izan dugu porrotaren arrazoitzat, ikasle askoren motibazio falta, alegia. Motibatu gabeko ikasleak ezagutza lortuko du ziurrenik, baina ez du hizkuntza erabiliko, eta beraz, ez da euskaldun osoa izatera iritsiko.

Gure ustez, ordea, oinarrizko arazo bat gertatu da euskaldun osoaren kontzeptua sostengatu duen teorizazioan. Zoritxarrez, hizkuntza bat ikastea ez da Txepetxek irudikatutakoa bezain sinplea, askozaz konplexuagoa da eta hori argi eta garbi frogatu dute azken hogeita hamar urte hauetan hizkuntzalaritza aplikatuaren alorrean hizkuntzen jabeakuntza-prozesuak aztertu dituzten ikerketek. Hizkuntzaren jabeakuntza-prozesuan eragina duten aldagaiak, beraz, asko eta askotarikoak dira, besteak beste, adina, trebetasun linguistikoa, aldagai psikosozialak, nort a-

sun, estilo kognitiboak, ikas-estrategiak... Baina, jakina, instrukzio formaleko testuinguru batez ari bagara, horiei gaineratu behar zaizkie irakaskuntza eta aukeratutako ikuspegi metodologikoarekin erlazionatutako beste hainbat aldagai, hizkuntzaren gaineko ikuspegiari dagozkion guztiak... Ondorio argia atera behar dugu: hizkuntzen ikas-prozesua inondik ere ezin azal dezakeen ikuspegi baten argitan formulatutako helburuak lortu nahian ibili gura urtetan Helduen Euskalduntzean, lortu ezin daitekeena lortu nahian, alegia.

Gaur egun bigarren hizkuntzaren didaktikaz ari gara, eta eleaniztasunaren aldeko ikuspegi batetik abiatuta, ez da gomendagarria jatorrizko hiztun idealaren ereduari jarraituta, hizkuntzen ikas-prozesuaren gaineko ikuspegi hertsia bat izatea, hasiera eta amaiera dituen prozesua baltz bezala hartzea, alegia. Iruditzen zaigu horrelako ikuspegi batek atek ixten dizkiola lorgarri izan daitezkeen hainbat helburu planteatzeari. Ikasleak errealitatean burutu behar dituen eragiketa linguistikoei erreparatuta, zergatik ez bultzatu, adibidez, naturala den trebetasun linguistikoen arteko oreka eza?

- 3.- Gure ustez, Euskalduntze eta alfabetatzearen misioa hiritarrei beren behar linguistikoak asetu ahal izateko bitartekoak eskaintzea da, euskara ikasten eta erabiltzen lagunduz, esparruak zabalduz... Horrek, ezinbestez, euskararen normalizazio-prozesuari eragin behar dio, baina beti ere, bigarren hizkuntza bat ikasteak inplikatzan dituen aldagaien kontzientzia argia edukita. ¶



Joxerra Olano

1.- Beste ezertan hasi baino lehen, esan dezadan euskaltegi-tako ikasle kopuarean gaineko azterketa-lan gutxi egin dela, nik dakidanez behintzat. Gutxi eta argi handirik ematen ez digutenak, zoritxarrez. Izan ere, kontu hone-tan, beste askotan bezalaxe, tartean egon daitezkeen fak-toreetako batzuk zein diren jakitea errazagoa iruditzen zait faktore bakoitzaren benetako eragina zenbateraino-koa den argitzea baino. Beraz, usteen eta irudipenen ere-mu labainean ibiliko naiz, ezinbestean. Besterik gabe, nire ustez matrikulazio jaitsieran eragina izan duten faktoreak banan-banan aletzen hasiko naiz.

Aipatzekoak dira, nire ustez, azken bospasei urteetan Hegoaldeko hedabiderik gehienek herritarroi helarazi diz-kiguten euskararen gaineko mezuak. Euskaldun guztiok, euskaldun izate hutsagatik, pentsamolde politiko bakar eta jakin bati lotzen ahalegindu dira; euskaldun-abertzale-te-rrorista hirukotea osatu dute etengabe. Herritarron presta-keta horren bidez euskararen munduko zenbait talde eta erakundem kontrako operazio judizial eta polizialak gau-zatzeko giro egokia sortu duela uste izan du Espainiako benetako aginte politikoak, eta baita gauzatu ere. Hor dau-de, esate baterako, AEKren eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren kontrako jarduerak. Pentsatzekoa da horrek guztiak ez zi-gula erdaldunak euskaltegi-tara erakartzeko lana erraztu-ko, eta euskara ikasten has zitekeen bat baino gehiago uxatuko zuela. Faktore honen eragina zenbaterainokoa ote den ez dakit, baina EAEko eta Nafarroako HEArri mese-derik ez diola egin nekez uka daitekeela iruditzen zait.

Nafarroako erdaldunak, berriz, arestian aipatutakoaz gain, garbi ikusi du herrialdeko administrazio-rik garrant-zitsuenek, Gobernuak berak eta Iruñeko Udalak hain zu-zen ere, euskararen eta euskal kutsua duen ooren aurka-ko erabaki politiko sorta ikaragarria hartu dutela. Bestal-

de, Nafarroako Gobernuako lehendakariak berak Nafarroan euskaraz ez jakiteagatik inork inor ez duela baztertuko ziurtatu digu. Behin eta berriz esan zaio nafar erdaldunari euskara ikasi beharrik ez duela, euskaraz jakiteak inolako abantailarik ez dakarrela, agintari erdaldunek euskara ikasteko inolako asmorik ez dutela, beste hizkuntzaren bat ikasi nahi duenak hobe duela ingelesa ikastea euskara baino... Begien bistakoa iruditzen zait hizkuntza politika horrek eta horretarako landu eta zabaldu dituzten argudio guztiek Nafarroako HEAri kalte egin diotela. Zenbaterainokoa? Batek daki.

Laburpen gisa esango nuke euskararen prestigio gale-
ra nabarmena gertatu dela EAEn eta Nafarroan, euskaldun guztiok eta batik bat euskararen aldeko lanean ari gare-
nok kriminalizatzeko saio garbia ikusi dugula. Horri guz-
tari euskararen kontrako hizkuntza politika larria gehitu
behar zaio Nafarroan. Ez litzateke txarra egunen batean
gauden honetara nolatan iritsi garen aztertzea. Egunen
batean, bai; ez gaur, ordea. Badira-eta aipatu nahi nituz-
keen beste kontu batzuk ere.

Euskara ikasteko astirik ez izatearena, esaterako. Izan
ere, zenbait inkesta eta azterketatan ikusi da herritarrek
denbora falta aipatzen dutela euskara ikasten hasteko oz-
topo nagusiaz galdetzen zaienean. Badirudi, gainera, astean
8 edo 10 eskola ordu baino gutxiagoko ikastaroen eskaria
handitzen ari dela azkenaldi honetan. Dena dela, horreta-
rako astirik ez izate horren atzean gauza bat baino gehia-
go dagoelakoan nago. Aisian euskara ikasteak adinako ne-
kerik ematen ez duten beste jarduera batzuk nahiago izat-
ea, aurrenekoa. Bigarrena, berriz, lan munduan izan di-
ren aldaketak: lan kontratuen behin-behinekotasuna, egu-
neko lanaldia luzatzea, astero lan ordutegia aldatzea... Hi-
rugarren bat aipatzekotan, langabe kopuraren jaitsiera
aipatuko nuke, aurreko biek baino zalantza gehiago sort-
zen badit ere. Litekeena baita lanik gabe jende gutxiago
egote horrek ere nolabaiteko eragina izatea euskaltegieta-
ko matrikulazioan. Edo ez.

Luzera kezagarria hartzen ari den erantzun hau bu-
katu aurretik, bina hitz egin nahi ditut beste bi kontu di-

rela eta. Irakaskuntzako D ereduaren hedapena da, lehen-dabizikoa. Horretaz hitz egin ahal izateko jakin nahiko nuke azken 10 urteetan D ereduari ibilitako zenbat ikasle izan ditugun Euskal Herri osoan euskaltegietan. Gurean, behintzat, berez txikia den kopurua urtetik urtera handitzen ari da, gero eta gehiago baitira EGA prestatzeko taldeetan, edo bestelakoetan, eskolako ikasketak euskaraz egin dituztenak. Ez dakit gainerakoetan antzeko zerbaitez gertatzen ari ote den, baina ezinbesteko datua iruditzen zait hori. Bestalde, garbi dago D ereduaren zeharo nagusitu den herrietan euskalduntze prozesua hasteko ikaslegai gutxiago dagoela. Hala eta guztiz ere, eta salbuespenak salbuespen, ez dut uste sektorearen arazoa ikaslegairik ez izatea denik, baizik eta ikaslegai horiek erakartzen asmatzea, euskaraz hitzik ere ez dakien makina bat erdaldun dago-eta bazterretan, D ereduaren arrakasta gorabehera.

Konturatuko zen honezkero irakurlea aipatu ditudan faktore guztiak sektoretik kanpokoak direla, galdera egileak exogenoak deitu dituenetakoak, alegia. Horrek ez du esan nahi, jakina, gure jardueran zer hobetua ez dagoenik. Guk ere batzuetan bale, eta beste batzuetan kale egiten baitugu. Beste guztiak bezalaxe, bestalde. Hala ere, ez dut uste heritarrari ematen diogun zerbitzuaren kalitateak matrikulazio jaitsieran eraginik izan duenik. Besterik da orain arte aipatu ditudan faktoreei aurre egiteko edo horien eragina arintzeko nahikoa egin ote dugun erabakitzea, eskura ditugun baliabideak direnak izanda. Ahal duguna egin dugula baino ez dut esango.

- 2.- Euskaldun «oso» izatea zer den ez dakidala aitortu behar dut. EGA titularen jabe izatea ote da? Edo bizitzaren alor guztietan norberaren komunikazio beharrak euskaraz egoki betetzeko gauza dena ote? Azken honetaz ari bagara, garbi dago euskaraz bizitzeko aukerari lotutako kontzeptu batez ari garela, nekez lor baitaiteke hizkuntza gaitasun hori edonon eta edonon euskaraz egiteko biderik ez baldin badago. Dena dela, nik uste euskaraz bizitzen saiatzen garen guztiok ari garela etengabeko osatze horretan egunerokoan komunikazio esparruak euskaratzen ditugun neurrian.

Galdetu zaiguna euskaltegietatik zer moduzko hiztunak ateratzen diren baldin bada, batzuk beste batzuk baino hobeak direla erantzungo nuke. Izan ere, gure lanaren emaitza ez dago gure esku bakarrik. Edonork edozein hizkuntza ikasi ahala, hizkuntza horretan hitz egiteko tresnak eskuratu ahala, bere motibazioaren eta aukeren arabera euskaraz gehiago edo gutxiago egingo du. Litekeena da oso euskaraz mintzatzeko aukera gehiago izatea Azkoi-tian Oionen baino, adiskide euskaldunak dituenak arinago ikas dezake egunerokoan erdaldunekin baino harremanik ez duenak baino, euskarazko kultur produkzioa eza-gutzeko gogo bizia duenak horretarako batere zaletasunik ez duenak baino. Eta horretan saiatzen gara, hain zuzen ere, euskal hiztunak lortzera bideratutako metodologia erabiltzen, horretarako behar den material didaktikoa sortzen, ikaslearengan euskaltzaletasuna pizten edota are-agotzen, euskaltegitik kanpo ere euskaraz egin dezaten jarduerak antolatzen, euskal kulturaren ahal dugun eta ikuspeirik osoena erakusten, erabilguneak sortzen, motibazio kanpainak egiten, berez nekeza den prozesua arintzen, azken batean.

Beste kontu bat da, askotan, majo kostata lortutako hiztun horrek handik urte batzuetara berriro ere euskalte-gira jotzen duela ikustea, euskaraz ez egitearen ondorioz hizkuntza ahazten ari zaiolako. Horrek garbi erakusten du erdararen bat nagusi den herrietan erabilera indartzeko bideak asmatu behar ditugula. Horrela baino ez baitugu erdietsiko ikasprozesua bera laburtzea eta ikasleak euskal-tegian lortu duen hizkuntza gaitasuna mantentzea eta hobetzea.

Azkenik, baliabideen kontua propio alde batera utzita, hileta jotzeko bidea hurrengo erantzunean izango dut-eta, metodologiaz eta euskaltegietako gestioaz bi zertzelada baino ez. Lehenengoaz, esatea, umiltasun osoz, erabiltzen dugun metodologia ez zaidala okerragoa iruditzen helduei beste hizkuntza batzuk irakasteko erabiltzen dituzte-nak baino. Bigarrenaz, berriz, ezer esatekotan, mixeria ku-deatzen ederki ikasi behar izan dugula esango nuke. Zorit-xarrez.

3.- Euskaltegien eginbeharra egungo herri eta auzoetan orain 30 urteko bera dela iruditzen zait: ahalik eta euskal hiztun gehien lortzea, ahalik eta eperik laburrenean.

Azken finean, euskal eta erdal hizkuntza komunitateen arteko bi zubietako bat da HEA. Euskararen ezagutza zabaltzeaz gain, euskal hiztun berriak sortzeaz gain, alegia, motibazioan eta euskararen erabileran zuzen-zuzenean eragina duena. Azken hiru hamarkada hauetan milaka eta milaka erdaldun euskaldundu dira euskaltegietan. Baina ez hori bakarrik.

Izan ere, ezin da ukatu, nire ustez, ikasleek eskuratu duten euskara maila gorabehera, euskararen aldeko jarraera zabaltzen euskaltegietan egin den lan ikaragarria; eta ezta euskaltzaletasuna hedatze horrek euskarazko hezkuntza ereduaren arrakastan izan duen eragina ere.

Ukaezina iruditzen zait, era berean, euskararen erabilerara handitzeari begira HEAn egindako lanaren garrantzia. Euskaltegien lanari zor zaion euskal hiztunen ugaritze horrek euskaraz egiteko euskaldun guztion aukera areagotu du, batetik. Bestetik, hiztun horiek pertsona nagusiak dira eta, gustatu ala ez, helduok gara gizartearen eguneroko martxa erabakitzen dugunok eta gazteagoen eredu. Heldu batek euskara ikasteko ahalegina egin duela ikusteak euskaraz egitera bultzatzen ditu haur eta gazteak ere, herri askotan eskolako hizkuntzatzat baino ez zeukatenari estimazio handiagoa izatera bultzatu ere.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, euskaltegietan erdaldunari gure hizkuntza irakastean euskal kulturaren ateko giltza ere jartzen diogula eskuan, euskal mundua ulertzeko bidea ere ematen diogula. Horrek euskal kulturaren ezagutza hedatu du eta euskarazko kultur produktuen kontsumoan ere eragina izan duelakoan nago.

Aipa dezadan, azkenik, euskararen kontrako jarrerak neutralizatzen egindako lana. Ezinbesteko ahalegina hainbat tokitan euskarak aurrera egiterik izan zezan, askotan euskaltegietako irakasleek ia bakarrik egin behar izan dute.

Beraz, uste dut orain arte kontuan hartzeko moduko aportazioa egin duela HEAk. Aurrerantzean ere ezinbeste-

koa izango dena zorioneko herri santu honetan bizitzaren alor guztietan euskara nagusi izatea helburu badugu.

Baina, hala eta guztiz ere, sektore gutxietsia eta aintzat hartu gabea da gurea, hutsaren hurrengo askoren ustez. Jarduera ezerosoa erdaldun euskaltzale askorentzat, errazagoa izan baita beti nork bere burua zuritzea umeak D eredura bidalita norberak euskara ikasteko ahalegina egitea baino. Eta nago, tristea bada ere, oraindik ere asko dirida umeak euskaraz eskolatzearen bidez bakarrik herri hau euskaldundu daitekeela uste dutenak, ikusten ez dutenak pertsona nagusiak euskaldundu gabe gure hizkuntzak aurrera nekez egingo duela erdaren bat nagusi den herrietan. Eta euskara nagusi dugun apurretan ere jendea alfabetatzearen premia ederra dagoela esan daiteke, gezurrik esateko beldur handirik gabe.

Azken batean, HEAk euskalduntze prozesuan duen benetako garrantzia guk nahi baino gutxiagok ikusi dute. Tamalez, jende gehiegik bigarren mailako jarduera osagarritzat izan du eta du HEA. Eta oraindik ere sektorea aintzat ez hartze horrek, niri behinik behin, kezka handiagoa sortzen dit azken urte hauetako matrikulazio jaitsierak berak baino. Hemen, alor honetan egin zitekeena baino askoz ere gutxiago egin da. Hala ere, izango dira HEAk jadanik bere onenak eman dituela uste duten euskaltzaleak ere. Marka da, gero! Marka denez!

Bukatzeko, euskaltegiek bere helburua betetzeko behar harko luketenaz ez naiz luzatuko. Lehenengo eta behin, euskalduntze prozesuan euskaltegien jardueraren garrantziaz konturatzeko eta sektorea ganoraz indartzeko borondatea eskatuko nieke gizarte eragile guztiei eta, batez ere, bere burua euskaltzaleztat duten instituzio eta alderdi politikoei. Bigarrenik, garrantzi horren neurriko baliabideak eta babes politiko eta soziala. Ez litzateke txarra, azkenik, euskara ikasi duten pertsona nagusi guztien ahalegina behingoz txalotzea. ¶



Joxe Leon Otaño

1.- Matrikulazio jaitsieran eragiten duten faktoreez hitz egitean, arinkeria litzateke alde bakarreko eragileei buruz aritzea; are gehiago, euskararen berreskurapenean urrats sendoak emango baditugu, helduen euskalduntze eta alfabetatzearen berrindartzea eta estrategikotzat hartzea badira hausnarketaren helburuak.

Inolako zalantzarik gabe, hezkuntzako lerro euskaldunen hedapena oso garrantzitsua izan da. Dena den, argi dago gorakada honek oraindik eragin mugatua duela euskaltegietara nagusiki hurbiltzen direnen adin tartean (20-45). Esan genezake belaunaldi berrietan lortu den ezagutzaren hedapena ez dela aski izaten ari soziologikoki nagusi den adin tartean euskararen beharra eta ezagutza biderkatzeko.

Euskalgintza eta euskaltzaletasunaren esparru soziologikoak zabaltasun osoan hartuta, nabarmena da euskara ikasteko kontzientziazioan eta «beharraren» etengabeko islan kale egiten ari garela. Oro har, euskara erakartzeko lanean irudi baikorra, alai, modernoa eta «aldekotasunaren» nagusitasuna garatu da. Ez da orekarik lortu ordea, aldekotasuna konpromisoarekin lotzean, baikortasuna beharraren sorrerarekin uztartzean, eta horrek berez kontzientziatzeko erraza ez den helduen esparruan erosokeria elikatu du ingurune hurbiletik hasita. Argi dago kontzientziazioaren eta euskararen gizarte eskaeraren lasaitzeak ondorio zuzena izan duela HEAren beherakadan.

Oro har, HEAn aritzen garen elkarte, erakunde eta enpresek ere euskararen aldekotasun lauso-baikorrean jarri ditugu ia indar guztiak, behar soziala eta instituzionala indartzeko lan osagarria burutu gabe geratu delarik. Egingdako kanpo lanaren xedea, nagusiki, markaren hedapena eta bezeroak eskuratzeko lehiakortasun komertzialera mugatu da kontzientziazio lauso-baikorra ere landu gabe.

Bestalde, didaktikaren ikuspegi estruktural hutsa gainditu eta didaktika komunikatibo eraldatzailea eguneratu, sistematizatu eta erabat eraginkortzeko urrats izugarriak eman ditugu, baina baldintza kaskarrek ongi prestatutako jendearen galera kronikoa eragin digute.

Arlo politiko-instituzionalean, lehenik eta behin aipatu behar da gaztelania/frantsesa eta euskararen artean dagoen onarpen juridikoa erabat desorekatua dagoela. Lehengo biek «behartasuna» dakarten heinean, euskara ez da «beharrezkoa»; eta honek, jakina, neutroak diren sektoreetan galga gisa eragiten du.

Baldintza juridiko orokorrak, sektore espainolisten presio etengabeak, arlo honetan euskalgintzaren eragin oso mugatuak eta agintari politikoen ausardia ezak ezaugarritu dute EAEn euskararen behar instituzionala eta politikoa.

- 2.- Dakusagunez, HEAren egoeran eragin duten faktore anitzak izanda, AEKren edozein ikasgutan «euskaldun osoak» lor daitezke eta lortzen ditugu baina... Erabateko lehentasuna du egiturazko eragileen finkapenak gizartean, instituzioetan eta baita helduen euskalduntzean. Gizartearen kontzientziazioa eta euskararen beharra indartzuz joateko, ezinbestekoa izango da euskalgintza osoaren inplikazioa eta alderdi zein sindikatu abertzaleen esku-hartze zuzena. Euskararen «alde» egotea aski ez dela gizarteratu behar da, nagikerien kontraesanak astindu eta euskara ikasi egin behar dela azpimarratu, belaunaldi galduaren ideia borrokatu eta helduek euskara ikastea hizkuntza eskubideen garpenerako eta euskararen normalizaziorako duen ezinbesteko garrantzian indarra egin behar da. Eta lan baikorrarekin jarraitu. HEAn jarduten dugunon gaitasuna erabat gainditzeko duen lana da, baina guk eragiten ez badugu, nekez mugituko da ezer. Euskaltzaletasunaren gizarte eragiletza nahitaezkoa da leku guztietan, baina are gehiago arlo instituzionaletik euskararen aurkako politika zuzena buztzen den lurraldeetan, hauetan, bestelako aldekotasunik ez baitugu izango. Neurri politiko instituzional ausartagoak hartzeko aukera dagoen lekuetan berriz, gizarte eragiletzarik gabe nekez iritsiko dira.

Horrela, bada, ez bakarrik HEAn, baita erabileran eta normalizazio orokorrean ere jauzi kualitatibo esanguratsurik ematekotan, *sustapen masiboa eta behar soziala* indartuko duten neurri politiko instituzional eraginkorak hartu behar dira. Udal desberdinetan Euskara Biziberritze-ko Planaren baitan burutzen ari den lanak bere ekarpena egingo du. Hala ere, gizartearen aldaketa eta beharretara egokitzeko beste arlo batzuetan erakunde publikoek egiten duten ahaleginean eta egiturazko bitartekoetan erreparatzea besterik ez dago euskararen desorekaz konturatzeko. Etorkinek gaztelania ikasteko Estatuak doako eskolak antolatzen ditu, hor ere badago Helduen Irakaskuntza Iraunkorra deitutakoa. Euskararen normalizazioak pareko sustapen neurriak behar ditu.

Langileen prestakuntza iraunkorraren estrategia osoan —eraztasunak, liberazioak, curriculumaren balioestea, langabetuei zuzendutako doako ikastaro trinkoak, enpresentzako abantaila fiskalak...—, modu planifikatuan eta masiboan euskararen irakaskuntza integratzea beste lan-lerro bat izan behar du.

Halaber, HEaren arlo desegituratu eta sakabanatuak aldaketa uneak bizi ditu. Arlo instituzionalean eta gizartean eragina pizteko erantzukizun kualifikatua du, hala nola azpiegituraren razionalizazioa, euskara ikasteko eskaintza lurralde osoan zabaltzeko xedearen gauzapena, kudeaketarako irizpide ekonomikoak arloaren garrantzi soziolinguistikoari lotzearekin, teknologia berrien eta, oro har, jarduera didaktikoaren birformulazio kontzientziatzailea eta erabilerara zuzendutakoa, irakasle sortzaile eta kontzientziatuen ezinbestekotasuna, gizarteratzen den mezuaren eraberritzea kontzientziazioa eta beharra sortzeko ideiak luzatuz...

- 3.- Hirugarren galderari gagozkiolarik, 2001. urtean prozesu luze eta emankor bati ekinda, hona hemen nola zertzen den AEKren misioa:

AEKren xedea *Euskal Herria euskalduntzea* da. Xede horretara hurbiltzeko, honako hiru arlo hauetan lan egiten du:

- *Irakaskuntzan eta Formazioan*: helduentzako euskalduntze eta alfabetatze eskolak, erabileran eragiten duen metodologia berritzaile eta kalitatezkoan oinarrituz.

- *Euskararen berreskurapen eta normalizazioan*: gizarte-ko eremu ezberdinak —instituzioak, enpresak, ikastetxeak, elkarteak, gurasoak, etab.— euskararen egoera normalizatzeko bidean jartzeko.

- *Kulturgintzan*: egoera berriei erantzunez, kultura sortu eta transmititu.

Horrez gain, AEK gizartean txertaturiko herri ekimena izanik, euskararen eragile aktiboa izateko konpromisoa du. Beraz, gizarteko beste eragileekin batera euskararen aldeko jarrerak sustatu eta bultzatzen ditu euskaraz bizitzeko aukerak sortu, gehitu eta hedatu nahian.

Gure erakundea Euskal Herri osoan aritzen da, tokian tokiko hurbiltasuna bilatuz eta errealitate ezberdinetara egokituz. Euskara ikasi, landu eta erabili nahi duen ororentzat AEK-k izan behar du aukera eragingarriena haren beharrianak asetzeko.

Aniztasunean, gestiogintza demokratikoan eta partaidetzan oinarritzen gara eta kalitatea eta hobekuntza dira gure jarraibideak helburuak lortzearren.

Jakina, erronka hauen protagonista nagusiak AEK-kideok gara. Beraz, erakundea antolatu eta bideratu behar dugu, guztion integrazioa eta irakasleon garapen profesionala norabide ditugula, AEKren misioa lor dezagun.

Horretarako sei oinarrizko estrategiak abian ditugu geroztik, ekintza ezberdinen bitartez hurrengo bost urteetan, geure ikasguetako errealitate ezberdinetara egokituz, aurrerapausoak eman ditzagun. ¶



Isidro Yoldi

1.- Helduen Euskalduntze-Alfabetatzeak bide luzea egin du, eta asko eta askotarikoak izan dira ibilbide horretan eragin duten aldagaiak: demografikoak, soziologikoak, kulturalak, politikoak... Horregatik, euskaltegietako matrikulazioen bilakaeraren grafikoetako erpin bakoitzaren atzean azalpen bat dago beti; eta orokorrean, azalpen hori kanpo eragileen eskutik dator.

1995-96 ikasturtean matrikulazioek goia jo zutenetik hona beheranzko joera orokorra egon da; horregatik, gaur egun krisi hitza aipatzea ez zaigu erabat egokia iruditzen. Krisi hitzaren lehenengo adierak zerbaiten bilakaeran gertatzen den une edo epe larria adierazten du, eta hori 1995-96 ikasturtean gertatu zen, inor gutxi ohartu bazen ere. Orduetik hona beheranzko joera egon da; eta joera hori aldatzeko neurriak hartzeko garaia iritsi da. Zentzu horretan, krisi hitzaren bigarren adierak bete-betean definituko luke oraingo egoera: une erabakigarria.

Zer gertatu da, bada, azken urte hauetan? Euskarazko hezkuntza sistemak eragin nabaria izan du euskalduntze prozesuan: gero eta gehiago dira ikasketak euskaraz burutzen dituzten ikasleak. Ondorioz, gazte hauen euskalduntze prozesua hein handi batean eskolan ematen da. Aldi berean, langabezi tasa murriztu izanak euskararen behar instrumentala apaldu egin du; denbora libre gutxiago dago, eta eskaerak gero eta espezifikagoak dira.

Soziologikoki, helduei bagagozkie, hasierako motibazio integratzailearen orde, behar instrumentalek hartu dute lehentasuna. Honek hainbat ondorio ditu: batetik, euskara ikasi nahi zuten gehienek, berezko motibazioa zutenek, ikasi egin zuten, edo, gutxienez, saiatu ziren; bestetik, lehen ikasi nahi ez zutenek orain ere ez dute ikasi nahi, behar instrumentalik ez badute, behintzat. Horiek horrela, egun euskara ikasten ari direnentzat euskara jaki-

tea, agiria edukitzea, garrantzitsuagoa da euskara erabiltzea baino.

Ildo beretik, euskararen aldeko sustapena eta motibazioa lasaitu dira, eta euskararekiko konpromisoa epeldu egin da. Gizartean aldekotasun aktibotik aldekotasun pasibora pasatu gara: euskararen alde nago, baina ez eskatu konpromisorik. Hortik indiferentziara jauzi txikia dago. Neurri berean, Administrazioan ere euskarak lehentasunen zerrendan postuak galdu ditu.

Eta Administrazioaz ari garela, zer egin du urte haue-tan? Administrazioak lehen euskalduntze plana abian jarri zuenean, funtzionario andana hurbildu zen euskalte-gietara. Baina Administrazioak ez zuen aldi berean «hain-beste jende» euskaldundu nahi, eta 1995-96 ikasturtean neurriraketa sistema jarri zuen indarrean; neurriraketaren bidez, funtzionarioentzat derrigorrez gorde behar genituen aulkiak bete ondoren, ohiko ikasleentzat «kupo» bat ezari ziguten; kopuru hori gaindituz gero, zigor ekonomikoa ezarriko zitzaigun euskaltegioi. Eta halaxe gertatu zen, «berezko neurriraketa naturala» iritsi zen arte.

Zer gehiago? Ezer gutxi. Gizartean gertatutako aldaketan aurrean, Administrazioak jokamolde eta ikas-modulu zaharkitu eta zurrinak mantendu ditu, eskaera berriei erantzuteko inolako aukerarik eta laguntzarik eskaini gabe. Gainera, ez dezagun ahantz Euskal Herria hiru administrazioetan banaturik dagoela, eta Nafarroako edo Iparraldeko Administrazioen hizkuntz politikek zer mesede egin dioten euskarari bistan dago.

Laburbilduz, gizartea bilakatu egin da; beharrak eta motibazioa eraldatu dira; eta, bitartean, Administrazioak planteamendu hertsietan jarraitu izan du, askotan jokabide zigortzaileak hartuz. Horregatik, azken bolada honetan askotan entzun den baieztapen batek asko harritu eta kezkatu egin gaitu: euskaltegiok ikasleak galdu ditugu; hobeto esanda, ikasleak euskaltegiok galdu ditugu.

1995-96tik hona, zertan aldatu dira euskaltegiak? Bertako langileek 7 urte gehiagoko eskarmentua dute (batez bestekoa 11 urtekoa da); formakuntza, metodologia eta material hobekak ditugu; irakasle gehienek erabateko

dedikazioa dute... Orduan, zergatik galdu ditugu guk ikasleak? Ala ez gara gu errudun bakarrek?

2.- Lehenengo euskaltegiak zabaldu zirenetik ia 30 urte pasatu direnean, euskaltegi baliabideak, eskarmentua eta formakuntza asko aldatu dira. Helburua, hala ere, berbera da: gure herriaren hizkuntz normalizazioa erdiesteko helduak euskalduntzea. Baina, helduen euskalduntze prozesuan hiru osagai daude: ikasleak, euskaltegiak eta gizartea.

Egun, ikasle helduen motibazioa instrumentala da nagusiki: lanean eskatzen dietelako, edo lana aurkitzeko euskara jakin behar dutelako. Gutxi batzuk dira egunero ko harremanetarako euskara ikasi nahi dutelako etortzen direnak; eta horietan, gehienak gurasoak izaten dira. Ikasle gazteek, aldiz, eskolan ikasi ez dutena, edo bukatu ez dutena ikastera datoz, ia beti gaitasun agiria helburu dutela. Langabetuek, lana aurkitu bitartean egoten dira euskaltegietan; ondoren, lanposturako ezinbestekoa ez bada, ez dute jarraitzen.

Euskaltegiok helduak euskaldun ditzakegu, baina ezin dugu bermatu euskaldunberri horiek beren bizimodu euskara erabiliko dutenik. Ikerketa guztiek diotenez, oso gutxi dira euskaltegian lortutako mailari eusten diotenak, gehienek euskaraz bizitzeko ingurune egokirik ez dutelako. Beraz, hor dago erronka: erabilera. Eta euskaltegiok ere badugu zeregina euskararen erabilerarako bidea prestatzen. Baina, ez guk bakarrik. Erabilera gizarte osoari dagokio, eta eginkizun horretan Administrazioaren eta gizarte eragileen lankidetzak ezinbestekoa da.

Euskararen beharra gizartean barneratzen ez den bitartean, euskararen aldeko diskriminazio positiboa bideratzen ez den bitartean, euskara ikasle helduek beren ahalginari saria aurkitzen ez dioten bitartean, euskaltegiok nekez lortuko ditugu euskaldun osoak. Baliabideak, prestakuntza eta metodologia egokiak izanda ere.

3.- Euskaltegi baliabideak helburu nagusia helduak euskalduntzea eta alfabetatzea da. Baina, gure helburua euskararen normalizazio prozesuaren baitan ulertu behar da, bere osotasunean

alegia. Horregatik, euskaltegiok prozesu horren katebegi bat gara, transmisio-uhalaren osagai bat, gainontzekoekin batera elkarlanean aritu behar dugunok. Eta horixe da euskaltegiok behar dugun lehenengo gauza: gure eginkizunari behar duen aitortza eskaintzea.


Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Planak helduen euskalduntze-alfabetatzea lehenetsuneko arloa dela dio. Administrazioaren euskalduntze planak bideratzeko ezinbestekoak gara. Lan munduan, hezkuntzan eta beste hainbat arlotan erabilera planak gauzatzeko gure lana beharrezkoa da. Hala ere, Administrazioak Helduen Euskalduntze-alfabetatzea bere buruaz eta bere lehiakortasunaz baliatu behar duen enpresa pribatu lez ikusten du; eta, horrez gainera, merkea. Aurrera begirako bere planetan beste edozein hizkuntz akademiak dituen baldintzetan kokatu nahi gaitu, eta finantziarioa herritarren poltsikotik lortu beharko dugu.

Argi dago zer behar dugun euskaltegiok: gure lanaren aitortza. Euskal Herrian helduak euskalduntzea ez da zerbitzu-enpresa baten eginkizuna. Euskara euskaldunon hizkuntza izango bada, euskara eskubidea bada, normalizatutako gizarte bat nahi badugu, dudarik ez dago euskaltegiok funtzio garrantzitsua bete behar dugula, hezkuntza arautuak bete behar duen bezala.

Baina hori ez da nahikoa. Euskararen normalizazioa erdiesteko gizarte eragile guztien inplikazioa behar da, eta horretan ere Administrazioak badu zeregina. Euskararen sustapen politika egokiak abian jarritz, euskara gizartearen eremu guztietara hedatu behar da: irakaskuntzan, lan munduan, aisialdian... Zeregina egon badago, baina benetako borondaterik dagoenik ez dugu uste.¶

Egunen

gurpilean



kultura • 95

Notizia sasoia • Bianako Printzea, kolokan • Euroak bikoiztu

JOSEBA BALERDI



literatura • 101

Kulturaren Euskal Plana

- Euskal Kulturaren Oinarriak ezarri nahian
- Literaturgintzari dagozkion egitasmoak
- Idazle izaten ikasi • Gizonezkoak emakumearen larruan •
Berria eta Susaren lan eskerga

LAURA MINTEGI



soziolinguistika • 106

Fishman-en 'RLS'-a edo 'INBE'-a gurean zertan den

- EAEko 1991-2001 hamarkadako argi-ilunak
- Fishman-en 'RLS'-a edo 'INBE'-a eta gizarte aldaketaren
ikuspuntua

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA




telepolis • 112

Alegiazko gerrak mobilizaziorik ez • Mobilizazio errealik eza

- Telebista generoa ote? • Nahiago dugun gizartearen isla
- Diputazioak, hard; Jaurlaritza, soft
- Enpresen lurralde-mugikortasuna

AMATIÑO



Notizia sasoia

Udara albistetan oparoa ez dela izaten esaten dutenentzat, aurtengoan argi ikusi dugu hori ez dela derrigorrez beti horrela izaten. Lau diputazio Euskal Herriaren hegoaldean, eta lauretan agintari kultural berriak. Alajaina! Hori notizia ez bada, zer da ba?

Verasategui, Greaves, Agote eta Corpas. Lau izenak ezezagunak publiko handiarentzat, baina kultura munduan —eta bereziki politika munduan— dabiltenentzat ez erabat arrotzak. Batzuk beste batzuk baino gehiago, hori bai. Gipuzkoako Kultura kontuez arduratuko den Imanol Agoteri aitortu behar zaio urte asko eman dituela mundu horretan, eta aitortu behar zaio, baita ere, euskaraz badakiela, herri honen ondare eta altxor kultural nagusia omen den euskara menderatzen duela. Verasategui ez dakit badakien ala ez, baina ziur nago Ramon Rabanerak ez duela faktore hori kritikotzat jo euskalduna zen Sancristoval ordezkatzeko (ze mania, aizue, «V»-a erabiltzeko, Arabako kultura diputatuek!). Bizkaiko Belen Greaves komertzio kontuetan aditua dugu, funtzionario zintzoa, eta politikari leiala, sailburuordetzatik sailburutzara ere salto egindakoa (Ajuria Eneko mahaian tokia izan zuena alegia), baina itzulera bidea ere erabateko diskrezioz egindakoa. Nik uste Jaurlearitzan ardura nagusietara heldu zenean, noiz edo noiz zerbait entzun niola euskaraz, baina nire ingurukoek ezetz diote. Jendaurrean behintzat ez duela erabiltzen, eta noizbait erabiltzen baidu, irakurrita eta trakets. Sinetsi ezinik nago, baina eman diezaiogun aukera bat (ehun egunetako epea agortzeaz dauka) bizkaitarren hizkuntza zaharra menderatzen duen jakiteko ala ez. Juan Ramón Corpasek berriz, ez daki euskaraz, baina bere aurrekoak ere ez. Nafarroako Bianako Printzearen Erakundearen buru izatetik, Gobernuo kultura kontseilaritzara «igo» du Corpas Sanzek, eta lehen

ehun egun famatu horietan, garai batean Nafarroako kulturaren zeinu izandako Bianako Printzearen Erakundea bera desegitea erabaki du, nahiz eta sortutako zalaparta ikusi ondoren, pittin bat atzera egin. Badakizue, bultzada hobea hartzeko atzerapauso horietako bat izan da. Ez dakit zer esango zuketean Barandiaranek, Estornesek edo Sastrustegik Corpas medikuaren asmoak eta ekinak ezagutu balituzte, baina hil ziren horiek guztiak, eta gaur egun ahots kritiko gutxi gelditzen da.

Bianako Printzea, kolokan

Carlos Bianako Printzeak hil ondoren ere ez du atsedetik hartu. Orain urte batzuk, bere ama Blanca Nafarroako erreginarenak omen ziren gorpuzkin batzuk aztertu zituzten, DNA froga eta guzti, Nafarroarako bidean Gaztelan hildako erregina izan ote zitekeen konbentu batean agertutako gorpua.

Poblet-en, Katalunian omen dago hilobiratua Carlos, eta haren gorpua omen zenari ere hartu zizkioten DNA aztarnak —detailtxo txiki bat kontuan hartu gabe: Carlosen hilobian gutxienez hiru pertsona ezberdinen hezurak agertu baitziren, eta inork ezin zuen ziurtatu hiru haietako bat Carlos bera ote zen, Blancaren semea. Kontuak kontu, azterketak ez zuen emaitzarik izan, nahiz eta zalaparta handia sortu, eta ez genuen jakin Blancaren gorpua ote zen Gaztelan agertutakoa, eta Pobleten geneukan printzearen inguruko mitoa ere zertxobait desegin zen. Kontrakoa uste arren, mitomanoak baikara oso inguru hauetan.

Bianako Printzea Erakundeak bultzatutako —eta ordaindutako— ikerketa izan zen hura. Nik uste Alli presidente zela egindakoa. Detailtxo bat besterik ez da, baina honelakoak ere egiten zituen Erakunde horrek, honelakoak eta askoz sakonagoak. Ez dago orain esaterik, baina nork daki zenbat azterketa historiko sor zitezkeen istorio bitxi horretatik abiatuta, Nafarroako eta Euskal Herriko historian sakonduz. Bianako Printzea, badakizue... agramonda-

rren eta beaumontarren arteko gerra zibila, Nafarroa Beherea... euskal historia hitz batean.

Erakunde horren ardurapean egon da, azken 34 urteetan, *Fontes Linguae Vasconum. Studia et documenta* aldizkaria, eta etorkizunean zer gertatuko den ez daki inork argi esaten. Desagertu? Ohitzen hasita gaude Euskal Herrian: modu batean edo bestean, argitalpenak murriztea normala iruditzen hasi zaigu. Ikusiko dugu zer gertatzen den, baina adi egon beharko da.

Carlos printzea hilobiratua omen dagoen Poblet inguruetan ibili naiz aurten, eta historiaz gutxi, baina gizarteaz eta hizkuntzaz asko ikasi dut. Katalunian katalanaren aldeko opzioa argia da. Katalana, eta ondoren batzuetan gaztelania, eta beste batzuetan ingelesa (gaztelaniarik gabe ere bai). Eta inor ez da harritzen, edo harritzen bada, inork ez du aurpegi txarrik jartzen. Normalena baita herri batek bere hizkuntza erabiltzea.

Izan ere, eta fenomeno kuriooa da hau, jarrera oso ezberdinak hartzen ditu kontu jakin baten aurrean gizarteak, gobernuan segun eta nor dagoen. Nafarroan jarraituz, sozialisten garaian, egun batean bai eta hurrengoan ere bai, protesta eta manifestazio ugari izaten ziren hizkuntza politika zela-eta. Eskuina gobernura iritsi, eta ez dut esango besoak gurutzatuta, baina gizarteak nolabait etsi egiten du, eta errealitatea desitxuratzen du, ba baitirudi askoz ere okerragoa den hizkuntza politika baten aurrean oposiziorik ez dagoela. Lotsagabe egiten dituzte gauzak —azkenekoak Iruñeko udalean— eta lotsagabearen aurrean arma dialektikorik gabe gelditzen gara itxuraz. Edukatuegiak, nonbait, gu geu ere lotsagabe aritzeko.

Euroak bikoiztu

Eusko Jaurlaritzak berak aitortu du. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik kanpo euskara sustatzeko 300.000 bat euro omen dauzka aurten Azkarate andrearen sailak (ez da urrutira iritsiko 300.000 eurekin, baina tira!), eta aitortu berri dute Nafarroan ezer egiterik ez dagoenez (hango

Gobernuaren jarrera tarteko), diru hori gehienbat Iparraldera bideratuko dela. Mama goxoa Iparraldearentzat. Diru gutxi edo asko, nolanahi ere, esan beharra dago —eta aitortu beharra dago— Azkarate andrearen sailak diru hori bikoiztea lortu duela, Akitaniako erregioarekin eta Piriinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiarekin lortutako hitzarmena bitxia baita oso: Eusko Jaurlaritzak Iparraldean euskara sustatzeko jartzen duen euro bakoitzeko, hango erakundeek (ezin Iparraldekoek esan, ez dago-eta horrelakorik) beste euro bat jarriko dute. Alegia, Jaurlaritzak 300.000 euro horiek Iparraldera bideratzen badituzte, beste 300.000 jarriko dituzte frantziarrek. 600.000 euro Iparraldean euskara sustatzeko. Ez dakit negoziazio lanean nor ibili den, baina ez da negoziatzeko modu kaxkarrara.

Jaurlaritza, bitartean, Kulturaren Euskal Planean buru-belarri sartuta dabil. Eta hainbat gunetan debate interesgarriak ari da sortzen plan hori, gainera. Jaurlaritzak berak web orri bat ipini die «plana landuko duten lantaldekideei», euskaraz eta gaztelaniaz bakarrik, eta bertara sartzeko derrigorrezkoa da pasahitza. (Komunikazioa asig-natura aprobatzeko bide luzetxoa gelditzen zaio Eusko Jaurlaritzari oro har: Kultura saila izango da, pasahitzak pasahitza, aprobatu gabe ere aprobazetik gertuen dabile-netakoa). Horrela gertatzen da Google bilatzailean bilaketa egin eta *El Correo* egunkariaren web guneak oso-osorik eskaintzen dituela orain arteko eztabaidarako txostenak. Eta horixe dela bilatzaileak eskaintzen duen lehen esteka. Badu bere grazia eh?

Nolanahi ere, Kulturaren Euskal Plana aurkezterakoan Ibarretzek berak eta Azkarate andreak esandakoak kon-tuan hartuz, adi jarraitu beharko zaie planaren gorabehe-rei, plan erraldoi guztiek duten arrisku berbera baitu ho-nek ere: alegia, gero praktikara ezin eramana, edo prakti-kara eramateko zailtasunak izatea. Gaztelaniaz badute esaera honelako planek izaten duten arriskua definitzeko: «*Quien mucho abarca...*». Dena barruan hartu nahiak gorabehera hauek izaten ditu, baina zerbait kanpoan ahazteak ere baditu bere arriskuak.

Gauzak honela, ez du inork esango uda ez dela notizientzako sasoi egokia. Politika kontuez gain, kulturaren munduarenak gehiago diren beste hainbat ikuskizun ere izan delako. Denen artean, Donostiako Musika Hamabostaldian gelditzen naiz ni, nahiz eta kontzertu gogokoe-tarako inoiz sarrerarik ez lortu. Baina hori nire arazoa da. ¶

Kulturaren Euskal Plana

Udazkenak itsaso bete egitasmo dakar, ez soilik politikaren eremuari dagokiola, baizik eta kulturaren arloan ere bai. Egitasmoetatik garrantzitsuena, agian —bai duen bolumenagatik baita hurrengo urteetan izan dezakeen eraginatik ere—, Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Kontseiluak aurkeztu behar duen «Kulturaren Euskal Plana» dugu (www.kulturareneuskalplana.net).

Urtebetez lauhun pertsona inguruk 19 txosten burutu dute Euskal Kultura definitzeko eta bultzatzeko asmoz. Lan mardula, egiatan, baina desigoala bere emaitzetan, txostengile batzuek lan sakona egin duten bitartean, beste batzuek Pelloren egien zerrendatzeari ekin baitiote. Txostenen abiapuntua ere desigoala izan da, lantalde batzuk EAEren eremuan murgildu diren bitartean, besteek, Euskal Herri osoa hartu dutelako aztergai. Eta, azkenik, desigoala izan da lantaldeek irudikatu duten egoera sozio-politikoak, batzuek oraingo egoera estatutarioan kokatu dutelako lana, eta beste zenbaitek, ordea, beharizanak eta soluziobideak egoera sasi-independente batean irudikatu dituztelako.

Hasieran azaltzen diren Oinarrizko Irizpideetan hiru egilek hartu dute parte bereziki, Ramon Zallo, Iñaki Lopez de Eguileta eta Anjel Lertxundik, baina, esan bezala, ehunka batzuek isuri dituzte beren irizpideak, inplikazio maila ezberdinez.

Proiektu honen berri Ibarretxe lehendakariak 2001eko uztailaren 11n eman zuen, kargua hartzearekin batera emandako hitzaldian, eta abian jartzeko urtebete behar izan zuten. 2002ko maiatzean Jaurlaritzak hautatu zituen kultur eragileek otsailerako burutu zituzten beren txostenak, eta joan den maiatzaren 28an bigarren faseari ekin zitzaion. Pasa den uztailaren 15erako azken konklusioak aurkeztu behar zituzten, eta irailaren 15ean amaitutzat eman behar zen dokumentu osoaren azken erredakzioa.

Euskal Kulturaren Oinarriak ezarri nahian

Nolanahi ere den, aintzat hartzeko moduko lan garrantzitsua dela pentsatu behar dugu, alde batetik, instituzioen aldetik borondate sendoa sumatzen delako (honetaz, irakur bedi Iñaki Uriarte arkitektoak abuztuaren 21ean *Gara*-n argitaratu zuen kritika gogorra) eta, bestaldetik, lan guztien oinamian filosofia orokor eta komuna antzeman daitekeelako. Egia da lantaldeen joera izan dela goieneko egoera ideala irudikatzea, eta oraingo egoeratik ideal horretarainoko tartea handia —handiegia— izan daitekeela zenbait arlori dagokiola, baina ez da txarra izatez, bidearen luzea izan arren, helmugak argi ziriborratzea.

Filosofia orokorra izan omen da Euskal Kulturaren e remua nazioarteko arloan finkatzea, espezializazioa eta osagarritasuna uztartuz. Identitate kultural kolektiboak bultzatu nahi dira, gizateria osoak islatuta ikus dezan bere burua proiektuan. Legealdien gainera iraungo duten plan estrategikoak jarri dira martxan. Populismoa zein eruditismoa saihestu nahi dira, eta kulturaren kontsumitzaileen e remua zabaldu nahi da, ohiko profiletik (klase ertaineko 30-40 urte bitarteko hiritarra) baino harantzago hedatuz. Azkenik, mestizajearen aldeko aldarrikapen esplizitua egiten da, gizarte elebi/hiruduna dela bistatik galdu gabe.

Izan ere, egitasmu handinahia izanagatik ere, beharrezkoa da hausnarketa sakona eta gerorako proiektzio serioa egitea, nahiz eta batzuentzat luze eta askorentzat labur geldituko den. Bestalde, kontraesanak ere eduki badauzka; hala nola erakundeekiko dependentzia eza aldarrikatzea eta, aldi berean, erakunde publiko ugariaren sorrera aurreikustea. Edo eta esfortzu ekonomikoaren beharrezana azpimarratzea, eta Plana sostengatuko duen aurrekontuaren berri —ezta aipamen txikiena ere— ez agertzea. Kontraesanen artean funtsezko bat aipa genezake: gizarte elebidunaren arriskua bi komunitateen haustura denez gero, arriskua ekidin nahiak egileak bultzatu ditu esatera euskal idazlea dela bi hizkuntzetatik edozeinetan idazten duen egilea. Eztabaida hori, ordea, gaindituta behar luke aspaldian: gauza bat da euskal idazlea (euskaraz idazten duena), eta beste

bat, oso bestelakoa, idazle baskoa (euskara ez den beste hizkuntza batean idazten duen eusko hiritarra). Politikoki zuzen jokatu nahiak honelako kontraesanak sor ditzake.

Literaturgintzari dagozkion egitasmoak

Bigarren arloari dagokion «Sormen eta Espresio Artistikoa» txostena Luisa Etxeniketik eta Anjel Lertxundik burutu dute. Egileen prestutasunak nolabaiteko bermea ematen dio lanari, eta esaten den gauza asko ezaguna izan arren, interesgarria da diagnostikoaren ondorengo proposamen zehatzen zerrenda ikustea. Egileen iritziarekin ehuneko ehunetan bat ez gatozen arren (batez ere, aurkezpeneko hainbat balorazioarekin), oro har bat etor gintezke praktikan jarri beharreko neurriekin.

Azpitarratzekoa izan daiteke Liburuaren Aholku Batzordea sortzeko aurreikuspena, zeinek Administrazioari zein literaturgintzari ari diren eragileei proposamenak helaraziko lizkiekeen. Formazio Bekak eta Sormen Bekak eratzea ere proposatzen dute eta argi esaten dute bereiztekoa dela liburuari ematen zaion laguntza eta egileari ematen zaiona, gaur egun nahasmendu dezente baitago arlo horretan. Azkenik, eta laburtzearen, Literatur Sorkuntzaren Euskal Gunea sortzeko ideia plazaratzen dute, munduan diren Idazlearen Etxea moduko bat hain zuzen. Bestalde, Euskal Idazleen Elkartearen askotan aipatu izan dugun ekimena ere aipatzen dute egileek, Goethe edo Cervantes Institutu moduko bat (Axular edo Etxepare Institutua alegia) eta beraren korrespondentsaliak sortzea munduan zehar, euskal literatura ezagutzera emateko eta, batez ere, beste hizkuntzetara zuzenean itzuliko duten itzultzaileak prestatzen laguntzeko.

Idazle izaten ikasi

Udazkenak ekarriko dizkigun egitasmoen artean, Euskal Idazleen Elkarreak, Eusko Ikaskuntzak eta UNEDek buru-

turiko proiektua aipatuko dugu, udan zehar haren berri eman bazen ere, datorren ikasturte honetan jarriko baita martxan lehenengoz. Idazle Eskolaz ari gara, luxuzko hiru irakasleren esku: Tere Irastortza, Jon Alonso eta Koldo Izagirre.

Asmoa omen da bi urtetan 300 ordu eskaintzea, gehienak presentzialak larunbatetan Bergaran, eta ordu gutxi batzuk interneten bidez. Lizentziatuak diren ikasleek, gainera, graduondoko titulua eskuratuko lukete.

Idazle izaten irakatsi ezin bada ere (zer idatzi) idazteko teknika bai ikas eta irakats daiteke. Idazle berriak sortzeko balioko duen ala ez alde batera utzita (zergatik ez), irakurle arituak sortzeko balio izango du bederen. Ez da helburu txarra, idazlearen lehen premisa irakurlea izatea dela jakinik.

Gizonezkoak emakumearen larruan

Irakurleaz ari garela eta, irakurle on baten liburua aipatu nahi nuke hemen, Inma Erreak argitara eman berri duen *Literatura eta harrikoa* hain zuzen.

Erreak modu pertsonal eta atseginean heldu dio ziklikoki plazaratzen den gaiari, gutariko askorentzat beti presente (gustuz ala inposturaz) dugun gaiari: emakumearen eta literaturaren arteko erlazioari. Gaiiaz blai egon arren, beti ikasten da zerbait berri, eta liburu honek, gainera, hausnarketa egitera bultzatzen gaitzake.

Liburu honen irakurketaren harira, bi gauzez ohartu naiz berriki. Bata da idazle gizonezko sentiberenak ardura berria agertzen hasi direla, eta sexu-ereduen krisia ez dela, dagoeneko, emakumeen ardura soilik. Euren nobeletan lehenik, eta prentsarako elkarrizketetan ondoren, pertsonaia maskulinoek pairatzen duten maskulinitatearen krisiaz mintzatzen dira, sexuen arteko harremanez orain artekoa ez bezalako ardura adieraziz. Askotan ez dakite argi zer gertatzen zaien. Eszeptizismoa adierazten dute, edo inpotentzia edo inkredulitatea, pausoa aldatuta harrapatuak izan balira bezala. Saizarbitoriak aspaldidanik, Jon

Alonsok eta Aingeru Epaltzak berriki (*Argia*, 1902. alean) lotsarik gabe aitortzen dute beren pertsonaia maskulinoak deseroso daudela rol sexuatu tradizionalan, eta hainbat egoeratan nola jokatu ez dakitela.

Bigarren gauza izan da ohartzea gure zenbait idazle gizonezko beldurra kendu diotela pertsonaia femeninoetan sartzeari, eta protagonista bera ere emakumezko sortu dute. Emaizta, zoritxarrez, ez da oso ona izan. Nirekiko nago ez dutela asmatu tonuarekin. Esfertzua egin arren, Irene (Atxagaren *Zeru horiek*), Maribel (Sarrionandiaren *Lagun izoztua*), Miren (Saizarbitoriaren *Kandinskyren tradizioa*) eta Lertxundiren izenik gabeko neskatoa (*Zorion perfektua*) ez dira sinesgarri suertatzen.

Ez da emakume bat entzuten, ez da emakume bat sentitzen pertsonaia horiek irakurtzean. Egile gizonezko hauek nekez lortuko dute azken aldian plazara atera diren emakumezkoen pertsonaia femeninoen indarra eureganatzea (Ana Urkiza, Miren Agur Meabe eta Sonia Gonzalez ditut buruan), baina ulertzekoa da. Haien kasuan pertsonaia femeninoa lan intelektualaren emaitza den artean, emakume hauek pertsonaia katartikoak eratu dituzte, esperientzia metatuaren eta nork bere buruarekin egindako «kontu ajustearen» indarra dutenak. Pertsonaia hauek bame-borrokaren emaitza dira eta azala urratua eskaintzen zaizkigu, gordin, sinesgarri, haragizko, nahiz eta garaile ez atera gerra intimo horretatik. Edo horrexegatik, hain zuzen.

Berria eta Susaren lan eskerga

Artikuluari ez nioke amaiera eman nahi *Berria* eta *Susa* aipatu gabe, euskal literaturaren alde egiten duten lan maridul, interesgarri eta eskergatik. Ezinbesteko erreferentzia dira gaur egun euskal literaturaren nondik norakoa jakin nahi duen edonorentzat.

Berria-k arreta berezia eskaini izan dio beraren zutabegile plantilari eta benetan plazerra suertatzen da literatur orrialdeak irakurtzea. *Egunkaria* itxi zutenean kulturgi-

leek orokorrean eta idazleek zehazki adierazi zuten elkar-tasuna ez zen hutsean gelditu. Adierazitako konpromiso haren gauzatze praktikoa egunez egun ikus dezakegu *Berria*-ren orrietan. Inplikazio pertsonala eta sostengu ideologikoa antzeman daitezke.

Susa aspaldidanik da txalotzekoa. Hainbat testu zahar zein berri ari da jartzen sarean, sistematikoki, bai eta literaturari buruzko iruzkinak ere. 2003ko uztailaren erdialdera arte 127 iruzkin sartu ditu beraren web orrian edozeinen eskuragarri. Beste alde batetik, astero-astero emailuak bidaltzen ditu, euskal literaturaren historia garaikide txikia handi agerraraziz. Chapeau.

Susaren iruzkin zerrenda ikustean, gauza bat suertatzen da deigarri: zenbat egile, zenbat liburu, zenbat iruzkingile, baina batez ere, zenbat prentsa-idatzi ezberdin dagoen artikulua horiek guztiak argitaratuak izan ahal izateko! Horrek eman dit ezuste ona. ¶

Fishman-en 'RLS'-a edo 'INBE'-a gurean zertan den

Euskararen 'corpus'-a nahiz 'status'-a ari direla aldatzen askoren ahotan dabilen kontua da. Halere, uste horrek ez luke zertan harrigarria izan behar, hizkuntza bat aldioro aldatuz doa eta.

Aldi hau, alabaina, ezberdina da; izan ere, getarazi nahi dugun aldaketekin Reversing Language Shift (RLS) edo —Mikel Zalbideren itzulpenean— Hizkuntza Indar-Beritzea (INBE) dugu jokoan. Hau da, azken urteotako euskararen higatze eta baztertzetik, indarberritze eta hedatze batera igarotzea bilatzen ari gara. Eta norabide aldaketa hori zenbaterainokoa eta nolakoa den du hizpide euskaltzale orok.

Miren Mateok, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren koordinazio-zuzendariak, esate baterako, modu honetan laburbiltzen zuen hizkuntz aldaketa hori Azpeitiko Euskara Patronatuaren webgunean (www.erabili.com):

Aldaketa sakona euskaldunen kolektiboaren ezaugarrietan, euskaldun zaharren kopurua pixkanaka jaitsiz doalako, euskara bigarren hizkuntza duten gazte elebidunen kopurua ugaritzearen ondorioz (gazteen artean euskaldun berrien kopurua euskaldun zaharrena baino handiagoa da). Bi kolektibo horien ezaugarriak oso desberdinak dira, euskaraz edo gaztelaniaz mintzatzeko orduan duten gaitasunaren edo erraztasunaren ikuspegitik zein beraien familiako, gizarteko (eta laneko) harreman-sareetan dagoen euskaldun-dentsitatearen ikuspegitik. Desberdintasun horiek izugarri baldintzatzen dute kolektibo horien hizkuntza-erabilera. (Mateo, 2003-06-04)

Aldaketa sakon horien oinarrian dauden hainbat datu aurkeztu eta azaltzeko parada izango dugu hurrengo lerroetan.

EAEko 1991-2001 hamarkadako argi-ilunak

Has gaitezen, 2001eko zentsuko informazioan oinarrituta, Eustatek joan zen uztailen kaleratu zuen zenbait informazio interesgarri —eta, batzuetan, harigarri— ikusten.

1991tik 2001era bitartean EAEn estatistikoki euskalduntzat jotzen direnak 543.617 izatetik 656.980 izatera igarodira; hau da, 2 urte eta gehiagoko biztanleriaren (bestotako umeak-eta ez baitira hizkuntza aldetik kontuan hartzen) %26,2tik %32,3ra. Datu deigarri bat: EAE osoan euskaldunen hazkundera sei puntukoa izan den bitartean, Araban puntu eta erdi handiagoa izan da: 8,6tik 16,2ra bitartekoa, hain zuzen.

Euskaldunen ugaritze hori albiste pozgarria da, dudarik gabe, baina era berean itzal ilunak izan ditzakeena. Goazen, bada, gure kezkek azaltzera.

Jakina da euskara ikasteko bi bide nagusi daudela: gurasoengandik jasoz edo etxetik kanpo ikasiz (hezkuntza sistemaren bidez nahiz gau eskoletan). Baina, ume eta gazteen gaineko ikerlanek agerian utzi dute euskara erabiltzeari gehien eusten diotenak, familian ikasi dutenak direla; horrezaz gain, ikastetxeetan ere euskaraz ikasi badute, hainbat hobe! Gainontzeko kasuetan, hau da, euskara eskolan —baina ez familian— ikasi dutenek erabileraxuagoa dute (edo ez dute batere erabiltzen).

Horren zergatia begi bistakoa da: erdal munduaren indararen aurrean, soilik euskararen munduan nahikoa murgilduta hazi direnek lortzen dituzte erabilerarako beharrezkoa diren gaitasuna, bat-batekotasuna eta ohitura. Eta, gainera, beste oinarrizko baldintza hau ere inork baino hobeto betetzen dute etxean euskaldundu direnek: euskaraz egin ohi duten pertsonekin harreman ugari izatea (familia artekoekin nahiz lagunekin).

Tamalez, EAEko etxeetan euskara ikasi dutenak (euskaldun zaharrak deitu ohi ditugunak) urriagoak dira 2001ean 1991n baino, epe horretan euskaldun mota horretakoak 431.806tik 415.623ra jaitsi baitira. Puntu hau argitze aldera, esan behar da lehen edo ama hizkuntza euskara dutenak (euskaldun zaharrak) soilik Araban hazi

di rela (8.038tik 10.295eraino); Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, mota horretako euskaldunek behera egin dute. Hona hemen joera bereiztu horren funtsa: azken lurralde hauetan hiltzen ari diren adineko belaunaldi euskaldun petoak, Arabako lur gehienetan bizpahiru belaunaldi lehenago desagertu ziren.

Galera horren ordainetan —edo berau partzialki estaltzeko, behinik behin—, lehen edo ama hizkuntza euskara eta gaztelania —biak batera— dituztenak 75.325etik 87.012ra pasatu dira 1991-2001 aldian. Eta, orain bai, joera hori bera EAeko hiru lurraldeetan errepikatzen zaigu.

Horren ondorioz, egungo (2001eko) euskaldun guztietatik %76k euskara dute ama hizkuntza bakartzat, 1991n %93 zirelarik.

Euskaldun adindu horien desagerpenak kalte handia ekarriko dio euskararen erabilerari, hala 'corpus'-ean nola 'status'-ean. Euskararen 'status'-ari erreparatuta, hona hemen desagerpen horrek dakarren ondorio txar bat euskararen transmisiorako: 1991-2001 aldian etxean euskara baino erabiltzen ez dutenak 290.329tik 284.084ra jaitsi dira, EAeko zentsuaren arabera. Zorionez edo, Araban kontrako joera nabarmentzen da, denbora tarte berean etxean soilik euskaraz egiten dutenak 3.616tik 5.504ra igaroz.

Eta lehen edo ama hizkuntzarekin gertatzen zen bezala, EAEn euskara eta erdara, biak batera, etxeko hizkuntzatzat dutenen kopuruek gorantz egin dute hamar urteko epean: 169.654tik 175.157raino (igoera hori ere hiru lurraldeetan gertatuz).

Antza denez, euskaldun gehiago izatearen ordainean bat haxe da: lehenagoko etxeko (euskarazko ala erdarazko) elebakartasuna elebitasun bihurtzea.

Gabeziak gabezia, euskaldunen euskara erabilera zertxobait ari da areagotzen, antza, EAeko eremu batzuetan, bederen. Horrelako joeraren berri, eremuz eremu aztertuta, *Euskararen Jarraipena III. Euskal Herriko soziolinguistikako inkesta 2001-ek eskaintzen digu:*

Erabilera publikoa: bat eta lau puntu artean igo da lankide, dendari, seme-alaben irakasle edo estatuko administrazioarekin, nahiz banketxe, udal bulego edo osasun

zerbitzuetan. Ezin da ahaztu, alabaina, jaitsiera ere kasu batean gertatu dela, ertzainekin hitz egitean alegia.

Familia/lagunarteko erabilera: familia arteko harremanetan gorabehera txikiak dira nagusi, batzuetan gorantz eta besteetan beherantz, eta hortik ondoriozta daiteke egoera egonkortua dela. Lagunartean, bestalde, badago bi puntuko igoeratxo.

Ikerlan horren datuak behin ustiatu eta gero, hona hemen txostenean bertan agertzen zaigun deskribapena: «Azken hamar urteetan, erabilera publikoak gizarte-erabilerak edota etxeko erabilerak baino gehiago egin du gora.» (www.euskadi.net/euskara_inkestak/).

Azaldutako datuetan, bi aldaketa antzeman daitezke: a) poliki bada ere, euskararen komunitatea mugitzen eta aldatzen ari da (aldaketa horien balorapenean ez gara murgilduko); b) euskarak azken mendeetan familia izan badu transmisio eta erabilera eremu, egun, funtzio horietan familiak duen eragina ahulduz joan da.

Euskararen ondorengotaratzeari edo transmisioa irakas-sistemak ere hartu du bere gain, batzuetan, familiarekin batera, eta, besteetan, bakarka. Hori ez ezik, familia osatzen duten bikote mistoak (bikoteko bat euskalduna denean, baina bestea ez) ugaritu zaizkigun arren, bikotekide horietatik euskara dakiten gehienek euren umeei euskaraz egiten diete.

Baldintza horiekin guztiekin, familiaren baitako euskara erabilerak aurrera egin ez duen arren, euskara eremu publikoetan ari da aukera berriak aurkitzen. Horretan, hizkuntza normalkuntza eta plangintza saioen eragina begi bistakoa da aurrera egite horretan edo, gutxienez, arrazoi demolingüistikoengatik familian galtzen ari dena 'kalean' irabazteko.

Fishman-en 'RLS'-a edo 'INBE'-a eta gizarte aldaketaren ikuspuntua

Euskarak pairatzen dituen aldaketak hain nabarmenak izanik, gertaera horiek ezin dira gizarte aldaketaren teo-

riatik aztertu? Jakina da, batetik, zientziaren paradigman teoriak duen zeregina funtsezkoa dela, eta, bestetik, asko di-rela zientziaren funtzio eraldatzailea aldarrikatzen duten zientzialariak. Hori horrela, zergatik ez aztertu hizkuntza baten egoera aldatzeko ahaleginak gizarte aldaketaren teoriaren argira?

Fishman-ek espresuki ukatu ditu 'RLS' edo 'INBE' planteamendua gizarte aldaketaren teoriarekin harremanetan jartzeko gonbidapenak:

I have sometimes been asked why RLS is so little related to the general theory of social change. My first answer has been that RLS recognises democratic responsibility for cultural self-determination by minorities, whereas social change theory has ignored any moral responsibility toward those who suffer as a result of social change. My second answer has been that social change theory views modernisation as an inevitable universal and ubiquitous process that pertains to all of culture, whereas RLS attempts to differentiate between faster and slower moving sectors of change and to foster greater self-regulation of the latter for the purposes of language-and-identity retention. Both of these differences are important for a general theory of RLS. RLS is applied to individual cases of threatened languages on the basis of a general theory derived from an examination of many diversified individual cases (immigration, conquest, exile, genocide, commercial domination, spread of innovation and superior knowledge, etc.). (Fishman, 2001, *Can Threatened Languages Be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*, Clevedon-Buffalo-Toronto-Sydney, Multilingual Matters, 462-463 or.)

Atrebentzia handia bada ere, zintzotasunak bultzatzen gaitu Fishman-ek emandako arrazoi batzuekin ditugun zalantzak aipatzera. Dudan jartzen dugu, adibidez, egile horren ondoko iritzia: gizarte aldaketaren teoriari gizarte aldaketaren ondorioak pairatzen dituztenen sufriemenduen gaineko axolarik eza egozten diona; edota modernizazioa gizarte aldaketaren teoriak kultura guztiei dagokien ezinbesteko, nonahiko eta edonongo prozesutzat hartzen duela dioena. Hori guztia asko esatea dela sus-

matzen dugu, gizarte aldaketaren teoria oso zabala izanik, ikuspuntu askotatik jorratzen baita. Horrezaz gain, 'auto-determinazio kulturalaren eskubidea erabiltzeko gutxiengo erantzukizun demokratikoa RLSk onartzea', ez da arrazoi nahikoa RLS planteamendua gizarte aldaketaren baitan ezin dela aztertu esateko.

Dena den, Fishman-ek duen iritziari eusteko arrazoiak eztabaidatzea baino, hemen 'RLS'-a edo 'INBE'-a gizarte aldaketaren teoriaren ikuspuntutik ere aztertzea —azaletik bada ere— aberasgarri eta lagungarri gerta daitekeela iradoki nahiago dugu.

Abiapuntua gizarte/hizkuntza binomioa dugu; hau da, hizkuntzalaritza eta soziolinguistikaren hastapenetan ez bezala, egun, hizkuntza gizartearen funtsezko elementu bezala ulertzen da —eta ez soilik gizartearen ispilu gisa—. Autore askok hizkuntza/gizarte binomioaren bi osagaiak (gizartea eta hizkuntza, alegia) elkarri eragiten diotela defendatzen dute, neutroa den hizkuntzarik ez dagoelako.

Hizkuntza/gizartea binomioaren bi elementuak hain loturik egonda, bidezkoa zein gomendagarria dirudi hizkuntza baten aldaketak gizartearen aldaketa aztertzen duen teoriaren baitan aztertzeak.

Lerro hauetan, baina, ez dugu planteamendu horretan sakontzeko tarterik; beste batean izan beharko.¶

Alegiazko gerrak mobilizatorik ez

Gerra eta defentsa militarra dira, besteak beste, nazio-estatuaren berebiziko muina eta, hain zuzen ere, globalizazioaren topikorik sinesgaitzenetakoa nazio-estatu horren gainbeherakada da. Besterik uste, nahi, itxaro edo aldarrikatu arren, ez dirudi gaur egungo nazioarteko oreka beste altematibarik proposatzeko gai denik. Hala ere, beste aukerabiderik inon sumatu ez arren, Estatuak ez bide dute euren indar-ahalmena hain seguru ikusten, gero eta gehiago mozomotzen baitute betidanik zehatza izan den eraso-hizkuntza. Izan ere, gerra modernoak honako baldintza berri hauek bete behar ditu:

Lehen eta behingoz, gerrarik izan edo ez, sekula ez gero gerra hitzik aipatu. Honela, gerra ez da erreala, alegiazkoa baizik (Michael Ignatieff, *Guerra virtual. Más allá de Kosovo*, Bartzelona, 2003). Bigarrenik, alegiazko gerra hori ez da ezein legebiltzarretan eztabaidatzen, inkesta, gizarte-ikerketa eta komunikabideetan baizik. Hirugarren, alegiazko gerrak ez du sekula bi estatu demokratikoren artean gertatu behar, beraien hautesleagoak nekez ulertuko bailuke bi demokraziaren arteko eraso. Baina, alderantziz, hautesleago superdemokratikoa gertu dago estatu ezdemokratikoren bat edo beste noizik behin erasotzeko, herri atzeratuak diktadurapetik salbatzeko eta, zer esanik ez, ekintza «humanitarioak» sustatzeko.

Gainera, gerrak, erreala ez denez, gizartearen onesten errealik ere ez du behar. Gerra birtualari aski zaio onarpen birtuala. Baita mobilizazio birtuala ere.

Mobilizazio errealik eza

Frantziako Iraultza arte jendea ez zen gerrarako mobilizatzen. Ordura arte, gerrak jauntxoen arteko denborapasa

baino ez ziren eta soldaduak mertzenarioak besterik ez. Soldadu frantsesek, aldiz, hiritarren nazio berria defendatu behar izan zuten eta, ondorioz, hiritar arrunta soldadu bihurtu zen.

Hiritarren mobilizazioa erabat areagotu zen Lehen eta Bigarren Mundu Gerretan. Bi gatazka haietan 50 milioi lagun inguru hil ziren arren inor gutxi kexatu zen, bai bizitzak ez zuelako gaur bezainbat baliorik eta baita ere hiritarrak Estatuena nazio-interes, nortasun eta ekonomiaren defendatzaile sutsu bihurtu zirelako.

Baina hori guzti hori XX. mendean amaitu zen. Irizpide berrien arabera, bizitzak inoiz baino gehiago balio du, jendeak erraz asko bereizten ditu balio zibilak eta militarak, derigorrezko zerbitzu militarra amaitu egin da eta gudarosteak profesionalizatu, gizarteak ez du beste nazioen bizkar sarraskirik egindako heroirik nahi eta gerrek sekula baino gutxiago baldintzapetzen dute ekonomia.

Guztia gutxi bailitzan, mendebaldeko telepolisen bada gaur egun Frantziako Iraultzan eta bi mundu gerretan ez zegoen zerbait: telealbistegiak. Teleikusleak ez du otorduan gerrarik ikusi nahi, ez «besteen» hildakoak odolustean ez «gureak» plastikozko poltsa beltzetan.

Horregatik, hain zuzen ere, gaur egun erreala bezain garrantzitsua da komunikabideetako gerra birtuala. Are gehiago kontuan hartuz gerra birtualak ez direla iragartzen, ez ofizialki adierazten, ez inor mobilizatzen.

Telebista generoa ote?

«Zinema eta Telebistaren elkarrekiko eraginak» delako gaiaz eztabaidatzeko hainbat aditu, kritikari, irakasle eta azterlari bildu ziren Milanen 1962 urtean. Haietako bat, Umberto Eco idazlea, mahai-inguru hartan entzundakoaz baliatu zen *Apocalittici e integrati* (Milan, 1964) liburu ospetsuan zehar hainbat hausnarketa egiteko. Geroztik berrogei urte pasatu dira.

Besteak beste, mahai-inguru hartan bi iritzi nabarmen kontrajarri ziren. Zenbaiten ustez, genero estetiko

gisa, telebistarik izan ez da. Telebista teknologia besterik ez da —elektronika-eskoletan irakasten dena—, bere aurretik ziren genero, molde eta ekoizpenen transmisio-sistema baino ez, alegia. Funtsean, fenomeno soziologikoa, ez estetikoa.

Beste hainbaten iritziz, ordea, telebistak bere estetika propioa du, bere hizkuntza bereziaz. Hauen ustez, teknologia bakoitzak bere lengoaia du eta film-zuzendariak filmaketan zehar zein muntaketan nahiago dituen planoak eta sekuentziak hautatzerik duen bezala, telebista-editoreak ere hainbat kamera edo monitoreren irudien arteko edizioa egin ahal du, nahiz eta aukera hori, zuzenean ari delarik, bat-batekoa izan. Hau da, errealitatearen isla ez da objektiboa, telebistaren aukera subjektiboa baino, estetikoa alegia.

Umberto Eco bi pentsamolde hauek integratu nahi izan zituen. Semiotika-maisuak orduan proposatu zuenez, estetikarik eza ez litzateke arrazoi aski izango telebistarik badenik ukatzeko. Telebistari estetika propioa ukatuko balitzaio ere, ukapen horrek ez luke inondik ere murriztuko gizartearen balio estetikoak baldintzapetzeko telebistak duen ahalmena.

Hala ere, Ecoren aburuz, telebista ez da generoa, zerbitzua baizik. Ez da generoa, hainbat generoren eskaintza-zerbitzua baino. Italiar idazleak esan bezala, telebista anitza da eta ikus-entzule bakoitzak telebistaz pentsatzen duenean telebista-programa ezberdina du buruan. Zenbat buru hainbat aburu, zenbat ikus-entzule hainbat programa, eta zenbat programa hainbat genero. Telebista, oro har, ezin da genero izan, argitaletxe bat ezin den bezalaxe genero izan.

Noski, Umberto Ecoren maisutza eta agintaritzza gutxietsi gabe, orduandik hona erabat aldatu da telebista, ez baitira alferrik berrogei urte pasatu. Eta, italiar adituaren logika jarraituz, gaur egun inork ez du ukatzen telebista «aurretik ziren genero, molde eta ekoizpenen» zerbitzua baino zertxobait gehiago denik. Albistegiak, elkarrizketak, mahai-ingunak, kirolak, zinema, antzerkia, kontzertua, zirkua eta bestelakoez gainera, gaur egungo telebistak sekula aurretik inoiz eta inon izan ez diren programa-mo-

tak ekoizten eta eskaintzen ditu. Are gehiago, telebistaz kanpo beste inon egin eta aurkeztu ezin diren programa bakanak ikus ditzakegu egunero telebistan eta telebistaren ezaugarri bihurtu dira gainera.

Mundua mundu denetik, salbuespenik gabeko tesia da, goizago edo beranduago, teknologia bakoitzak bere lengoia aproposa sortarazten amaitu izan duela. Beharbada, telebistaren asmakizun teknologikoari ia zazpi hamarkada luze kostatu zaio bere genero propioaz jabetzea baina, azkenean, lortu du. Lortu duena ikusi ondoren zenbaitek pentsa lezake ez zuela horrenbeste denbora itxaroterik merezi. Baina hori beste kontu bat da.

Nahiago dugun gizartearen isla

Beharbada ez zuen, ez, horrenbeste itxaro beharrik, baina, azkenik, telebista genero berria da, bai. Gero eta gehiago gainera. Umberto Eco *Apocalittici e integrati* 1964an argitaratu zuenean telebista ez zen alde aurretik zeuden generoen (zirku, opera, dantza, kontzertu, antzerki, film, dokumental, folletin, albistegi etab.) bilduma etxera zezakeen teknologia baizik. Berrogei urte geroago, aldiz, telebista hori guztia baino askoz ere gehiago da.

Gaur egungo telebistan zer esanik gehien sortarazten duten programak, «balio erantsirik» gehien eskaintzen dutenak, beste inongo edo ezelango taula, eszenategi, foro, areto edo pantailatan ezin ikusi diren ekoizpen-motak dira. Beharbada ez dira, inondik ere, produkzioaren alde-tik programarik landuenak edo zailenak baina bai, ordea, sekula izan diren ideologizatuenak, bat-bateko itxurak besterik irudikatu arren.

Oraingo programazioaren balio erantsi horri mezu propioa dario. Mezu honek, zer nahi delarik eta zer gerta ere, honako baldintza hauek betetzen ditu:

- Telebistaren mezu berri eta propio hori ergela da, tentela, arina eta leloa. Telebista da eremu publiko bakarra non ondo ikusia dagoen inozokeriak egitea eta inozorenak egiten uztea.

- Mezu hori kontserbadorea da. Ez du ezer aldatu nahi, ez du ezer arriskatu gura eta, ezertan ahalegintzekotan, tokian tokiko *establishment*-aren balioak azpimarratzen saiatuko da.

- Programazio-mota honek eskaintzen digun oro alde aurretik «*dakigu*». Telebista gure ispilu da (Enrique Lynch, *La televisión: El espejo del Reino*, Bartzelona, 2000).

- Mezu «hezitzailea» da, proposatzen digun gizarte horretan arrakasta lortzeko beharrezko den hezkuntzaren funtzio soziala betetzen baitu. Telebistak berak hezten du audientzia, ikus-entzuleak kontsumitzen, ekoizten eta lanean ez diharduen bitartean... ikus-entzule horrek kontsumitzen, ekoizten eta lanean ikas dezan, hain zuzen ere.

- Aisialdi-industriaren plataforma estrategikoa da. Egungo gizartearen helburua entretenimendua, denborapasa eta astia betetzea da. Ontzat eskaintzen zaigun bizi-moduak beharrezkotzat du telebista, beronen premia lartza du. Telebista estu-mestu hartzeko gertu dauden kritika-riak ere telebistaren beharretan dira.

- Azkenik, telebista publizitatearen eremu nagusia da. Publizitatea telebistaren erregina da, gizarte ispiluaren zaindaria. Zinema eta beste zenbait ekoizpen telebistaren menpeko dira eta telebista publizitatearen morroi. Publizitateak telebista finantziatu ez ezik, gizartearen balioak taxutzen eta moldatzen ditu (Régis Debray, *Vida y muerte de la imagen: Historia de la mirada en Occidente*, Bartzelona, 1998).

Laburbilduz, onerako zein txarrerako, telebistak lortu du, azkenik, gizartea islatzea. Batere ñabardurarik gabe islatu ere, gordintasun osoz. Are gehiago, telebistak bizi dugun gizartea erakusten digu eta baita nahiago genukeen gizarte-mota landu ere.

Diputazioak, hard; Jaurlaritza, soft

Gernikako Estatutuak zehatz-mehatz banatuak ditu bere ingurupeko erakundeen trafiko-eskumenak. Alde batetik, Diputazioei dagozkien azpiegituren plangintza, errepideak

eraikitzea, seinaleztapen finkoa jartzea eta, oro har, trafikoa normaltasunez ari dadin oinarrizko baldintzak segurtatzea. Jaurlaritzari, beste aldetik, Diputazioen errepideetan zehar arituko den trafiko hori kudeatzea eta unean uneko trafikoaren eraginez sor daitezkeen arazoak zuzentzeko aldian aldiko erabakiak hartzea. Laburbilduz, Diputazioei, errepideak eta seinaleztapen aldaezina eta Jaurlaritzari, berriz, trafiko-gizabaliabideak eta seinaleztapen aldakorra.

Ardura edo eskumen-banaketa hau erabat zehatza da eta nekez uste zezakeen inork, Estatutua onartu zenean, inoiz eztabaidarik sortuko zenik. Baina hogeitaka urte geroago informazio-teknologia berriek eskainitako aukerak bazterrak asaldatu dituzte eta ika-mika piztu. Izan ere, zer da informatika, baliabide finkoa ala mugikorra? Horra hor auzia.

Errepide eta trafikoaren kudeaketa erabat aldatu da azken urteotan. Denetariko kontrolpideak egunez egun ari dira informatizatzen eta radarrak, sentsoreak, kamerak, barne-telefoniak eta intranetak gero eta gehiago jartzen. Diputazioek sistema berri hauez baliatu nahi izan dute betidanik finkoak izan diren informazio-iturri eta seinaleztapenak arindu eta azkartzeko, eta Jaurlaritzak beste horrenbeste egin du trafiko mugikorraren segurtasun, zelata eta zaintza-sistemak areagotzeko. Beste era batez esana, Diputazio bakoitza lurraldean lurraldeko «Errepide Kontrol Zentroa» irekitzeko gertu eta Jaurlaritza, berriz, «Trafikoaren Kudeaketarako Zentroa» zabaltzeko prest. Ondorioz, oraintsu arte bakoitza bere aldetik ari ziren bi mundu horiek informatikak elkartu ditu eta ezinbesteko *kortozirkuitua* eragin.

Auzia Batzorde Arbitralak epaitu behar izan du eta laburbilduz zera erabaki: Diputazioek hardwarea jarri behar dute eta Jaurlaritza, ostera, softwareaz arduratu. Alegia, Diputazioek azpiegitura eraiki eta oinarrizko seinaleztapena jarri, informatikoa zein ez; Jaurlaritzak, aldiz, trafikoa kudeatu eta horretarako behar duen unean uneko sistemez baliatu, informatikaz edo ez.

Enpresen lurralde-mugikortasuna

Gasteizko Mercedes-Benz enpresaren langileek uztailean zehar egindako greba-andana eta Alemaniako zuzendaritza nagusiak zenbait euskal instalazio Ludwigsfeldera (Berlin) eramango ote dituen abisua globalizazioak eragin ditzakeen lan-harreman berrien isla baino ez dira. Auzia irailetik aurrera argituko da eta kontua ez da, orain eta hemen, batzuen eta besteen negoziazio-arrazoiak aztertzea (are gutxiago testu hau abuztuan idatzia denez), telepolisen ikuspegitik fenomeno berria miatzea baizik.

Enpresen nazioarteratzea ez da inondik ere berria gero eta txikiago geratzen ari zaigun mundu-merkatuan. Enpresak euren produktuak zabaltzen hasi ziren han-hemenka eta produktuak ez ezik, produktu horiek ekoizteko tailer osoak nazioarteratzen amaitu dute, beti ere I+G inbertsioak sorterrian jagonez eta eskulana nahiz zabalkunde atzerrira eramanez.

Ja nara hau praktika arrunta da, Euskal Herrian kokatzen diren enpresa atzeritarren artean zein dagoeneko atzerrian lekutu diren 184 euskal enpresen artean. Guztiak helburu bakar batez: gastuak murriztu. Bai langile-gastuak (soldata merkeagoak) eta baita garraio-gastuak ere (ekoizpena merkatura hurbilduz).

Globalizazioak erakarri duen mugikortasun hau ekoizpen-sektore guztietan gertatzen ari da baina are zorrotzago, berriz, automozio-sektorean non ekoizpen-bilakaerek bost urteko zikloa baino ez duten. Hau da, oraintsu arte kokapen berriak hainbat urte luzetarako erabakitzen baziren ere, aurrerantzean bost urtetik behin aldatu ahal izango dira kokapenak. Beste modu batez esana, Mercedesen hainbat instalaziok ez du beti Gasteizen iraungo bertan kokatzea behin erabakitzeagatik, bost urteroko kostu-lehiaketan irabazle ateratzeko gai izango den heinean baizik.

Beraz, bost urtetik behin-edo Gasteizko plantak frogatu beharko du, munduko lehia irekian, lan-kostu onargarriak ote dituen, euskal industri-ingurunea mesedegarri zaion eta bertako erakundeak laguntzeko gertu dauden. ¶



JAKiIN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jakingunea.com